Es el pensamiento de la iglesia católica o de algunos de sus representantes. El autor de El Evangelio en triunfo o historia de un filósofo desengañado no puede ser más explícito. "Son imponderables las ventajas que resultan de que el labrador habite en el campo que cultiva (...) cuando sale del lugar para ir a la tierra va solo; su muger nunca va al campo (...); se queda en el lugar (...) y se acostumbran a buscar sus vecinas, a murmurar con ellas y abrir las puertas a todos los vicios de la ociosidad

(...). Los hijos (...) se acostumbran a correr con los otros muchachos y viciarse con ellos (...). El mismo labrador (...) se ve forzado a pasar el invierno en el lugar; ¿y qué puede hacer en tan largo tiempo más que tratar con los otros, jugar, murmurar y divertirse en la taberna? Ve aquí una de las causas que más contribuyen a la corrupción general que se observa, porque es imposible que la ociosidad y el trato de los perversos no perviertan las costumbres" (Anónimo, 1882, pp. 173-174).

Si, como afirma Benedict, "en la vida cultural lo mismo que en el lenguaje la selección es la necesidad primera" (1971, 16) y, además, "determinadas profesiones y actitudes humanas" son claves para comprender qué es lo que se percibe, como escribe Rothacker desarrollando el esquema de Uexküll (1957, 145), el análisis de la religión y de los dérgigos en relación con lo que se entiende por cultura vasca posee una importancia excepcional. La religión católica en el País Vasco es el órgano de la percepción y comprensión del mundo. Con Larramendi, sobre todo, una visión "nueva, profunda desde el punto de vista social" (Caro Baroja, 1974 (c), 67), articula y desarticula el mundo vivido. Como escribe Dilthey refiriéndose al pueblo romano: "un mundo de conceptos nuevos penetra así en el horizonte de la conciencia. Es como si emergiera del mar un nuevo continente" (en Rothacker, 1957, 156).

El mar y sus gentes son sumergidos en los abismos del mal al igual que lo hicieron los griegos de sus mares y de sus gentes desde su visión nuclear de la polis (ver Caro Baroja, 1974 (a), pp. 59-100; Moya 1977). El propio Caro Baroja se halló un tiempo tan sumergido en la "nueva visión" de la primitividad que sucumbió ante su fuerza repetidas veces. Las estelas de su visión pueden, sin embargo, adquirir importancia y con ellas ver lo que casi nadie parece ver aunque esto se halla a plena luz del día. Las culturas vascas anteriores perciben y comprenden el mundo de otra forma. Siempre e inevitablemente nos topamos con culturas históricamente determinadas, nunca con la cultura.

Baldin eta, Benedict-ek dioenez, “kultur bizitzan, lengoaiari bezala, hautaketa [ba] da premietan lehena” (1971, 16. or.) eta zer antzematen den ulertzeko, “zenbait lanbide eta giza jarrera” (1957, 145. or.) giltzarri badira –Rothacker-ek Uexküll-en eskeman oinarriturik dioenez–, euskal kulturatzat hartzen den horren inguruko erlijioa eta elizgizonak aztertzeak sekulako garrantzia du. Euskal Herrian mundua hautemateko eta ulertzeko organoa da erlijio katolikoa. Larramendirekin batez ere, ikuskera “berriak, ikuspuntu sozialetik sakonak” (Caro Baroja, 1974 (c), 67. or.) egituratzen eta desegituratzen du bizitako mundua. Hala idatzi zuen ere Dilthey-k erromatar herriaz: “kontzeptu berriz beteriko mundu bat sartzen da modu horretara kontzientziaren ikusmiran. Itsasoan kontinente berri bat azalera bezala” (Rothacker, 1957, 156. or.).

Gaizkiaren osinetan urperatuak izan dira itsasoa eta itsasaldeko jendea, greziarrek, polis-a erdigunetzat zuen ikuspegi harekin, beren itsasoa eta itsastarrak urperatu zituzten bezala (ikus Caro Baroja, 1974 (a), 59-100. orr.; Moya 1977). Caro Baroja bera ere, garai batean, primitibitatearen “ikusmolde berrian” murgildurik bizi izan zen, eta haren indarrari men egin behar izan zion behin baino gehiagotan. Baliteke, hala ere, haren ikuskerak utzitako lorratzek garrantzia hartzea, eta haien bidez, gaur ia inork ikusten duena –egun argitan egon arren ikusteko zer hori– ikusi ahal izatea. Antzinako euskal kulturek beste era batera hautematen eta ulertzen zuten mundua. Beti, eta ezinbestean, historiak moldatu eta zehazturiko kulturekin topatuko gara, sekula ez kultura soilarekin.

Bibliografia

- ANONIMO (1882), *El evangelio en triunfo o historia de un filósofo desengañado*. Laminez apainduriko edizio berria. T. IV. Girona.
- AZCONA, J. (1982): *La delimitación antropológica y etnológica de lo vasco y de los vascos*, Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, 40. zk., 753-802. orr.
- BENEDICT, R. (1971), *Patterns of Culture*, Routledge & Kegan Paul, Londres.
- CARO BAROJA, J.
 (1972), *Los vascos*, Istmo, 3. arg., Madril.
 (1974) (a) *De la superstición al ateísmo*, Taurus arg., Madril.
 (1974) (b) *De la vida rural vasca*, Estudios Vascos IV. Txertoa arg., Donostia.
 (1974) (c) *Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco*, Estudios Vascos VI. Txertoa arg., Donostia.

- (1974) (d) *Hitzaurrea* A. Chapa Ozámiz-en *Primer catálogo del modelismo naval en Vizcaya* liburuarri, La Gran Enciclopedia Vasca arg., Bilbo.
- (1974) (e) *Vasconiana*, Estudios Vascos III. Txertoa arg., Donostia.
- (1979) *Ensayos sobre la cultura popular española*, Dobse arg., Madril.
- (1981) *Los vascos y el mar*, Txertoa arg., Donostia.
- CARO BAROJA, J. eta E. TEMPRANO (1985), *Disquisiciones antropológicas*, Istmo arg., Madril.
- ESTRUCH, J. (1993) *Santos y pillos. El OPUS DEI y sus paradojas*, Herder arg., Bartzelona.
- MOYA, C. (1977) *De la ciudad y de su razón (Del logos político a su razón sociológica)*, Cupsa arg., Madril.
- ROTHACKER, E. (1975) *Problemas de antropología cultural*, FCE, Mexiko.

Bibliografía

ANÓNIMO (1882) El Evangelio en triunfo o historia de un filósofo desengañado. Nueva Edición, adornada con láminas. T. IV. Gerona.

AZCONA, J. (1982) La delimitación antropológica y etnológica de lo vasco y de los vascos. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, nº 40, 753-802.

BENEDICT, R. (1971) *Patterns of Culture*. Routledge & Kegan Paul, Londres.

CARO BAROJA, J.

(1972) *Los vascos*. Ed. Istmo, 3ª ed., Madrid.

(1974) (a) *De la superstición al ateísmo*. Taurus, Madrid.

(1974) (b) *De la vida rural vasca*. *Estudios Vascos IV*. Ed. Txertoa, San Sebastián.

(1974) (c) *Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco*. *Estudios Vascos VI*. Ed. Txertoa, San Sebastián.

(1974) (d) *Prólogo al libro de A. Chapa Ozámiz*, Primer catálogo del modelismo naval en Vizcaya. Ed. *La Gran Enciclopedia Vasca*, Bilbao.

(1974) (e) *Vasconiana*. *Estudios Vascos III*. Ed. Txertoa, San Sebastián.

(1979) *Ensayos sobre la cultura popular española*. Ed. Dobse, Madrid.

(1981) *Los vascos y el mar*. Ed. Txertoa, San Sebastián.

CARO BAROJA, J. y E. TEMPRANO (1985) *Disquisiciones antropológicas*. Ed. Istmo, Madrid.

ESTRUCH, J. (1993) *Santos y pillos. El OPUS DEI y sus paradojas*. Ed. Herder, Barcelona.

MOYA, C. (1977) *De la ciudad y de su razón (Del logos político a su razón sociológica)*. Cupsa Editorial, Madrid.

ROTHACKER, E. (1957) *Problemas de antropología cultural*. FCE, México.

In absentia

Anjel Lertxundi

“**I**tsasoak urak handi”, dio gure kanta tradizional batek. Gure hainbat arrantzale, konkistatzaile, abenturazale eta komertzio-gizonak hain ondo ezagutu dituzten itsasoaren ur handi horietan osatu da gure historiaren zati handi bat eta bertan oinarritu da mendeetan gure ekonomiaren alderdirik sendo eta eragingarriena. Caro Barojak garbi adierazten duen bezala, “barru aldera bildurik bizi den euskaldunarekin batera, bada kanpoaldearekin harreman estuak bizi izan dituen euskalduna” (*Los vascos y el mar*, 1985, 8. orr.).

Kanpoaldearekin harreman estu horiek izateko orduan, euskaldunak bere esku ahurra bezain ongi ezagutu du itsasoa, bertan burutu ditu hazainarik ederrenak, abenturarik ausartenak, lorpenik bikainenak.

Euskaldunak mila aukera izan ditu, bada, itsaso aurpegi anitzaren errealitate dinamikoak ezagutzeko, eta esperientziak daki itsasgaina bezain mugikorra, ura bezain iheskorra eta mugarik gabekoa dela giza-begiarentzat. Horregatik, euskaldunak eskura zeukan mitoen bidez esplikatzea itsasoaren dinamismo mugagabe hori eta erabil zezakeen bere izpirituaren ispilu gisa ere: halaxe jokatu du itsasoari begira, itsasoan eta itsasotik bizi izan den hainbat herrietako irudimenak.

Itsasoari begira bizi den herria da gurea, baina itsasoak ez du gurean tratamendu izpiritual berezirik izan: es plastikorik, ez literariorik, ez musikarik. Balearen arrantza, Ternua, untzigintza, lurrari jira... Badirudi bizitza trumiltsu horrek guztiak testigantza artistiko esanguratsuak utzi behar zituela gure imajineria kolektiboan.

Galiziarrek itsasuntzi baten brankako maskaroi itxurako arima omen daukate; olatuen aparra omen da vikingoen bizar sarria; itsasoaren kolorea omen dute normandoen begiek... Herri horien

iruditeria kolektiboa itsasoz blai eta gainezka dago. Gureak ere hala behar zuela dirudi. Joannes Etcheberri Ziburukoak adierazi zuen bezala, lore suerte guztiak geneuzkan sorta hori osatzeko (escaldunen ozpea da lur guztira hedatzen, eta itsasuri ontzat munduac tu laudatzen). Bai, itsas gizon trebetzat laudatu gaitu munduak, baina gure arimari ba al dario kresala-usainik?

Julio Caro Barojak seinalatu du, beste hainbatetan bezala, arazoa: “Tamalgarría da euskal itsas folklorea ez aztertu izana modu sistematizatuan, artean marinel eta arrantzaleen erabilerek eta usantzek teknika modernoaren erasoak sufritu ez zuten garaietan. Azteko azterketa batekin bakarrik izan genitzakeen iraganeko itsas gizonaren munduari buruzko ideia argiak, azterketa sakonago eta ugariagoak izan dituzten nekazarien mundu-ikuspegiaren parekoak” (*Los vascos y el mar*, 1985, 57. orr.).

Desoreka

Etetik abiatu etxe-zuloan bukatzeko: modu ironiatsu horretan ere interpreta daiteke euskaldunok Elkanoren bidez historiari eman diogun hazainarik bikainena (lur osoari estraineko jira eman bazion ere, bere asmoa utilitariagoa zen: espezien bide laburrago baten bila zebilen). Ez dut uste Keyserling-ek Elkano eta euskaldunak izango zituenik gogoan giza-abentura suerte hori definitzerakoan (Niaren eta niaren arteko bideak munduari jira ematen dio), baina iradokizunez beteriko bide bat da filosofo lituaniarraren esaldia.

Du Bellay-ren soneto famatuko lehen hitzak erabil ditzake inork gure izpiritu etxe-zuloaren aringarritzat: “Zorionsua, Ulises bezala, bidaia luzean ibili eta, sasoirik hoberenean, etxera itzultzen dena”.



Sorguiñ aizia-ren xehetasuna. Julio Caro Barojaren marrazkia, 1990. I. Cancho eta F.J. de los Mozos-en jabetzakoa (Madril).

Detalle de Sorguiñ aizia. Dibujo de Julio Caro Baroja, 1990. Propiedad I. Cancho y F. J. de los Mozos (Madrid).

In absentia

Anjel Lertxundi

Una de nuestras canciones populares dice "Aguas bravas son las del mar". En estas aguas que tan bien conocen todos nuestros pescadores, conquistadores, aventureros y comerciantes, se ha forjado gran parte de nuestra historia y durante siglos ha sido el mar la parte más sólida e influyente de nuestra economía. Como bien dice Caro Baroja, "junto al vasco 'volcado hacia adentro' hay otro con intensas relaciones con el exterior" (Los vascos y el mar, 1985, pág. 8).

A la hora de mantener esas estrechas relaciones con el exterior, el vasco ha conocido el mar como la palma de su mano, allí se han forjado las hazañas más hermosas, las aventuras más osadas, los logros más sobresalientes.

Por lo tanto, el vasco ha tenido miles de posibilidades para conocer la realidad dinámica de los distintos rostros del mar, y sabe por experiencia que su realidad es tan imprevisible, escurridiza e ilimitada como lo son sus aguas para nuestra mirada. Por eso, el vasco tenía al alcance de la mano poder explicar el ilimitado dinamismo del mar, y pudo utilizarlo incluso como espejo de su propio espíritu: así lo han hecho muchos pueblos marinos que han vivido en él o de él.

El nuestro es un pueblo que vive asomado al mar, pero no ha tenido entre nosotros un tratamiento espiritual propio: ni estético, ni literario, ni musical. La pesca de la ballena, Terranova, los astilleros, la vuelta al mundo... Parece lógico suponer que toda esa agitada vida tuvo que dejar en nuestra imaginería colectiva testimonios artísticos significativos.

Se dice que los gallegos tienen el alma con la apariencia de un mascarón de proa; la tupida barba de los vikingos es, según la tradición, espuma de olas; los ojos de los normandos se supone que tie-

nen el color del mar... La imaginería colectiva de esos pueblos está empapada y rebosante de mar. La nuestra también debiera haber sido así. Como señaló Joannes Etxeberri de Ziburu, teníamos toda la variedad de flores para completar un hermoso ramo ("la fama de los vascos se extiende por toda la tierra, y como buenos hombres de mar es elogiada en el mundo"). Efectivamente, el mundo nos ha ensalzado como hábiles hombres de mar. ¿Pero nuestra alma huele en verdad a salitre?

Julio Caro Baroja atinó, como en tantas otras cuestiones, a la hora de plantear el tema en su justa medida: "Es de lamentar que el folklore marítimo vasco no haya sido estudiado de una manera sistemática en épocas en que los usos y costumbres de marineros y pescadores no habían sufrido la presión de la técnica moderna. Sólo con un estudio semejante podríamos haber tenido ideas claras acerca de la concepción del mundo del hombre de mar del pasado, paralelas a las que tenemos acerca de la concepción del mundo de los campesinos y gentes de tierra adentro, que han sido objeto de estudios más sólidos y variados" (Los vascos y el mar, 1985, pág. 57).

Desequilibrio

Salir de la propia casa para acabar volviendo de nuevo a ella: podemos valernos de la ironía a la hora de interpretar la hazaña más sobresaliente que los vascos, mediante Elcano, hemos aportado a la historia (a pesar de ser el primer navegante que dio la vuelta al mundo, su propósito era más utilitario: quería buscar la ruta más corta para el comercio de especias). No creo que Keyserling pensara en Elcano y en los vascos a la hora de definir ese género de aventura humana ("La ruta entre el yo y el yo gira alrededor del mundo"), pero

Baina Ulises-en ausentzia luzeak eta ondorengo itzulerak bere herritarren irudimena eta fantasia sukartu zituen.

Elkanoren hazainari azpilak aurkitzen saiatu eta formula ditzagun, hipotesi gisa badarik ere, hainbat galdera: itsutu egiten al gaitu itsasoak eta ez dugu ikusten, edo, alderantzizko bidetik jota, arrunta zaigu itsasoa eta batere misteriorik gabea? Zer harreman izpiritual izan du gure herriak itsasoarekin eta nola errepresentatu du harreman hori? Zergatik heldu zaigu harreman horien hain errepresentazio urria: osatzen jakin ez dugulako ala oroitzapen kolektiboak errepresentazio horren aztarnak gordetzen jakin ez duelako? *Brodutzen ari nintzen, Ana Juanixe* edo *Ene mutilik* ttipiena baladak bezalako perla distiratsuak, Europa osoko baladistikan aurki daitezkeenak bestalde, hutsune hori konfirmatzen duten salbuespenak al ditugu, edo galdu egin dugun tradizio askoz ere zabalago baten azken aztarnak dira? Seguruasko bai, logikak hala erakusten baitigu, baina, hala ere, gure balada horiek itsasoan gartzan diren ixtorioak badira ere, ez da testu eder horietan itsasoarekin zerikusirik duten deskribapenik, konparaketarik edo paralelismorik agertzen.

Mitotik deskribapen errealistera bitarteko galga zabalean mugitzen da edozein gairi buruzko iruditeria estetikoak. Emaizta estetikoek galga horren zein posizio betetzen duten aztertzeak laguntza paregabea eskain dezake kolektibitate horren arima estetikoak argitzeko eta ulertzeko orduan. Begira ditzagun gure aztarna zaharrenak, arrantzale etxeetako ertaroko ataburu eta armarrietako irudiak: errealistak dira gehienak, itsasoko langintza dute gai eta, garaia kontutan harturik, harrigarria da elementu mitiko eta fabulosoaren ausentzia. Itsasoa begira dagoen muino batean jaioa naiz, baina gure etxea artasail, soro eta belardiz inguratua zegoen. Artazuriketako gauetan, errosarioa errezatzeaz gain, gure amonak jentilen, galtxagorrien eta sorginen ixtorioak kontatzen zizkigun. Ez zen arrantzalerik falta hitz jario doforeko emakume haren familian, baina haren ipuinetan ez zego-

en itsas lamiarik, argonautarik, itsaspeko erresumarik, olagarro erraldoirik, zoroen itsasuntzirik. Gure amonarena extrapolatu eta antzeko zerbait gertatzen da Euskal Herri osoko kostaldean ere: desoreka handia dago gorde dugun lehorreko tradizioaren eta itsasokoaren artean.

Itsasoak ez du adarrik

Gure amona zena abisatzen zigunez, munduaren akaberak izango dituen seinale ilun guztien artean, bat izango omen da argia: itsasoa, edozein terreno bezala, partitzen hasten garen egunean bukatuko omen da mundua. Apokalipsiak esaten digunez, berriz, Josafateko zelaian ez omen da itsasorik izango. Esaldi horrek, besterik badirudi ere, ez dauka inolako azpilik: itsasorik gabeko mundu berri hori bidaiaren amaia da; portua; betiko barealdia.

Ez, heriotzaren ondoren ez dugu itsasorik ikusiko, itsasoa mugikorra baita; ez dago inoiz geldi, eta itsasoz dabilena ere ezin bilin-bolonik gabe egon; itsasoak ez du, gure esaera zaharraren arabera, adarrik (heldulekurik). Orain beltz, gero gordin, hurrengoan haserre, errekak, iturriak eta ibaiak oro irensten ditu: mendietako urik ez da gelditzen itsasoaren golkoan murgildu arteraino. Lurretik datorkionaz gizentzen da, bada, itsasoa, eta lurretik datorkion ur horretan hasten da nabigatzen itsasuntzia. Erdi Aroan *Navigatio* hitzarekin adierazten zuten bidaia oro. Untzi eta ibilgo. Bizitza.

Ulises itsasoz itzuli zen etxera, Troia suntsitu ondoren; itsasoz abiatu zen Telemako Ulises aitaren bila; itsasoz ekin zion Jim Hawkins-ek bere bidaia inizatikoari, altxorraren esperantzetan (aita gaitzetsi, eta heldutasunaren -askatasunaren- altxor bila). Hiru arketipoek historian (bizitzan) kokatu zuten beren burua, gure autore zahar baten irakaspidetik (Abarrategirenetik) gehiegi urrutiratu gabe: "mundu honek dirudi itsasoa: igerika ez dakiena, itotzera doa".

la frase del filósofo lituano es un camino abierto a múltiples sugerencias.

Podemos justificar nuestro espíritu hogareño valiéndonos de las primeras palabras del famoso soneto de Du Bellay: "Afortunado, quien al igual que Ulises, se aventura en largos viajes y, en lo mejor de la vida, regresa a casa". Pero la larga ausencia de Ulises y su posterior regreso encendieron la imaginación y la fantasía de sus compatriotas.

Analicemos con detenimiento la hazaña de Elcano y formulemos, a modo de hipótesis, unas cuantas preguntas: ¿es que nos ciega el mar y no lo vemos o, al contrario, nos parece tan cotidiano que no nos ofrece ningún misterio? ¿Qué relación espiritual ha mantenido nuestro pueblo con el mar y cómo ha representado esa relación? ¿Por qué nos ha llegado una muestra tan pobre de esas relaciones: porque no hemos sabido plasmarla o porque la memoria colectiva no ha sabido guardar las huellas de esa representación? ¿Las brillantes joyas como las baladas Brodatzen ari nintzen, Ana Juanixe y Ene mutilik, que pueden encontrarse en la baladística de toda Europa, son excepciones que confirman ese vacío o son los últimos vestigios de una tradición mucho más amplia que hemos perdido definitivamente? Probablemente ha sucedido lo último, porque así nos lo enseña la lógica, e incluso en esas baladas nuestras, hermosas historias que se desarrollan en el mar, no aparecen descripciones, ni comparaciones, ni paralelismos que se valgan del mar y aporten color al texto.

La imaginería estética sobre cualquier tema se mueve en el amplio espacio que va del mito a la descripción realista. Estudiar qué posición ocupan en ese abanico los resultados estéticos puede proporcionarnos una ayuda inestimable a la hora de aclarar y entender el alma estética de esa colectividad. Analicemos nuestras huellas más antiguas, los dinteles de las casas de los pescadores del medievo y las imágenes de los escudos: la mayoría

son realistas, el único tema que aparece prácticamente es el oficio del mar y, si tenemos en cuenta la época, es sorprendente la ausencia en ellos de elementos míticos o fabulosos.

He nacido en loma que mira al mar, pero nuestra casa estaba rodeada de maizales y prados. Por las noches, cuando desgranábamos las mazorcas de maíz, además de rezar el rosario, nuestra abuela nos contaba historias de gentiles, diablos y brujas. No faltaban pescadores en la familia de aquella mujer de verbo fácil y elegante, pero en sus cuentos no había lamias marinas, ni argonautas, ni reinos sumergidos, ni pulpos gigantescos, ni barcos de locos. Si extrapolamos lo de nuestra abuela, veremos que algo semejante ocurre en toda la costa del País Vasco: hay un gran desequilibrio entre las tradiciones marítimas y rurales.

El mar no tiene recodos

Nuestra abuela nos advertía que, entre todas las confusas señales anunciadoras del fin del mundo, habrá una nítida: el mundo se acabará cuando empecemos a repartirnos el mar como si fuera un trozo de tierra. Sabemos por el Apocalipsis que no hay mar en los prados de Josafat. Esa frase, aunque pueda prestarse a equívoco, no tiene otra lectura: ese más allá sin mar es el final del camino; el puerto; la calma eterna.

Efectivamente, tras de la muerte no veremos el mar, porque el mar es movimiento; nunca está quieto, y el que se mueve en él tampoco puede hacerlo sin balancearse; el mar, como dice nuestro antiguo refrán, no tiene recodos (a los que uno puede asirse). Ahora oscuro, verde luego, enfurecido más tarde, engulle todos los arroyos, afluentes y ríos: no hay agua en los montes que no vaya a dar al mar. El mar se alimenta de lo que le manda la tierra, y en esas aguas comienza a bogar el barco. En la Edad Media todos los viajes se simbolizaban con la palabra Navigatio. Nave y camino. La vida.

Bizitza: sabelgunerik gabeko zelaia (zelaietan ez bezala, begiek ez dute itsasoan mugaririk aurkitzen) eta, era berean, osin handia (itsasoak arrastero irensten du eguna). Marea da itsasoaren itzala, eta hark markatzen du erresuma itsastiarra: itzala heltzen denerainokoa da erresumaren muga ere. Itsasoan ez da arrastorik gelditzen, urak berdintzen ditu untzien ibilerak. Itsasoan ez dago biderik, eta ez dago bidaiarako seinaleak aurkitzerik: begiak zerurantz jaso eta artizarraz fidatu beharra dago.

Gure psikologia espaziala

Sei omen dira, psikologia espazialaren esanetan, giza historian oratu diren naturari buruzko jarre-
rak. Lehendabiziko hiruek badute zerikusirik zibilazioaren orain arteko garapenarekin:

- **Natura etsai:** gizakiak naturari buruz daukan senazko jarrera da natura etsaitzat hartze hori, eta antzinako gizakiak mitoaren bidez kontrolatu-
-izua uxatu- nahi izaten zuen natura. Gure imajinarioaren aztarnategi horretatik ez zaigu askorik hel-
du. Beranduagokoak dira ahozko tradizioko aipu, esaldi eta uste asko eta asko: itsasoaren etsaigoari kontra egiteko jarrera erlijiosoen errosario luzea daukagu euskaldunok (“Gurmak itsasoan, kandel-
la piztu arasa gainean” esaerak laburbilduko luke errosario hori). Gainera, gure arrantzaleek bereha-
la ikasi zuten “itsasoari errespetua gorde behar zaiola, baina ez beldurrik”. Naturaren ezagutzak dakar naturaren kontrola: Amerikaren deskubri-
-menduak eta Elkanoren itzuliak hondoratu zituzten itsasoari buruz geratzen ziren mitoak: itsasoaren sugestio izugileari errespetua jarraitu zitzaion.

- **Natura liluragai:** erromantikoei zor zaie jarrera honen, ez sorkuntza, baina bai garapen erabateko-
koa. Natura ez da jainko beldurgarri bat. Onuragarria da berez eta gizakiaren kutsadurak egiten du arriskutsu. Zibilizazioak kutsatu gabeko natura da Basati Ona roussoniarraren sehaska. Errealista

da Pío Barojaren itsasoari buruzko nobelagintza, baina ez da nobela eder horietan itsasoarengana-
ko lilura erromantikorik falta, *El laberinto de las sirenas* liburuan aitortzen duen bezala: “Nire nobeletan errealismoa dago, baina baita erroman-
-tizismo piska bat ere: gutxi gorabehera, nobela guztietan bezala”. Euskarazko literaturak ez du itsasoarenganako lilura erromantiko hori kantatu, ez kontatu.

- **Natura aberastasun-iturri:** Natura aberastasu-
-nez gainezka dago (itsasoa bilakatu zaigu etorki-
-zuneke bihitegi eta altxor) eta, Saint Simonen ideien arabera, gizakia da aberastasun horien administrazioaile. Tituluak iradokitzen duenez, erromantiko *avant la lettre* gisa har genezake Martin de Hoyarabalek 1633an argitaratu zuen *Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarabal, habitant de Cubiburu*, urte batzuk beranduago, 1677an Piarres Etxeberriek *Itsasoko nabigazioa* izenez euskarara itzuli zuena, baina liburuak, bidaia abenturazale bat kontatu ordez, Ternuara onik nola heldu adierazten digu. Hamazazpigarren mendearan atarian, 1606. urtean, “Seminario de marinos” bat antolatu zuten Donostian. Gaurko Eskola Nautikoen aitzindari, itsas armadarako eta itsas komertziorako gizon trebeak prestatzea zuen helburu.

Gaur gaurkoak ditugu ondorengo hiru psikologia espazialak, eta horien zurrumbiloi bizi gara:

- **Natura, hiriaren periferia:** hiria da zibilizazioaren garapen eta gune, eta naturak, erabat menderaturik eta teknifikaturik, ez du bihitegiaren funtzioa besterik betetzen.

- **Natura abaro eta babes:** Hiria astuna eta alienatzailea gerta dakioke gizakiari. Estresaturiko hiritarrak Naturara ihes eginez aurkituko luke gal-
-dutako oreka.

- **Natura artifizioaren - hiriaren - kontrako balore berri.** Natura ez da dagoeneko ez jainko eta ez da etsai; ez da agortezina; ez da babes, bazterrik izkutuenera heldu baitira coca-cola latak eta telebistaren antenak. Hori gutzia horrela delarik,



Sorguñ aizia-ren xehetasuna. Julio Caro Barojaren marrazkia, 1990. I. Cancho eta F. J. de los Mozos-en jabetzakoa (Madrid).
Detalle de Sorguñ aizia. Dibujo de Julio Caro Baroja, 1990. Propiedad I. Cancho y F. J. de los Mozos (Madrid).

Ulises, tras la destrucción de Troya, volvió a casa por mar; por mar partió Telémaco a buscar a su padre Ulises; por mar realizó Jim Hawkins su viaje iniciático con la esperanza de encontrar el tesoro (tras desembarazarse de la tutela paterna, buscó el tesoro de la madurez y de la libertad). Estos tres arquetipos acomodaron sus cabezas en la historia (en la vida), sin alejarse demasiado de las enseñanzas de un autor nuestro, Abarrategui, prácticamente olvidado: "este mundo es como el mar: quien no sabe nadar, se ahoga".

La vida: campo sin fondo (al contrario que en los prados, los ojos no encuentran límites en el mar), e igualmente pozo profundo (el mar engulle el sol todas las tardes). La marea es la sombra del mar y delimita el reino marino: el límite de sus dominios llega hasta donde alcanza la sombra. En el mar no quedan huellas, el agua iguala el navegar de los barcos. En el mar no hay caminos, no se pueden encontrar señales para el viaje: hay que alzar la vista al cielo y fiarse de la estrella polar.

Nuestra sicología espacial

La sicología espacial establece seis conductas que se han concretado en la historia de las relaciones que el hombre ha mantenido con la naturaleza. Las tres primeras tienen mucho que ver con el desarrollo de la civilización hasta prácticamente nuestros días:

-Naturaleza enemiga: esa predisposición que el hombre tiene para interpretar la naturaleza como enemiga es una conducta instintiva, y el hombre primitivo ha querido controlarla -quitarse el miedo de encima- creando sus propios mitos. Pero el legado que nos ha llegado de ese yacimiento de nuestra imaginaria es escaso. Muchas de las menciones, frases y sugerencias de la tradición oral son posteriores a este estadio mítico: los vascos hemos desgranado un largo rosario en forma de actitud religiosa a la hora de afrontar las amenazas del mar (el refrán "Bruma en el mar, encended una vela sobre la alacena" resume ese rosario). Además, nuestros pescadores aprendieron por propia experiencia que "al mar hay que tenerle respeto, pero no miedo". Conocer la naturaleza conlleva controlarla: el descubrimiento de América y la vuelta al mundo de Elcano derrumbaron los mitos que quedaban del mar: la intimidatoria sugestión del mar dio pronto paso al respeto.

- Naturaleza deslumbrante: es una actitud propia de los románticos, y aunque no fueron ellos los creadores, sí contribuyeron definitivamente a su desarrollo y expansión. La naturaleza no es un dios pavoroso. Es esencialmente bondadosa, y es la contaminación del hombre lo que la vuelve peligrosa. La cuna del roussonianismo Buen Salvaje es una naturaleza incontaminada por la civilización. Las novelas de Pio Baroja sobre el mar son realistas, y en ellas se refleja una romántica atracción

galdutako orekaren iparrorraz gisa erreibindikatu behar da Natura.

Zaila da sinplifikazioei bizkarra erakustea euskaldunon itsasoari buruzko jarreraz hitz egiterakoan, datu gutxi baitauekagu. Horregatik, gai honetan hobe da lan-hipotesiei eta asmabidei atea zabaltzea, baieztapen borobilak botatzea baino. Beraz, honela laburbildu nuke nik gaur gaitzat hartu dudana asmabidea: itsasoa etsaitzat geneukan garaiko mito askorik geratzen ez bazaigu, itsasoari buruzko uste utilitarioak gure artean aspaldi errotu zirelako izan da, Ternuako esperientziek eta Bailearen arrantzak frogatzen dezaketenez. Euskal esaera batek ere horixe bera adierazten digu modu guztiz deigarrian: diruak ba omen daki itsas gainean ere ibiltzen.

Gure imageria

Ziburuko Joanes Etxeberri ekarri behar dut berriro hona, haren esaldi baten abarora sinplifikazioetarako arriskua saihestu ez, baina bai lehenxeagoko asmabidea babesteko: "gure marinelek biciaren gati dute hirriskatzen bizia". Itsasertzeko elizetako unti eskegiek edo marinelen emazteek unti berrien sabelean gordetzen zituzten kutun eta txanponak ere Etxeberriren pentsamendu hori konfirmatzen dutela dirudi. Horrek guztiak iradokitzen duen jarrerak (itsasoa aberastasun iturri) laburbiltzen al du -eta markatzen- euskaldunon itsasoari buruzko ideologia eta errepresentazio modua? Euskaldunak ez al du itsasoaren arriskua saihesteko mitoen beharrik izan? Edo, hain garai zaharretara joan gabe ere, ez al ditu itsasoarenganako lilura erromantikoa eta hura errerepresentatzeko premia menderaezina sentitu?

Gure ahozko imagerian itsasoak ez du ia tokirik. Behin ageriko, eta gaizki interpretatu dugu gure aipamenik ezagunena, Baionako barrarainoko itsasoaren lainotasuna -barealdia- lanbrotasunarekin nahasiz. Azkueren bilketa lanean,

Barandiaranen hiztegi mitologikoan, Antonio Zabalaren paremiologian ez da ia itsasorik ageri. Erabat lehorrekoa da gure iruditeria, egutera aldeko bizkarretako garo usainez lurrindua eta liholez ehundua. Gure idazleak ere egutera horren bizkarretan bildu dute zer adierazia: itsasoa gaitzat jorratu (!?) duten euskal idazleen salbuespen kontatuek (kostubrismoarekin lotuak gehienak) ez dute legea indartzea besterik lortzen.

Pinturari errepasso bat emango bagenio, ez genuke konfirmatu besterik egingo literaturaz esaten genuena eta Juan de la Enzina kritikariak ere bere garaian adierazi zuena. Regoyos eta Sorolla izan dira Bizkaiko itsasoaren argitasuna zehatzen -eta sarrien- pintatu dutenak. Asturiarra bat, valentziarra bigarrena, kanpotarrak dira biak.

Itsasoa gehien errepresentatu duen gure salbuespenak (José Salís-ek) maisu zituen aurreko bi horiek. Deigarriak dira Salísen txalupak: lur-zatiak dira itsas gainean. Sorollak bultzaturik, itsas paisaiari bere arreata eskaintzen hasi zenean, detailatan geratu zitzaigun Salís: olatuak, harraldea, olatu bizkarreko aparra...

Pablo Uranga arabarra behin eta berriro ibili zen euskal itsasertzean baina ez zuen ia itsasorik pintatu. Hondartza batzuk eta itsas guduren bateko eszenak, baina bi kasuetan itsasoa anekdota soil da. Euskal publiko guzti-guztiak ezagutzen duen Valentin Zubiaurreren *El marinero Shanti Andia* arrantzale estatiko bat da: eskua zerurantz jasorik, ekaitzari aurka egiteko aginduak ematen ari da. Itsasoa ez da agertu ere egiten ia. Kostunbrismoak horixe ekarri digu: marinelen aurpegiak (kresalak erretako larrumintza) itsas paisaiak baino garrantzi gehiago du.

Saihestu egin dugu itsasoa, eta, hartaz ihardun beste erremediorik ez genuen, *in absentia* adierazi dugu itsasoa. Aipatu beharra dago Arteta, bera baita itsasoari begiratzeko modu absentista horretaz gehien baliatu dena eta, agian, orain arte esan dugun guztia egokien laburbiltzen duena:

hacia el mar, tal como nos confiesa en el libro El laberinto de las sirenas: "En mis novelas hay realismo, pero también una pizca de romanticismo, más o menos como en todas las novelas". Baroja es una excepción en prácticamente toda la literatura peninsular. En lo que respecta a la literatura escrita en euskera, tampoco ha cantado y narrado esa visión afectuosa y enamorada del mar.

*- **Naturaleza fuente de riquezas:** la naturaleza rebosa riquezas (el mar se ha convertido en la despensa y en el tesoro del futuro) y, según la idea de Saint Simon, el administrador de esas riquezas es el hombre. Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarzabal, habitant de Cubiburu, libro publicado por Martin de Hoyarzabal en el año 1633, nos sugiere que estamos ante un romántico avant la lettre. Unos años más tarde, en 1677, Piarres Etxeberria traduce el libro al euskara con el título Itsas nabegationea. Pero en el libro hay de todo menos romanticismo: nos habla de cómo llegar vivos a Terranova. A las puertas del siglo XVII, en el año 1606, se organizó en San Sebastián un "Seminario de marinos". Institución precursora de la actual Escuela Náutica, en ella se fijaron como objetivo formar hombres diestros para la armada y el comercio marítimo: una vez más lo práctico se impone a lo aventurero.*

Las psicologías espaciales que siguen son las que, de una forma u otra, vivimos en la actualidad:

*- **Naturaleza, periferia de la ciudad:** la ciudad es el núcleo del desarrollo de la civilización, y la naturaleza, completamente manipulada y tecnificada, no hace más que cumplir la función de despensa.*

*- **Naturaleza, refugio y amparo:** la ciudad puede resultarnos pesada y alienante. El estresado ciudadano cree encontrar el equilibrio perdido huyendo a la Naturaleza.*

*- **Naturaleza, nuevo valor contra el artificio (contra la ciudad):** actualmente la naturaleza no es ni dios ni enemiga; no es inagotable; ni tan siquiera refugio, porque las latas de coca-cola y las antenas de televisión han llegado hasta los rincos-*

nes más recónditos. Siendo todo esto cierto, esta psicología espacial reivindica la Naturaleza como brújula del equilibrio perdido.

A la hora de definir la actitud de los vascos hacia el mar, es difícil dar la espalda a las simplificaciones, puesto que poseemos pocos datos. Por esto, antes de lanzar rotundas afirmaciones es preferible en cuestiones como las que nos ocupa abrir las puertas a las hipótesis y a la conjetura. Por consiguiente, podríamos resumir así el status quaestionis: si no nos han llegado muchos de los mitos del tiempo en el cual considerábamos al mar como un adversario, es porque hace tiempo que se afianzaron entre nosotros las creencias prácticas y utilitarias acerca del mar, como lo demuestran las experiencias de Terranova y la pesca de la ballena. Eso mismo nos sugiere, de forma bien sabia, un refrán vasco: "hasta sobre el mar camina el dinero".

Nuestra imaginaria

De nuevo tengo que referirme a Joanes Etxeberri de Ziburu, no para desviar el peligro de simplificaciones al amparo de sus frases, sino para abundar sobre la idea anterior: nuestros marineros "arriesgan la vida por la vida". Parece que las naves colgadas en las iglesias de las orillas del mar y también los amuletos y monedas que las mujeres de los pescadores guardaban en la quilla de sus nuevos barcos, confirman esa teoría de Etxeberri. ¿La opinión (el mar fuente de riquezas) que nos inspira todo esto, resume (y marca) la ideología vasca sobre el mar y el modo de representarlo? ¿No ha tenido el vasco necesidad de mitos para ahuyentar la amenaza del mar? ¿O, sin ir tan atrás en el tiempo, no ha sentido la romántica fascinación hacia el mar y la indómita necesidad de representarla?

En nuestra imaginaria oral el mar casi no tiene cabida. Hasta hemos interpretado de forma errónea nuestra canción marinera más conocida, y hemos creído que era la bruma la que llegaba has-

Despedida de las lanchas: olio-lan horren lehen planoan emakume batzuk daude txalupei agur esaten. Emazteen aurrez aurre, marinelak, arraunean hasteko prest. Untzietako belek, ordea, itsasoa estaltzen digute.

Pescadores: hiru marinel aurrera begira. Atzean, emakume bat, begi larriez, haur bat besoetan duela. Guztien begiradek eta zero beltz-beltzak adierazten dutenez, zerbait latza gertatzen ari da ikusten ez dugun itsasoan.

Náufragos: Marinel baten gorputz erkindua hondartzan etzanda. Beste marinel bat zutik, hotzez balego bezala. Itsasoa ez da marra bat besterik, konposizioari oreka emateko.

Amaitzeko

Euskaldunok ez ote dugu itsasoa ikusten? Ukatu egiten al dugu forma eginik gabeko giro eta eszena zategien errepresentazioa? Mikel Lasaren itsas bazterretako untzi herdoilduak al dira itsasoak iradoki dizkigun errepresentazio ia bakarrak?

Lehorrak segurantza dakar, eta oinak ondo finkatuta dauzkagu eguteraan: Goihetxeren fabulako artzainak naufragatu egin zuen artaldea saldu eta itsasuntzi bat erosi ondoren (itxasoaren dei engainagarriari ez zaio behar beharria ideki). Itsasoz abiatu garenean ere, etxetik etxera egin dugu, Elkanok bezala, gure bidaia zirkularra. Lehorreko mitologiak oratua, maskoiririk gabea ote dugu arima?

ta el espigón de Bayona, cuando la canción no nos habla de brumas, sino de una mar calma y tranquila. En las recopilaciones de Azcue, en el diccionario mitológico de Barandiarán, en la paremiología de Antonio Zabala apenas aparece el mar. Nuestra imaginería es totalmente de tierra firme, está perfumada con olor a trigo de la solana y tejida con lino. Nuestros escritores han encontrado toda su fuente de inspiración en tierra firme: las contadas excepciones de escritores vascos que han dado protagonismo al mar (la mayoría desde el costumbrismo) no han conseguido más que fortalecer la ley.

Si diéramos un repaso a la pintura, no haríamos más que confirmar lo que hemos dicho acerca de la literatura y abundar en lo que ya señaló el crítico Juan de la Encina: Regoyos y Sorolla han sido quienes con más acierto y frecuencia han pintado la luminosidad del golfo de Vizcaya. Asturiano el primero, valenciano el segundo, ninguno de ellos es vasco.

Nuestra excepción (José Salls) que más ha representado el mar, tuvo como maestros a esos dos pintores. Son llamativas las chalupas de Salls: son trozos de tierra sobre el mar. Empujado por Sorolla, empezó a prestar atención al paisaje marino, pero Salls se detuvo más en los detalles propios del mar, como las olas, el arrecife y la espuma, que en el propio mar.

El alavés Pablo Uranga recorrió una y otra vez las orillas del mar vasco, pero casi nunca pintó el mar. Varias playas y escenas de alguna batalla naval, pero en ambos casos el mar es sólo una anécdota. El marinero Shanti Andía de Valentín Zubiaurre, tan conocido por todo el público vasco, es un pescador estático: con la mano alzada al cielo, está dando órdenes para poder hacer frente a la tempestad. El mar prácticamente no aparece. El cuadro refleja algo habitual en el costumbrismo: el rostro del marinero (curtida piel quemada por el salitre) tiene más importancia que el paisaje marino.

Hemos menospreciado el mar, y cuando no ha habido otro remedio que hablar de él, lo hemos reflejado in absentia. Hay que mencionar a Arteta, porque ha sido quien más se ha valido de ese modo absentista de mirar al mar y, quizás, quien mejor resume todo lo dicho hasta ahora:

Despedida de las lanchas: en primer plano del óleo hay unas mujeres despidiéndose de las chalupas prestas a salir al mar. Frente a las mujeres, dispuestos para remar, los marineros. Sin embargo, las velas de los barcos nos impiden la visión del mar.


Pescadores: tres marineros miran al frente. Detrás, con un niño entre los brazos, una mujer con mirada desesperada. Los ojos de todos y el cielo negro amenazante confirman que algo grave está sucediendo en el mar, que tampoco en esta ocasión vemos.

Náufragos: tendido en la playa el cuerpo debilitado de un marinero. Otro marinero de pie, encogido por el frío. El mar es sólo una línea que da equilibrio a la composición.

Por último

¿Es que los vascos no hemos sabido ver el mar? ¿Es que nos negamos a la representación de ambientes y escenarios que no tengan forma definida? ¿Son las barcas oxidadas en la orilla de los mares de Mikel Lasa las únicas imágenes que nos ha inspirado el mar?

La tierra nos da seguridad y nos gusta sentir tierra firme bajo nuestros pies. El pastor de la fábula de Goihetxe, que naufragó después de haber vendido el rebaño y comprado un barco, se lamentaba: "no hay que atender la llamada embaucadora del mar". Siempre que hemos salido al mar, lo hemos hecho como Elcano: nuestro viaje iniciático ha consistido en salir de casa para volver a ella. ¿Es que nuestra alma, forjada en tierra firme, carece de mascarón?



El marino vasco Shanti Andía, el temerario, Ramon de Zubiaurre-ren olioa, 1924. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid.

El marino vasco Shanti Andía, el temerario, óleo de Ramón de Zubiaurre, 1924. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid.

Itsaso eta ibaiak Julio Caro Barojaren Idazlanetan

Antonio Carreira

Caro Barojak itsasoko eta ibaietako iharduekin zerikusia duten bizimoduak aztertu ditu Andaluziako zein Saharako itsasbazterrei eta Euskal Herriari buruz egin dituen historia eta etnografia lanetan. Historia ekonomikoaren eta honen gorabeherak aztertzen dira horietako batzuetan, iharduera horiei buruzko xehetasunak beste batzuetan, eta azkenik, aztergai horien zehar gaiak ukitzen dira gainerakoetan: kostaldean eginiko miaketak, miragarrizko uharteak edota itsasoko mitoak. Haren margolan askotan agertzen dira itsasoa, ibaiak, ninfak, itsasuntziak; baita Caro Baroja anaien *Navarra: las cuatro estaciones* eta *Guipúzcoa* etnografia filmeetan ere: Pirineoetako almadizainak lehenbizikoan, eta estropadak eta untzitegiak bigarreanean. Aspaldiko testu batean aipatu zuen Don Juliok bazuela “umetatik bidaiatzeko eta ezkutuko bazterrak miatzeko grina gordea” (*Estudios mogrebiés*, 84. or.). Hala, aiton-amonen aldeko osaba Antonio María eta Justo Goñi untzi kapitaineak XIX. mendearen erdialdean egin zituzten itsasaldiak oroitarazten ditu bere familiari buruzko memorien (*Los Baroja*, Madril: Taurus, 1972) hirugarren atalean. Itzean gordeta egon diren itsasaldi horien oroitzapenez baliatu zen Pío Baroja ere *Las inquietudes de Shanti Andía* eta *El mar* trilogiako eleberririk idazteko.

Hona hemen, beraz, kronologiaren arabera ordenaturik, Caro Barojatarrek itsas eta ibai inguruko gaiez idatzitakoa. Duela gutxi argitaratu genuen Caro Barojaren lanen gaikako sailkapena (*Cuadernos Hispanoamericanos*, 553-534. zkak., 1994, 9-31. orr.), eta gai horiez diharduten orrialdeen berri emanez osaturiko sailkapen horretatik hartua da liburu zerrenda hau:

1. “La creencia en hombres marinos”, in *Algunos mitos españoles* Madril: Editora Nacional, 1941. Bigarren argitalpena (Madril, 1944), 133-143. orr.

2. *Los vascos. Etnología*. Donostia: Biblioteca Vascongada de Amigos del País, 1949. Bigarren argitalpena, zuzendua; Madril: Minotauro, 1958. XII. atala: “El complejo náutico y pesquero” (215-227. orr.). XIV. atala: “Navegación, comercio, industrias” (247-260. orr.). Hirugarren argitalpena, Madril: Istmo, 1971.

3. “Las primeras exploraciones del África Occidental Española”. *África*, XI, 152-153. zk. (1954), 397-399. orr. in *Estudios mogrebiés* (Madril: CSIC, 1957), 81-89. orr.

4. “Un grumete en el Sáhara”. *África*, XIII, 174 zk. (1956ko ekaina), 276-8. orr. in *Estudios mogrebiés*, 87-99. orr.

5. “La tradición técnica del pueblo vasco, o una interpretación ecológica de su historia”. in *Vasconiana (De Historia y Etnología)*. Madril: Minotauro, 1958, 103-177. orr. Bigarren argitalpena, berrikusia: *Estudios vascos*, III. Donostia: Txertoa, 1974.

6. Hitzaurrea, Pío Barojari, *Las inquietudes de Shanti Andía* (Madril-Salamanca: Anaya, 1967), 7-26. orr. Geroago: Editorial Cátedra (Madril), colección Letras hispánicas, 73. zk.

7. “Vida de monte y vida de río”. In “Notas de Etnografía navarra”. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, XXVIII (1972), 3-38. orr. + 10 lamina eta mapa bat. Geroago, in *Estudios Vascos*, VII. *Baile, familia, trabajo*. Donostia: Txertoa, 1976.

8. “La vida del almadiero”. In *Etnografía histórica de Navarra*, III (Iruñea. Aranzadi, 1972), XLV. atala, § 4, 378-384. orr.

9. “Mariñeles y arrantzales: la sal del País Vasco”. *El Correo de Vizcaya*, I, 5 (1973).

10. *Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco. Estudios vascos*, VI (Donostia:

Mar y río en la obra de Julio Caro Baroja

Antonio Carreira

Caro Baroja ha prestado atención a modos de vida relacionados con actividades marítimas y fluviales en distintos trabajos etnográficos e históricos sobre el País Vasco-Navarro y zonas litorales andaluzas o saharianas. Unos trazan líneas en la historia económica y sus avatares; otros estudian aspectos concretos y puntuales de aquellas actividades; los hay, por último, que tocan estos asuntos de manera más tangencial: así los dedicados a exploraciones costeras, islas fantásticas o mitos relacionados con el mar. En su obra pictórica son presencia frecuente el mar, los ríos, las ninfas, las embarcaciones. Y lo mismo en las películas etnográficas realizadas por los hermanos Caro Baroja: los almadieros del Pirineo, en Navarra: las cuatro estaciones; las regatas y la carpintería de ribera, en Gipuzkoa. Don Julio, que habló en un viejo texto de su "larvada vocación infantil de viajero y explorador de países recónditos" (Estudios mogrebies, p.84), en el capítulo III de sus memorias familiares (Los Baroja, Madrid: Taurus, 1972) evoca las navegaciones de sus dos tíos abuelos, Antonio María y Justo Goñi, capitanes de la marina mercante a mediados del siglo XIX, y cuyos recuerdos, custodiados en "Itzea", sirvieron de inspiración a Pío Baroja para Las inquietudes de Shanti Andia y las novelas de la trilogía El mar.

Enumeramos aquí, por orden cronológico, la producción carobarojiana relacionada con los ámbitos marítimo y fluvial, tomándola de la clasificación temática de su obra que hemos publicado

recientemente (Cuadernos Hispanoamericanos, núms. 533-534, 1994, pp. 9-31), y completándola con referencias a otras páginas sobre el asunto.

1. "La creencia en hombres marinos". Incluido en Algunos mitos españoles. Madrid: Editora Nacional, 1941. Segunda edición (Madrid, 1944), pp. 133-143.

2. Los vascos. Etnología. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de Amigos del País, 1949. 2ª ed. corregida. Madrid: Minotauro, 1958. Cap. XII: "El complejo náutico y pesquero" (pp. 215-227). Cap. XIV: "Navegación, comercio, industrias" (pp. 247-260). 3ª ed. Madrid: Istmo, 1971.

3. "Las primeras exploraciones del Africa Occidental Española". Africa, XI, núms. 152-3 (1954), pp. 397-9. Incluido en Estudios mogrebies (Madrid: CSIC, 1957), pp. 81-89.

4. "Un grumete en el Sahara". Africa, XIII, nº 174 (junio 1956), pp. 276-8. Incluido en Estudios mogrebies, pp. 87-99.

5. "La tradición técnica del pueblo vasco, o una interpretación ecológica de su historia". Incluido en Vasconiana (De Historia y Etnología). Madrid: Minotauro, 1958, pp. 103-177. 2ª ed. revisada: Estudios vascos, III. San Sebastián: Txertoa, 1974.

6. Prólogo a Pío Baroja, Las inquietudes de Shanti Andia (Madrid-Salamanca: Anaya, 1967), pp. 7-26. Luego en Editorial Cátedra (Madrid), colección Letras hispánicas, nº 73.

7. "Vida de monte y vida de río". Incluido en "Notas de Etnografía navarra". Revista de Dialectología y Tradiciones Populares, XXVIII (1972),



Sorguiñ aizia-ren xehetasuna. Julio Caro Barojaren marrazkia, 1990. I. Cancho eta F.J. de los Mozos-en jabetzakoa (Madrid).

Detalle de Sorguiñ aizia. Dibujo de Julio Caro Baroja, 1990. Propiedad I. Cancho y F. J. de los Mozos (Madrid).



Julio Caro Madrileko etxean, Carmen ilobarekin. *Blanco y Negro*-ko argazkia, 1967. Atzekaldean Ricardo Barojaren kuadroak ikusten dira eta bereziki -tximini gainean- bere oliorik ezagunenetakoa bat: *Pintando el casco*.

Julio Caro en su casa de Madrid, con su sobrina Carmen. Foto de Blanco y Negro, 1967. Entre los cuadros de Ricardo Baroja que se aprecian al fondo, destaca -sobre la chimenea- uno de sus óleos más conocidos: Pintando el casco.

Txertoa, 1974), IV. atala: "En torno a la industria naval", 73-90. orr.

11. "El mar en situaciones tópicas". In *De la superstición al ateísmo. (Meditaciones antropológicas)*. Madril: Taurus, 1974, 59-100. orr.

12. Hitzaurrea, Alfonso Chapa Ozámiz-i, *Primer catálogo del modelismo naval en Vizcaya* (Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1974), 17-18. orr.

13. "Arquitectura naval. Hirigintza-Construcción de la ciudad" [J.C.Bk gidaturiko mahai ingurua]. *III Semana Internacional de Antropología Vasca*, II, IV. liburukia (Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1976), 327-351. orr.

14. "Los vascos y el mar". In *Itxaskaria*. Bilbo: Petronor, 1978, 73-350. orr. Bigarren irarraldia, in *Estudios vascos*, X. *Los vascos y el mar* (Donostia: Txertoa, 1981) eta, lehen atala, in *Historia general del País Vasco*, J.C.Bren zuzendaritzapean (Donostia: La Gran enciclopedia Vasca-Luis Haramburu, 1981 eta hurrengoak), V. liburukia. Liburuaren hiru ataletan zehar gai hauek aztertzen ditu: itsas ezagungabearen miaketa, merkataria, itsas-lapurrak, Baiona hiriko merkataritza eta arrantza, Gipuzkoako portuak, XIII. mendeko guduak, bale arrantza, XIV. mendeko itsas guduak, euskarazko itsas hiztegia, teknika tradizioak, etab.

15. "Peje Nicolao, pesce Cola". *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, XXXIX (1984), 1-11. orr. In *Fragmentos italianos* (Madril: Istmo, 1992), 125-141. orr.

16. [Iruzkina, honako obra hauei: *Las inquietudes de Shanti Andía, El laberinto de las sirenas, Los pilotos de altura* eta *La estrella del capitán Chimista*]. In *Guía de Pío Baroja. El mundo barojiano*, Pío Caro Barojaren argitalpena (Madril: Caro Raggio-Cátedra, 1987), 97-101. orr.

17. Hitzaurrea, Autore Ezberdin-ei, *Plentzia. Azterlanak-Estudios*, II (Plentziako Udala, 1987), 11-12. orr.

18. "La isla de Jauja y otras tierras felices". In *Jardín de flores raras* (Bartzelona: Círculo de lectores, 1993), 51-63. orr. "Geografía imaginaria: moral y religiosa". II. "Las islas fantásticas", *ibid.*, 92-97. orr.

19. Hitzaurrea, Fede Merino-ri, *Arrantzale* (Areatza, 1993).

20. [Conil-eko (Cádiz) eta Huelvako arrantzari eta itsasketari buruzko zenbait orrialde]. *De Etnología Andaluza*, (Malagako Diputazioa, 1993), 97-107. eta 121-124. orr. Argitalpena eta hitzaurrea: A. Carreira. Marrazkiak: J.C.B.

pp. 3-38 + 10 láminas y 1 mapa. También en Estudios vascos, VII. Baile, familia, trabajo. San Sebastián: Txertoa, 1976.

8. "La vida del almadiero". En Etnografía histórica de Navarra, III (Pamplona: Aranzadi, 1972), cap. XLV, § 4, pp. 378-384.

9. "Mariñeles y arrantzales: la sal del País Vasco". El Correo de Vizcaya, I, 5 (1973).

10. Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco. Estudios vascos, VI (San Sebastián: Txertoa, 1974), cap. IV: "En torno a la industria naval", pp. 73-90.

11. "El mar en situaciones tópicas". Incluido en el libro De la superstición al ateísmo (Meditaciones antropológicas). Madrid: Taurus, 1974, pp. 59-100.

12. Prólogo a Alfonso Chapa Ozámiz, Primer catálogo del modelismo naval en Vizcaya (Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1974), pp. 17-18.

13. "Arquitectura naval. Hirigintza-construcción de la ciudad" [Mesa redonda dirigida por J.C.B.]. III Semana Internacional de Antropología Vasca, tomo II, vol. IV (Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1976), pp. 327-351.

14. "Los vascos y el mar". En Itxaskaria. Bilbao: Petronor, 1978, pp. 73-350. Reimpreso en Estudios vascos, X. Los vascos y el mar (San Sebastián: Txertoa, 1981), y, la 1ª parte, en la Historia general del País Vasco, dirigida por J.C.B. (San Sebastián: La Gran Enciclopedia Vasca-Luis Haramburu, 1981 y ss.), vol. V. Consta de tres capítulos que versan

sobre la exploración de un mar desconocido, mercados y piratas, Bayona, ciudad comercial y pesquera, puertos guipuzcoanos, acciones bélicas en el s. XIII, pesca y caza de la ballena, guerras navales del s. XIV, léxico náutico vasco, tradición técnica, etc.

15. "Peje Nicolao, pesce Cola". Revista de Dialectología y Tradiciones Populares, XXXIX (1984), pp. 1-11. Incluido en Fragmentos italianos (Madrid: Istmo, 1992), pp. 125-141.


16. [Comentarios a Las inquietudes de Shanti Andía, El laberinto de las sirenas, Los pilotos de altura y La estrella del capitán Chimista]. En Guía de Pío Baroja. El mundo barojiano, ed. de Pío Caro Baroja (Madrid: Caro Raggio-Cátedra, 1987), pp. 97-101.

17. Prólogo a VV.AA., Plentzia. Azterlanak-Estudios, II (Ayuntamiento de Plentzia, 1987), pp. 11-12.

18. "La isla de Jauja y otras tierras felices". En Jardín de flores raras (Barcelona: Círculo de lectores, 1993), pp. 51-63. "Geografía imaginaria: moral y religiosa". II. "Las islas fantásticas", ibid., pp. 92-97.

19. Prólogo a Fede Merino, Arrantzale (Las Arenas, 1993).

20. [Páginas sobre pesca y navegación en Conil (Cádiz) y Huelva]. De Etnología Andaluza, ed. y prólogo de A. Carreira (Málaga: Diputación provincial, 1993), pp. 97-107 y 121-124. con dibujos de J.C.B.



II. PÍO BAROJA

*"¡Oh, gallardas arboladuras! ¡Velas blancas, muy blancas!
¡Fragatas airosas, con su proa levantada y su mascarón en el
tajamar! ¡Redondas urcas, veleros berguntines! ¡Qué pena me
da el pensar que vais a desaparecer, que ya no os volveré a
ver más!"*

Pío Baroja, Las inquietudes de Shanti Andía, 1911.

*"Por la mañana, cuando el mar de perla, aun bajo la estrella
matutina, se disuelve en la gasa de la bruma; al mediodía, al
verlo inundado de luz como un metal fundido; al anocheecer
cuando el sol huide sus llamas en las aguas y el cielo se llena
de dragones de fuego, y Hespero brilla dulcemente; al
aparecer las velas de los barcos, alas mágicas y alucinadas;
al oír de noche el diálogo de la ola y del viento, nocturno
melancólico, de dos grandezas; al respirar las auras salinas,
sentimos nuestra libertad ante las fuerzas de la naturaleza y
balbuceamos con reconocimiento mirando la superficie de las
olas turbulentas:*

¡El mar! ¡El mar! ¡Thalassa! ¡Thalassa!"

Pío Baroja, El laberinto de las sirenas, 1923.

*"Los marinos de estos puertecitos fueron gente alegre, sin
miedo y sin preocupaciones. Hacían la pesca, el comercio de
altura y en otro tiempo algo de piratería. Iban a la pesca de la
ballena, y a la del bucalao. Ahora hacen expediciones más
modestas.*

*Conocieron las tempestades y los escollos, los vértigos, las
angustias y el terror, el Kraken, el Maelstroem y la isla de
Sutanás. Nada de esto les sobrecogió. Vieron o creyeron ver
sirenas y serpientes marinas, arpias y pulpos gigantes, islas
de fuego con volcanes misteriosos. Desembarcaron en países
extraños, poblados por enanos o por gigantes, por negros o
por amarillos."*

Pío Baroja, El País Vasco, 1953.



Ricardo Barojak Pío Barojari egindako erretratu, 1940. "Itzea" bilduma.

Retrato de Pío Baroja por Ricardo Baroja, hacia 1940. Colección "Itzea".



“Las inquietudes de Shanti Andía”-ri sarrera, (1967ko edizioa)

Julio Caro Baroja

Baroja eta itsaso nobelak

1911n, artean berrogei urteak bete gabeak zituela, *El árbol de la ciencia* eta, lehenxeago, *Las inquietudes de Shanti Andía* argitaratu zituen Pío Barojak: esan daiteke bi lan horiek idazlearen sormen aldi nagusiari dagozkiola. Orduan ere trilogiatan banatzen zituen lanak (*La lucha por la vida* delakoak eman zuen jarraibidea). Hala, *Las inquietudes de Shanti Andía* izenburuaz argitaraturiko eleberririk badu izenburu orokor bat: *El mar*. Urteak igaro eta gero ziklo berari dagokion *El laberinto de las sirenas* (1923) eleberria idatzi zuen, eta urte batzuk geroago, zikloari amaiera eman ziona idatzi zuen, aurrekoaren jarraipena gisa; asmoz liburu batean argitaratzekoa zen azken eleberririk hori bi liburutan kaleratu zen azkenik, izenburu desberdinekin: *Los pilotos de altura* (1929) eta *La estrella del capitán Chimista* (1930). Bestalde, itsasgiroa, *Vidas sombrías* (1900) lehen ipuin bilduman eta beste zenbait kontakizunetan (*Memorias de un hombre de acción*, etab.) ere agertzen da. Beraz, eta gaztelaniaz idazten zuten beste idazle askorentzat ez bezala, Pío Barojarentzat inspirazio iturri nagusia izan zen itsasoa.

Beharbada, XIX. mendeko *folletín* idazleak izan ziren –José Pérez Escrich eta beste idazle ilunen bat– gai horrekiko axolagabetasuna apurtzen saiatu zirenak: baina jende gutxi irakurri zuen, adibidez, *El capitán Cadavedo* itsasgiroko eleberria, eta ez da batere txarra, bide batez esanda. Baina Pío Barojak bizitzari berari dagozkion arrazoi ugari zituen itsasoaz liluraturik egoteko; bada ere arrazoi ia metafisikoren bat ere tartean, baina utz dezagun alde batera, ez baita hau horrelakoak aztertzeke lekurik aproposena.

Familiarteko itsas giroa

Has gaitezen Píoren jaiotzari buruzko zertzeladaren bat edo beste emanez: Donostian jaio zen, 1872. urteko abenduaren 28an, Okendo kalean, Urumea ibaiak ura Kantauri itsasora isurtzen duen lekutik gertu. Bigarrenik, esan dezagun, amaren aldeko ahaideei dagokionez, itsasgizonen ondorengoa zela (zalantzarik gabe honek garrantzi handia izan zuen eleberrigilearengan). Halaxe da, Pío Baroja y Nessiri ez zitzaion Barojatarren adarretik sortu itsasoarekiko kezka –tipografia lanean, sendagintzan eta beste iharduera burges egonkorretan aritzen baitziren hauek–, ez eta Nessitarren aldetik ere –Alpeetako italiarrak jatorriz hauek: lonbardiarrak artista eta litografigile, zilaragin, bitxigile–, Goñitarrengandik baizik, hau da, amaren beraren amaren aldeko senideengandik. Goñitarrak, jatorriz nafarrak baziren ere, Donostian bizi ziren XIX. mendearen hasieraz gero; horietako anaia batzuk merkataritza untzietan ibili ziren, kapitain: Cadiz eta Filipinak arteko itsasbidea egiten zuten, Esperantza Oneko lurmuturra inguratuz. Kapitain horiek lana gogotik egin behar izan zuten 1840-1860 bitarteko urteetan.

Itsas barruko marinelen familiek halako antolamendu *matrilineal*, ia “*matriarkal*” bat ageri dute askotan. Izan ere, gizonak itsasora irteten dira, eta emakumeak etxean gelditzen dira hurrekin, eta etxeko lana egiteaz gainera beste ardua asko hartu behar izaten dute beren bizkar. Goñitarrek ere eredu horri jarraitu zioten. Emakumeek familiarteko ohiturak –itsas ohiturak tartean– erakusten zizkieten seme-alabei, ilobei eta bilobei. Pío Barojaren amona, Gertrudis Goñi y Alzate andrea, itsasgizon haien arreba zen; gazterik gelditu zen alargun eta babesik gabe. Beretarrengan aurkitu zuen behar zuen babes hori. Eta aipatutako ema-



Pío Barojaren ex libris. Ricardo Barojaren akuaforte, 1902 inguruan.

Ex libris de Pío Baroja. Aguafuerte de Ricardo Baroja, hacia 1902.

Introducción a “Las inquietudes de Shanti Andía” (ed. 1967)

Julio Caro Baroja

Baroja y sus novelas del mar

En 1911, cuando Pío Baroja no había cumplido aún los cuarenta años, publicó *El árbol de la ciencia* y antes *Las inquietudes de Shanti Andía*: puede decirse que estas dos obras corresponden a la fase más fuerte de su capacidad inventiva. Ya entonces seguía la práctica de agrupar sus novelas por trilogías (la de *La lucha por la vida* dio la pauta). Así, la novela titulada *Las inquietudes de Shanti Andía* lleva además un título general: el de *El Mar*. Muchos años después escribió *El laberinto de las sirenas* (1923) dentro del mismo ciclo, y aún más tarde lo concluyó con un relato seguido que, en principio, debía formar sólo un volumen y cerrarlo, pero que se publicó en dos y con títulos distintos: *Los pilotos de altura* (1929) y *La estrella del capitán Chimista* (1930). El tema marítimo se halla tocado o tratado, por otra parte, en la primera colección de cuentos de *Vidas sombrías* (1900) e incluso en distintas narraciones posteriores (de las *Memorias de un hombre de acción*, etc.). El mar fue, pues, para Pío Baroja, fuente de inspiración primordial, cosa no muy común entre los escritores de lengua española o castellana, como en varias ocasiones se ha hecho constar.

Acaso hayan sido algunos folletinistas decimonónicos, como don José Pérez Escrich y algún autor oscuro, los que intentaron romper esta línea de indiferencia: con pocos lectores contó, por ejemplo, una novela marítima llamada *El capitán Cadavedo*, que no está mal. Pero Pío Baroja tenía muchas razones vitales para sentirse atraído por el mar, dejando aparte alguna, casi metafísica, que no viene al caso analizar ahora.

El ambiente marítimo familiar

Pongamos, en primer término, las circunstancias de su nacimiento, en San Sebastián, el 28 de diciembre de 1872, en la calle de Oquendo, cerca de donde el Urumea lanza sus aguas al Cantábrico. Pongamos en segundo lugar el hecho (sin duda más importante para la formación del novelista) de contar con una rama de parientes marinos por el lado materno. En efecto, a Pío Baroja y Nessi no le venía la inquietud marinera ni por los Baroja, gente dada a la tipografía, a la farmacia y a otras actividades burguesas más o menos sedentarias, ni del costado de los Nessi, italianos de la zona alpina, lombardos artistas y artifices, litógrafos, plateros, joyeros, sino por los Goñi, es decir, por los parientes maternos de su propia madre. Los Goñi, aunque fueran de origen navarro, estaban asentados en San Sebastián allá a comienzos del siglo XIX y hubo varios hermanos de este apellido, capitanes de barcos mercantes, que hicieron la navegación de Cádiz a Filipinas por el cabo de Buena Esperanza. Estos capitanes trabajaron firme allá entre 1840 y 1860.

Las familias de los marinos de altura presentan, con frecuencia, una organización que podríamos definir como matrilineal, o casi “matriarcal”. En efecto, los hombres se van por los mares, las mujeres quedan en tierra con los chicos y han de dirigir algo más que los asuntos domésticos. Los Goñi siguieron esta pauta. Las mujeres comunicaban a sus hijos, a sus sobrinos, a sus nietos, un cúmulo de tradiciones familiares, y entre ellas, las tradiciones náuticas. La abuela de Pío Baroja, doña Gertrudis Goñi y Alzate, fue hermana de aquellos marinos y quedó viuda y desvalida muy pronto. Se apoyó en los suyos. Y la referida tradición femenina la compartió con otra hermana sol-

kumeen ohiturak bere ahizpa ezkongabearekin banatu zituen, Cesárea Goñirekin hain zuzen ere; Gertrudisek baino izaera gogorragoa omen zuen emakume honek, eta nonbait, hura baino azkarragoa zen. 1913an hil zen Cesárea hau, Donostian bertan, laurogeita hamar urteak ondo beteak zituela.

Las inquietudes de Shanti Andía eleberraren aurreneko kapituluetakoa osagaiak ulertzeko komenigarria da familiaren aurrekari hauek kontuan hartzea. Pío Barojak gezurrezko pertsonen bidez benetan bizi izan zirenak gorde ditu lan horretan. Goñitarrak, zinez jende zaildua, (muturreko karlistak zein liberalak tartean) fikziozko Agirretarrak dira, “mutatis mutandis”. Izeba Cesárea eleberriko doña Celestinaren eta izeba Ursularen artean banatzen da. Benetakoa emakumearen izaera harroa areagotu egiten da doña Celestina de Aguirrerengan. Cesárea andrearen erromantizismoa eta eleberrizaleasuna, bestalde, finago bihurtzen da izeba Ursularen irudi enfatikoa itzaltsuarengan.

Gaur egun, Pío Barojaren Berako etxean, “Itzea”-n, bi egongela daude, berdea bata, horia bestea, eta baita beste zenbait logela ere, eleberrigileak Shanti Andíaren amonaren etxean, “Agirretxe”-ko egongelan deskribatzen dituen gauzatariko asko gordetzen dituztenak; izeba Cesarearengandik eta amonarengandik jaso zituen Píok gauza horiek. “Itzea”-ko etxean daude, adibidez, ekaitzaren erdian, ahaideren baten gidaritzapean, eta olatuekin borrokan ari den itsasuntzia irudikatzen duen koadroa, *Eurotas* eta *Clorinda* itsasuntzien arteko itsas guduari buruzko grabatuak, esker erakutsi baten ondoren andaluziar moja batzuek Goñitar bati emandako eskapulario handiak koadro batean sarturik, Goñitar kapitain haietako bi –beltzaran, planta oneko eta haserre itxuran– agertzen dituzten dagerrotipo zurbilak, Txinako te kutxak eta Filipinetatik ekarritako txinatar bikotea (Shantiri horrenbeste gustatzen zitzaiona). Bertan aurki daitezke ere itsasorrazaren bat, katalajoren bat, eta Antonio Maria Goñik bere bidaietara era-

maten zuen idatz mahaia, bere sekretu eta guzti. Objektuen mundu horrek garrantzi handia izan zuen idazlearentzat, oso maite zituen.

Baina eleberrizale honen hirugarren kapituluak, “Tengo que hablar de mí mismo” izenburukoan, eta autobiografiatzen edo, gutxienez, familiaren historiatzat hartzen den horretan, bada zer aipatua ere: Agirretarren eta Andiatarren arteko oposizioa, alegia; odol beroak, harroak eta urduriak lehenengoak; lasaiak, atseginak eta buru argiak, berriz, bigarrenak... eta suitzar kinkailariaren odol tanta ere badutenak, gainera. Pío Barojak, tirabira hau agertzean, izeba Cesárea eta amaren aldeko amona Gertrudis-en eta amaren aldeko aitonaren arreba Juana Nessi y Arrolaren arteko gazte denborako lehia du gogoan. Gaztetan oso emakume ederra izana zen Juana hau (Gisbert-ek 1855ean pintatutako erretratuan –Beran dago hau eretikus daitekeen bezala), arbasoen zorrotzasunik eta handikeriarik gabea, lonbardiar odola zeraman zainetan, eta zahartzaroan, itxusi, atsegin, burlati eta zertxobait berekoi bilakatu zen. Hona hemen nola lortu zituen idazleak, familiarterako bizitzatik alegia, eleberrizalearen kontakizuna girotzeko eta protagonista nagusiaren nortasuna tankeatzeko lehen osagaiak: Shanti Andía, itsas barruko marinel, Goñitar itsasgizonak jaio ziren urte inguruan sortua, 1820 aldera.

Eleberrizaleak, beraz, idazlearen aitona-amonak gazte zireneko denbora du gertalekutzat. Gazterik hil ziren, baina XIX. mendearen bukaera arte eta, Cesárea Goñi andrea, are XX. mendearen hasiera arte ere bizi izan ziren. Belaunaldi hartako gizon zahar asko ezagutu zituen Pío Barojak Zestoan mediku zebilela eta, mendearen bukaeran, Donostian egonaldiak egiten zituenean. *Las Inquietudes...* idatzi eta gero, gizon horietako baten berri eman zuen, Iriberriz kapitainarena, hain zuzen ere. Iriberriz kontakizun zituena istorioak eta Donostiako kaian hari buruz esaten zirenak asko txundituko zuten Pío. Baina, jakina, eleberrizale batek ez ditu senitarterako esperientzietatik eta inoren oroitzapenetatik ateratzen inspirazio osagai

terona, de mucho más carácter que ella al parecer, más resabida también, doña Cesárea Goñi, que murió en 1913, con noventa y tantos años y en San Sebastián mismo.

Para explicarse algunos de los elementos que integran los primeros capítulos de *Las inquietudes* de Shanti Andía hay que tener en cuenta estos antecedentes familiares. Pío Baroja ha escrito allí con un poco de clave. Los Goñi, gente dura (entre la que no faltaron carlistas y liberales extremados), son "mutatis mutandis", los Aguirre de la ficción. La tía Cesárea se desdobra en doña Celestina y en la tía Úrsula. El carácter un poco soberbio de la mujer se exagera en doña Celestina de Aguirre. El romanticismo y la novelaría de doña Cesárea misma se estilizan, por otro lado, en la figura enfática y solemne de la tía Úrsula.

Hoy día, en la casa de Pío Baroja, de Vera de Bidasoa, en "Itzea", existen dos salas, una verde y otra amarilla, amén de algunos dormitorios, en que se hallan bastantes de los objetos que el novelista describe como existentes en la casa de la abuela de Shanti Andía, en la sala de "Aguirreche", heredados de su tía Cesárea y de su abuela. En "Itzea" están, en efecto, el cuadro que representa a un barco luchando con las olas, en medio del temporal, capitaneado por un pariente, los grabados que reproducen la batalla naval entre el "Eurotas" y la "Clorinda", los escapularios grandes enmarcados y dados por unas monjas andaluzas a uno de los Goñi después de una votiva acción de gracias, los daguerrotipos pálidos que representan a dos de aquellos capitanes, morenos, bien plantados y con aire de malas pulgas, las cajas de té de China y la pareja de chinitos (que tanto admiraban a Shanti) traída de Filipinas. También alguna brújula, algún catalejo y la caja-escritorio, con su secreto correspondiente, que llevaba Antonio María Goñi en sus viajes. Este mundo de los objetos siempre fue muy importante para el escritor, muy querido por él.

Pero aún hay algo más en el capítulo III de esta novela que se titula "Tengo que hablar de mí mismo", y que debe considerarse como escrito con clave autobiográfica o por lo menos familiar, a saber: la oposición de los Aguirre, violentos, orgullosos, inquietos, y los Andía, tranquilos, plácidos, inteligentes... y con su gota de sangre de quincallero suizo, Pío Baroja piensa aquí un poco en la rivalidad juvenil, que llegó a conocer por más que referencias, entre su tía doña Cesárea y su abuela materna doña Gertrudis con la hermana de su abuelo, también materno, Juana Nessi y Arrola, mujer muy hermosa en su juventud (según se puede comprobar por un retrato pintado por Gisbert en 1855, que también está en Vera), sin rigideces ni orgullos ancestrales, en la que bullía la sangre lombarda y que terminó siendo una vieja fea, simpática, burlesca y un tanto egoísta. He aquí cómo de la vida familiar sacó el autor unos primeros elementos para situar su acción, para perfilar la personalidad de Shanti Andía: un marino de altura cuyo nacimiento puede colocarse en la fecha en que nacieron los Goñi marinos, es decir, allá hacia 1820.

Se centra, pues, la novela en la época de la juventud de los abuelos del novelista, que murieron pronto, pero que pudieron vivir hasta fines del siglo XIX y aún a comienzos del XX, como llegó a vivir doña Cesárea Goñi. Bastantes hombres viejos de esta generación conoció Pío Baroja cuando estaba de médico en Cestona y cuando, a fines de siglo también, pasaba temporadas en San Sebastián. De uno de ellos, el capitán Iriberry, hizo una semblanza después de haber escrito *Las inquietudes*... Las historias que contaba Iriberry y las que sobre él corrían en el muelle donostiarra debieron impresionarle mucho. Pero claro es que un novelista no saca todos los elementos de inspiración de experiencias familiares y de recuerdos personales. Siempre existen en él otros móviles y otros estímulos. ¡Pobre de él y de su oficio si no es más que testigo de la propia vida familiar! Entonces es el autor de una sola novela.



Julio Caro Itzeako "gela berdean".
Círculo de Lectores-en argazkia, 1987.
Julio Caro en la "sala verde" de Itzea.
Foto Círculo de Lectores, hacia 1987.

guztiak. Beti da harengan bestelako arrazoi eta eragingarririk. Errukarria familiaren bizitzaren lekuko besterik ez den idazlea, errukarria bera eta bere lana! Eleberri bakar baten idazlea izango litzateke hura.

Eraginak

Pío Baroja –Dario eta Ricardo anaia zaharragoak bezala– abenturazko eleberrien irakurle amorratua izan zen haurtzaroan eta gaztaroan, Iruñean, 1884. urte inguruan, eta geroago, Madrilen bizi izan zenean. Garai hartan, Bartzelonako eta Madrilgo hainbat argitaletxek frantses eta ingeles liburuen itzulpenak argitaratzen zituzten, zurean egindako grabatu orijinalekin, ezin egokiagoak haurren irudimena pizteko.

Irakurri zituzten eleberrietako asko “itsas abenturak” jeneroan sar genitzakeen horietakoak ziren. Gaspar y Roig-ek, Madrilen, argitalpen datarik gabe kaleratutako bilduma batek, adibidez, Marryat kapitainaren (1792-1848) eleberri nagusiak biltzen zituen. Ingeles itsasgizon atsegin honen lanak asko irakurri ziren Espainian, eta eragin handia izan zuten, adibidez, lehen “Episodios nacionales” haien garaiko Galdós-engan: *Trafalgar* delakoan, besteak beste. Pío Barojak estimu handitan zeukan, baita bizitzaren azken urteetan ere, *Peter Simple* delako haren egilea. Hala ere, garai berean irakurritako beste batzuk (Mayne-Reid eta Gustave Aimard, esate baterako) ez ditu hainbeste ederresten. Julio Verne-ren eleberriei, berriz, ez zien beti zaletasun bera erakutsi, baina aintzat hartzeko modukoa beti ere. Pío Barojak eleberri haien zientziatzko alderdiak bereztatzen axola gutxi zuela onartu zuen, “orri pasa” egiten zuela beti, eta bestalde, eleberri haietako irudi batzuk testua bera baino ziragarriagoak zitzaizkio- la esaten zuen. Férat-ek egindako haiek batez ere. Dirudenez, anaien haurtzaroko liburutegi txikian, bidaia eta etxe aldeketen ondorioz behin eta berriro egina eta desegina izan zen liburutegi

haren apaletan, *Robinson* delakoa (barkatu, bi *Robinson* haiek, “suintzarra” ere kontuan hartu behar baita), E. Sue-ren itsas eleberri batzuk eta zenbait bidai liburu klasikoren bildumak ere egon ziren. Askoz geroago irakurri zituen Stevenson-en *Altxor uhartea*. Are geroago Conrad-en bat edo beste, eta guztiz ezinezkoa da, beraz, idazle honek inolako eraginik izatea *Las aventuras de Shanti Andía* eleberrian. Conrad-ek izan ez zuen bezala, berandu ezagutu eta, alde batera edo bestera, itsasoaz diharduten –*haurren itsasoaz*, esan behar genuke– beste ingeles batzuen (R. M. Ballantyne, W. H. G. Kingston...) eleberriek ere ez zuten batere eraginik izan Pío-engan. Hona hemen, bada, *Las inquietudes...* eleberria ulertzeko bi abiapuntu nagusiak: familiari buruzko oroitzapenak eta haurtzaroan zein gaztaroan irakurritako liburuak. Idazlea heldutasunera iristen denean, lirika eta poesia gai bihurtzen da itsasoa harentzat. Zestoan mediku zegoela, Pío Barojak bere euskalduntasuna aurkitu zuen; aurkikuntza hori herriko bizi giro batekiko harremanaren ondorio da, ez giza herremanen ondorio. Herri horretako mendi, soro, baso, hondartza eta itsasoak erakartzen dute. Baita herritar xumeren batek ere. Hala ere, bertako beste pertsona batzuek eta loratzen ari diren ideia batzuek atzera eragiten diote, haserre bizian jartzen dute.

Herriari dion maitasunaren adierazpen liriko hori agerian jarria zuen ordurako *Vidas sombrías*-en. Liburu honetan argi eta garbi ikusten da idazlea gustorago sentitzen dela sorterrian lur barruko mesetan baino. Bere bizitzan zehar beti izan zen hala: gustorago alderdi fisikoari dagokionez, noski. Pío Barojaren *Las inquietudes de Shanti Andía* eta 1909. urtean argitaraturiko *Zalacain el aventurero* eleberriak, idazleak Beran egonaldi luzeak egitea erabaki (1912) baino lehenago idatzitako bi euskal eleberriak dira, eta han bizitzeko nahi hori agertzen dutenak, bide batez esanda. Garai hartan, Pío Barojak, bere eleberriko heroia, Shanti Andía bezala, idazten jartzen denean, erretiratua ikusten du jada bere burua, goizegi erretiratua.

Posibles influencias

Pío Baroja fue durante su niñez y adolescencia y con sus hermanos mayores, Darío y Ricardo, gran lector de novelas de aventuras allá en Pamplona, hacia 1884, y después en Madrid.

Por entonces florecían varias editoriales barcelonesas y madrileñas que habían publicado muchas traducciones de libros franceses e ingleses, propios para excitar la imaginación infantil, con sus grabados originales en madera.

Entre ellos, bastantes novelas de las que podríamos incluir dentro del género de "aventuras marítimas". Por ejemplo, un volumen publicado en Madrid por Gaspar y Roig, sin fecha, contenía las principales novelas del capitán Marryat (1792-1848). Este simpático marino inglés fue muy leído en España e influyó de modo considerable en el Galdós de los primeros "Episodios nacionales", como Trafalgar. Pío Baroja tuvo estimación, incluso al final de su vida, por el autor del Peter Simple. En cambio, no parece haber insistido en la lectura de otros autores que leyó a la par, como el capitán Mayne-Reid o Gustave Aimard. Con respecto a las novelas de Julio Verne, la afición parece haber sido desigual y significativa. En efecto, Pío Baroja reconoció siempre que la parte científica de aquellas novelas no le había interesado, que la "saltaba" de modo sistemático, y, por otro lado, decía que en algunas de tales novelas las ilustraciones le habían hecho más efecto que el texto. Sobre todo las ilustradas por Férat.

El Robinsón (o mejor dicho, los Robinsones, pues hay que contar con el "suizo"), algunas novelas marítimas de E. Sue y unas colecciones de relatos de viajes clásicos parecen haber existido también en la pequeña biblioteca fraternal de la niñez, hecha y deshecha a vuelta de viajes y mudanzas. Sólo bastante después leyó el novelista obras como La isla del tesoro, de Stevenson, mucho después aún algo de Conrad, de suerte que este autor no ha podido influir para nada en la composición de Las aventuras de Shanti Andía. Tampoco

otros novelistas de lengua inglesa, que conoció igualmente tarde y que, de una manera u otra, tocan el tema del mar (R.M. Ballantyne, W.H.G. Kingston...), del mar infantil podríamos añadir. He aquí, pues, los dos puntos de arranque más antiguos para explicarse la composición de Las inquietudes..., los recuerdos familiares y las lecturas de la infancia o de la adolescencia. Después, en fase de madurez, el mar se convierte en materia lírica y poética, en algo también de valor visual para el escritor. Cuando Pío Baroja, al pasar su temporada de médico rural en Cestona, descubre su calidad esencial de vasco, la descubre más por el contacto con un ambiente que por razón de relaciones humanas. Son los montes, los campos, los bosques, las playas y el mar lo que le atraen del país. Algunas gentes humildes también. En cambio, otras personas e ideas florecientes en él le repelen, le irritan.

La expresión lírica de este amor al país se da ya en Vidas sombrías. Claramente se percibe allí que su autor está más a gusto en la tierra natal que en la meseta. Ésta será una constante de su vida: más a gusto desde el punto de vista físico, se entiende. Las inquietudes de Shanti Andía y Zalacaín el aventurero, aparecida en 1909, son las dos novelas vascas que preceden al momento en que su autor se decide a instalarse en Vera durante largas épocas del año (en 1912) y reflejan este deseo. Por entonces, Pío Baroja, como su héroe Shanti Andía, al escribir, se siente ya jubilado, prematuramente jubilado. Y Shanti Andía, como Pío Baroja, al borde de los cuarenta años y después, es un hombre reumático, nostálgico. El pasado le produce más atracción, más simpatía que el presente. Shanti Andía cree que la primera mitad del siglo XIX fue más interesante para el marino que la segunda, que el final. Pío Baroja decía también que, en general, la época de sus abuelos y sus bisabuelos había sido de mucho mayor encanto y atractivo que la de sus padres: no se diga que la propia.



Las inquietudes de Shanti Andía liburuaren argitalpena, 1920an. Solans-ek portada egin zuen eta Ramon de Zubiaurre eta Ricardo Barojak ilustrazioak egin zituzten. Caro Raggio argitaletxea, Madril.

Edición de 1920 de Las inquietudes de Shanti Andía con portada de Solans e ilustraciones de Ramón de Zubiaurre y Ricardo Baroja. Editorial Caro Raggio, Madrid.

Eta Shanti Andía, Pio Baroja bezala, ia berrogei urteak gainean dituenean, eta ondoren ere bai, hezueriak jotako gizona da, itsas minak hartua. Iraganak orainaldiak baino gehiago liluratzen du, atseginago zaio hura hau baino. Shanti Andíak jakingarriago deritza itsasgizonarentzat XIX. mendearen lehen erdia bigarrena baino, hasiera bukaera baino. Pio Barojak ere, oro har, bere aitona-amonen eta birraitona-amonen garaiak bere gurasoenak baino askoz lilura eta erakarmen handiagoa izan zuela esaten zuen: eta berarenak baino askoz gehiago noski.

Bere oroitzapenen pasarte batean gogoratzen du nola, gazte zelarik, bere aitak, Serafin Baroja y Zornozak, meatze injenieria (1840-1912) eta bere garaiko gizona, gozamen handiz irakurtzen zituen Zolaren eleberriak eta orduko beste frantses idazleak, Pio erabat aspertzen zutenak: hala uler daiteke askoz gehiago gustatzea Dickens, honen ondorengoko beste ingeles eleberrigileak baino, Balzac, gehiegikeriak gorabehera, izugarri gustatzea... eta Marryat kapitain zaharra ere Julio Verne bera baino atseginago izatea. Antonio Machadok honako hau esan zuen gure eleberrigileari buruz:

*Elurretako arrosa erromantikoari,
azken hostoa ikusi dio galtzen.*

Zera esan dezakegu *Las inquietudes de Shanti Andía*-ri buruz, *arrosa erromantiko* berezietan berezienaren *azken hostoa* jasotzen duen liburua dela: *itsas abenturaren* hostoa hain zuzen ere.

Eleberriarren osagaiak

“*Las inquietudes de Shanti Andía*—dio egileak— maitasunez idatzita dago. Madrilen hasi nuen liburua, udaberriari, eta zenbait gauza gogoratze-ko eta irudipen batzuk berpizteko Euskal Herriko kostaldeko herrietan eman nuen uda... Orokorrean —dio geroago— gogo onez eta erraztasunez idatzia dela ikus daiteke.”

Eta zuk —galdetzen didate batzuetan—, jakiterik izan baituzu, esango al diguzu non dagoen Luzaro? Luzaro, Fraiburua, Arimetako hondarreta... Donostiatik Ondarrura, kostaldean zehar egindako bidaiaren seme-alabak dira. Bidaia hori eleberria idatzi aurretik egin zuen Piok, eta Luzaro Gipuzkoako kostaldearen mendebaldeko ertzeko herriren bat izan behar du.

Idazlea, eleberriarren hasieran, haurtzaroko oroitzapenak —izeba Cesárearen etxetik Donostiako kaia eta portu txikia ikusten zituenekoak, adibidez— eta ikusi berri duen paisaiaren inpresioak baliatzen ditu. Horretaz gainera, oroimenean pil-pil zituen beste batzuk albora utzita, liburuak irakurri eta berrirakurri zituen bere burua prestatzeko. *Las inquietudes de Shanti Andía*, dio bestalde, itsasgizonen bizitzari buruzko eleberririk bat da. “Shanti Andía itsasgizona da, zaharra eta erretiratu, euskal kostaldeko herri batean bere bizitzaren oroitzapenak idazten dituenak.

Shantik abenturazale baten moduko bizitza eraman du: gaztetan, amodio kontuak direla eta, pistola norgehiagoka bat izan du, eta hil egin nahi izan dute. Hala ere, Shantiren bizitza, bere osaba Juan de Aguirreren ondoan, huskeria bat da. Agirre hau da familiako abenturazalerik handiena: beltz tratularien unti batean itsasoratu zen, eskifaia matxinatuekin batera borrokatu zen, preso egon zen ingeles itsasuntzietan, eta altxor bat gorde zuen Afrikako kostaldeko bazterren batean.”

Shantiren bizitza osatzeko Pio Barojak nahikoa izan du familiaren oroitzapenetara jotzea. Juan de Aguirrerena idazteko Poe, Mayne-Reid, Stevenson eta abar hartu ditu kontuan. Eta abar hori argitzen saiatuko gara, eta bide batez, irudizko bi biografia horiei buruz hitz egingo dugu.

Has gaitezen Shantirekin. Doña Celestina de Aguirreri eta izeba Úrsularen jatorriari buruz dagoeneko esana da zerbait. Mutiko koskoraren ibilerak, hondartzetako, leizeetako eta kostaldeko uharteetako abenturak “nire bizitzari buruzko zertzeladak eta ni (alegia, idazlea) mutiko nintzeneko Donostiako oroitzapenak” direla esan daite-

En un pasaje de sus memorias recuerda cómo cuando era joven, su padre, Serafín Baroja y Zornoza, ingeniero de minas (1840-1912) y hombre de su época, leía con fruición las novelas de Zola y otros escritores franceses, que a él le aburrían solemnemente: así, también se explica que Dickens le interesara más que otros novelistas ingleses posteriores, que Balzac le gustara mucho pese a sus exageraciones... y que el viejo capitán Marryat le agradara también más que Julio Verne. Antonio Machado dijo hablando de nuestro novelista:

De la rosa romántica en la nieve
él ha visto caer la última hoja.

Con relación a Las inquietudes de Shanti Andía podemos afirmar que es libro que recoge la última hoja de una rosa romántica especialísima: la de la aventura marítima.

Elementos de la novela

“Las inquietudes de Shanti Andía -dice su autor- están escritas con cariño. Empecé en Madrid, en la primavera, este libro, y para recordar un poco y avivar algunas impresiones estuve el verano en algunos pueblos de la costa vasca... En conjunto -insiste algo después- se advierte que el libro está escrito por el autor con gusto y con cierta facilidad.”

Usted que tiene tantos motivos para saberlo -me preguntan a veces-, ¿puede decirnos dónde está Lúzaro? Lúzaro, Frayburu, la playa de las Ánimas, son hijos de este viaje por el país, por la costa que queda entre San Sebastián y Ondárroa, realizado poco antes de escribir de un tirón la novela, y Lúzaro hay que colocarlo en el extremo occidental de la costa guipuzcoana.

El escritor, al comienzo de la novela, ha combinado los recuerdos de la infancia, de la época en la que desde la casa de su tía Cesárea veía el muelle y el pequeño puerto de San Sebastián con las

impresiones de paisaje recientemente acumuladas. Se ha preparado también releendo o leyendo algunas obras más que las que le bullían en el recuerdo. Las inquietudes de Shanti Andía, dice asimismo, es una novela de vida de marinos. «Shanti Andía es un marino mercante que, ya viejo y retirado, escribe en un pueblo de la costa vasca las memorias de su vida.

»La existencia de Shanti ha sido algo aventurera, ha tenido en su juventud un desafío por amores y le han querido asesinar. A pesar de esto, su vida, en comparación de la de su tío Juan de Aguirre, es insignificante. Éste ha sido el gran aventurero de la familia, ha estado en un barco negrero, ha luchado con tripulaciones sublevadas, ha estado preso en los pontones ingleses y ha guardado un tesoro en un rincón de la costa de África».

Para componer la historia de la vida de Shanti, Pío Baroja ha podido recurrir simplemente a los recuerdos familiares. Para escribir la de Juan de Aguirre se ha inspirado en Poe, en Mayne-Reid, en Stevenson, etc. Vamos a procurar aclarar un poco este etcétera y a comentar las dos biografías imaginarias.

Comencemos con la de Shanti. Ya se ha dicho algo respecto a los orígenes de las figuras de doña Celestina de Aguirre y de la tía Úrsula. Todo lo que son correrías de chico, pequeñas aventuras en playas, cuevas e islotes costeros, pueden considerarse como “notas autobiográficas y recuerdos de San Sebastián de cuando yo (es decir, el autor) era chico”. Recuerdos en los que se destacan algunas notas de folklore vasco: la “Egan suguia”, las fiestas de “Orentzaro” u “Olentzaro” y Reyes, las canciones de los marinos, ya perdidas...

En el libro segundo, entre los recuerdos de juventud, hay también algo autobiográfico o familiar mezclado con ficción. Lo primero en mucha menos proporción que lo segundo. En efecto, uno de los marinos Goñi terminó sus días en Jerez de la Frontera, casado con señora de allí, y la conexión de los otros hermanos con Cádiz se conservó perenne en la tradición familiar. Pío Baroja tra-



Shanti Andía, Arturo Ruiz-Castillo en marrazkia 1946ko argitalpenean (Biblioteca Nueva).

Shanti Andía, según dibujo de Arturo Ruiz-Castillo que ilustra la edición de la novela de 1946 (Biblioteca Nueva).

ke. Oroitzapen horien artean euskal folkloreaki buruzko zenbait aipamen nabarmentzen dira: "Egan suguia", "Orentzaro" edo "Olentzaro" jaiak eta Errege eguna, marinelen kantuak, galduak honezkeroko...



Donostiako portua, Didier Petit de Meurville-ren gouachea, 1857 eta 1873 bitartean egina. Javier Satrustegiren bilduma.

Puerto de San Sebastián, gouache de Didier Petit de Meurville, realizado entre 1857 y 1873. Colección Javier Satrustegui.

Bigarren liburuan ere, gaztetako oroitzapenen artean, bada idazlearen bizitzari eta familiari buruzko konturik, fikziozko istorioekin batera. Nolanahi ere, gehiago dago bigarrenetik lehenengotik baino. Gofñitar itsasgizonetako bat Jerez de la Fronterara joan zen bizitzera, hango batekin ezkonduz, eta gainontzeko anaiek Cadizekin izan zuten lotura bizirik gorde zen familiaren tradizioan. Pío Barojak harremanak gorde zituen

Gofñi andaluziar horietako batzuekin, bere amaren lehengusu ziren horiekin -hautetakoren bat marinela-, XX. mendea sartutxoa zen artean behintzat. Gizon gaitzesgarririk irudikatu zuenean, Matías Cepeda merkataria, adibidez, "tío Matías"-en oroitzapen saminaz baliatu zen; behin baino gehiagotan aipatu zuen "tío Matías" delako hau, eta modu latz batean beti: izeba Juana Nessirekin ezkonduzko negozio gizona zen. Baina, utz dezagun bakean gizon horren oroitzapen. Mutiko euskaldunak Andaluziako giroan agertzen zuten jarrera, Pío Barojak flamenkismoaren, ijitokeriaren eta *chulapería*-ren aurrean agertzen zutenaren berdina zen; XIX. mendearen bukaeran, gaur egun direnaren aldean, oso diferenteak ziren Madrilaino bertaraino iristen ziren joera horiek. Gaur egun, 98ko belaunaldiari *flamenko*-a adigaitza zitzaiola esaten da zenbaitetan. Esan beharra dago, ordea, garai hartako gizon gazte axolantzat flamenkeria eta flamenkeriatik eratorritako gainerako arte mota guztiak gizarte gaitzekin loturik zihoazela: prostituzioa, mutirikeria, kazikismoa, jauntxokeria, behar gorrian bizita buruaski eta harropuzkeriaz agertzea, etab. Gaur egungo *flamenko*-a *garbixeagoa* da eta turismoarentzat egokia, are gehiago katedrarentzat ere, eta horrek asko aldatu dela esan nahi du: finago bihurtu da, beste gauza herrikoi asko bezala. Hala, bada, idazleak bere garaiko aurriritziak islarazten ditu bere sorkarian; gainera, andaluziarren munduaren aurrean, muturreko jarrera hartu izan ohi du euskaldunak: gorespina edo gaitzespenik latzena, kupidagabea. Baina, bestalde, zeinen pasadizo liriko, labur ederrak dituen eleberriak: Cadiz eta bere badia, hango kaleak, dendak, ostatuak, moilak! "Pilotu txipia"-ren eta Dolorcitas, hiriko burgesia merkataria dirudunaren begiko neskatxaren arteko amodioak, halako garbitasun aratz batez jantzita aurkezten dizkigu idazleak.

Tristea eta erromantikoa da amaiera. Cincuneguirrentzat, ezinezkoa da probetxuzko harreman sendorik sortzea mutiko zintzo lotsatiaren eta neskatxa polit, kaxkarin eta gogo aldartetsu haren artean.

"Hay en Las inquietudes de Shanti Andía notas autobiográficas y recuerdos de San Sebastián de cuando era chico. Mi tía Cesárea, que en la novela se llama tía Úrsula, vivía en una calle que da al muelle, y desde los balcones de su casa solía yo contemplar el movimiento del puerto".

Pío Baroja, Páginas escogidas, 1918



Donostiako portua, Didier Petit de Meurville-ren gouchea, 1857 eta 1873 bitartean egina. Javier Satrustegiren bilduma.

Puerto de San Sebastián, gouache de Didier Petit de Meurville, 1857-1873. Colección Javier Satrustegui.

tó a algunos de los Goñi andaluces, primos de su madre y marino alguno, hasta bien entrado el siglo XX. Y donde trazó una figura poco simpática, la del comerciante don Matías Cepeda, usó del recuerdo muy poco grato que tenía de un "tío Matías" del que habló repetidas veces y siempre de modo áspero: un hombre de negocios casado con su tía Juana Nessi. Dejemos tranquila su memoria. La reacción del muchacho vasco en el

ambiente andaluz es un poco la reacción de Pío Baroja ante el flamenquismo, la gitanería y la chulapería, que, a fines del siglo XIX, eran algo muy distinto a lo que son ahora y que llegaban a las puertas de Madrid. Hoy se alude a veces a la incompreensión del 98 por el flamenco. Pero hay

que advertir que para los hombres jóvenes e inquietos de aquella época, la flamenquería y todas sus secuelas artísticas iban unidas a verdaderas lacras sociales: prostitución, matonismo, caciquismo, señoritismo, suficiencia y petulancia dentro de la propia miseria, etc. Si el flamenco actual es cosa más desinfectada e incluso propia para el uso del gran turismo y hasta de la cátedra, esto es señal de que ha cambiado de modo considerable: se ha estilizado, como tantas otras cosas populares. Así, pues, el escritor proyecta en su criatura aquellas prevenciones de época: aparte de que la reacción del vasco frente al mundo andaluz suele ser extremada, o admirativa o de repulsa absoluta, sin concesiones. Pero ¡qué breves y hermosas notas líricas hay en la novela al hablar de Cádiz y su bahía, de sus calles, de sus colmados, sus muelles! Los amores del "pilotín" con Dolorcitas, la niña mimada de la burguesía comercial pudiente, están descritos con singular nitidez.

El desenlace es triste y romántico. Entre el muchacho serio y tímido y la jovencita guapa, un poco estúpida y caprichosa, no puede haber relación firme y provechosa, según Cincunegui.

Dolorcitas se casa con un aristócrata jerezano, mientras Shanti está de viaje. Al volver hay un doble juego de Dolorcitas y su madre "La Bella Vizcaína", beldad madura, atraída por el joven marino, rival de su propia hija. Recuerdo haber oído en casa alguna historia si no igual, algo semejante. Pero no podría precisar -como en otros casos- dónde empieza la fantasía del autor y dónde lo que podría ser base real de su inspiración. La escena del encuentro fortuito de los antiguos novios y el ademán de desdén de Dolorcitas se parece a otros episodios barojianos.

El personaje Juan de Aguirre

Ahora entremos en el mundo de la ficción propiamente dicha. Las inquietudes de Shanti Andía que dan título a la novela son de tipo profesional o

Shanti bidaia batean dagoela, jereztar aristokrata batekin ezkontzen da Dolorcitas. Shanti etxeratzten denean halako joko bikoitz bat dago Dolorcitasen eta honen ama "La Bella Vizcaína"-ren artean, emakume eder hau, liluraturik baitago itsas gizon gaztearekin, bere alabaren lehiakide bihurturik. Gogoan dut horrelako istorio bat, berdina ez bada berdintsua, etxean entzun izana. Baina, beste askotan bezala, ezin nezake zehaztu non hasten den egilearen fantasia eta non haren goiargiaren egiazko oinarri izan litekeena. Ezkongai izandakoen ustegabeko topaketak eta Dolorcitasen erdeinuzko keinuak Barojaren beste pasarte batzuk gogorazten dituzte.

Juan de Aguirre

Hemendik aurrera fikziozko munduan ibiliko gara. Eleberriko Shanti Andiaren kezka lanbideari eta familiari dagozkien kezka dira, kontakizunaren gorabeheren eta abenturen arabekoak, eta ez dira asko, eleberrian bertan aipatzen diren gainetarako guztien aldean: hilik, baina artean bizi zen Juan de Aguirre osaba misteriotsuaren abentura haien aldean. Aurrerantzean, kontakizunaren hari guztia kontrapuntu horren arabera askatzen da: Shantiren baretasuna, gogoeza eta bihotzberatasuna, alde batetik, eta haren osaba Juanen bizi-modu latza eta tentsioz betea, bestetik. Itsasgizon arduratsua da Shanti, hitzekoa, Ciriaco Andonae-gui kapitain zintzoaren ikasle zintzoa, hark darabiltzan manera adeitsuak ez badauzka ere. Juan gizagajo bat da batez ere, baina zainetan darama Agirretarren indarkeria, heredentzia legeren batek edo familiako asturuak emana.

Pío Baroja Madrilen Medikuntzako doktoradutza ikasten ari zela, Antropologia ikastaro bat egin zuen Manuel Antón-ekin; klase praktikoetan, berriz, Telesforo de Aranzadi y Unamuno (1860-1945) antropologo handia izan zuen irakasle, Bergarakoa hau, eta don Miguelen lehengusua. Harrezkero zaletasun handia erakutsi zuen

Antropologiari buruz, haren eleberrri batzuetara ere zabaltzeraino. Mintzagai dugun honetan, Recalde jaunak, Luzaroko mediku eta burezur neurtzaileak, arraza zurikoen antropologia tipoei buruzko teoria berezi bat ematen du, eta horrela, Vacher de Lapouge-k eta mende bukaerako beste idazle batzuek bazterretsitako teoria horren bidez, brakizefaloei dagozkien joerak eranstean dizkie Agirretarrei ere. Luzaroko istorioan, bestalde, Lope Agirrekoaz ari dela, Agirre "tiranoa", Agirre "eroa", eta Agirre "traidorea" gaitzizenez aipatzen da hura, kostaldeko Agirretarren arbaso (zehirrekoa izango zen) gaizto eta ospetsu bat balitz bezala.

Eleberrigileak hainbat arrazoi bilatzen du familiarteko lotura badagoen itxurak egiteko: grinaz grina eta bortxakeriaz bortxakeria, Juan de Aguirrerenganaino iristen da lotura hori, baina Shantirengan, berriz, ez da horren arrastorik, batez ere Andiatarren odola baitabilkio hari zainetatik: odol "ariar"-ago bat, Recalde medikuaren iritziz.

Pío Juan ez ematen digun irudia ez da, ordea, egiazko Loperena bezain beldurgarria. Juan de Aguirre, herriko jauntxo hori, zori txarreko gizon bat besterik ez zen, ezbeharrak itsasoko abenturarik gogorrenetara bultzatu zuena. Shanti 1820 inguruan jaio zela onartzen badugu, haren osaba ustez hildakoaren hiletak, 1830 inguruan egin ziren, eta honen abentura handiak data horren aurretik: bizitza alferrik galduta hiletaren ondorengo urteetan.

Eleberriarren giltzarria

Hona hemen orain Shanti, Luzarora itzulirik, haurtzaroko oroitzapenak eta irudipenak alderatzen. Hona hemen kai txikiaren bizitzari buruzko ikuspegia, bere unziolekin, bere arrantzaleekin, botikako tertuliekin, erretiratutako itsasgizon beldurgarriekin—emakume lasai baketsuak menderatuta—, meatzariekin eta espekuladore bitxiekien, karlista eta liberal liskartiekien. Eta hara non, ezustekoa

familiar, según las tornas y aventuras que le corresponden una parte mínima, si se comparan con las narradas en la novela misma: con las de su misterioso tío, el muerto en vida, Juan de Aguirre. Toda la narración se desarrolla ya partiendo de este contrapunto: la suavidad, la abulia, la bondad de Shanti de un lado y la aspereza y tensión de la vida de su tío Juan de otro. Shanti es un marino mercante escrupuloso, cumplidor, un discípulo correcto del capitán don Ciriaco Andonaegui, aunque no llega a los atildamientos dieciochescos de aquél. Juan es un hombre desgraciado ante todo, pero que lleva también dentro la violencia de los Aguirre por una especie de ley hereditaria o de hado familiar.

Cuando Pío Baroja estudiaba el doctorado de Medicina en Madrid, siguió un curso de Antropología con don Manuel Antón y tuvo de profesor en las clases prácticas al gran antropólogo don Telesforo de Aranzadi y Unamuno (1860-1945), vasco de Vergara y primo carnal de don Miguel. Desde entonces demostró mucha afición a la Antropología y ésta trasciende en varias de sus novelas. En ésta, el doctor Recalde, el médico de Lúzaro, medidor de cráneos, sienta una especial teoría acerca de los tipos antropológicos propios de la raza blanca para cargar sobre los Aguirre una serie de pasiones propias de los braquicéfalos, objeto del desprecio de Vacher de Lapouge y otros autores finiseculares. La historia de Lúzaro habla, por otra parte, de Aguirre "el tirano", de Aguirre "el loco", de Aguirre "el traidor", del gran Lope de Aguirre, como de un antepasado (sería lateral) siniestro e ilustre de los Aguirre costeros.

El novelista busca razones distintas para dar la impresión de la existencia de una herencia familiar: una herencia de pasión y violencia que llega hasta Juan de Aguirre, pero que en Shanti no queda, pues en él prima la sangre de los Andía: más "aria", según el doctor Recalde.

Pero la de Juan no es una figura feroz como la de Lope, el real, lo fue. Juan de Aguirre, señorito de

pueblo, no es en el fondo más que un hombre sin suerte, metido en el mundo de las peores aventuras marítimas por la fatalidad. Si colocamos el nacimiento de Shanti hacia 1820, podemos poner el del funeral de su tío, supuestamente muerto, hacia 1830 y las grandes aventuras de éste antes de aquella fecha: su vida frustrada años y años después del funeral.

El nudo de la novela

He aquí ahora a Shanti, de vuelta a Lúzaro, contrastando recuerdos e impresiones de la infancia. He aquí la visión de la vida del pequeño puerto, con sus astilleros, sus pescadores, sus tertulias de rebotica, sus terribles marinos retirados, dominados por la mujer tranquila y apacible, sus mineros y especuladores pintorescos, sus carlistas y liberales discutidores. Y he aquí que surge lo imprevisto. En un caserío familiar, "Bisusalde", un caserío como los de Iciar u otros de la costa guipuzcoana, vive un marino retirado con su hija. Acaso al trazar la figura del viejo y la muchacha pensó el novelista en un cuadro de sir John Millais muy reproducido en su época y titulado "El paso del Noroeste". Pero, en suma, el viejo resulta ser Juan de Aguirre y la muchacha la propia prima de Shanti. El enigma se aclara, la vida sentimental de Shanti se carga. El viejo Juan de Aguirre muere..., pero aún pasa algún tiempo hasta que se precisan todas las circunstancias de su vida. A contarla, por boca del marino vascofrancés Itchaso, se dedica todo el libro cuarto de Las inquietudes de Shanti Andía y también el séptimo, en que el tono es autobiográfico, porque se da como copia de un manuscrito del mismo Juan. La narración de Itchaso es más general en su forma y corresponde a un solo periodo, mientras que la del manuscrito es total, seguida.

Hay en la biblioteca de Pío Baroja en Vera, aparte de las novelas "marítimas", una cantidad bastante grande de libros sobre el mar, de derroteros,

Zaldumbide kapitaina. Ricardo Barojaren ilustrazioa *Las inquietudes de Shanti Andía* (1920) libururako.

El capitán Zaldumbide. Ilustración de Ricardo Baroja para Las inquietudes de Shanti Andía (1920).



gertatzen den. Baseri batean, "Bisusalde", Itziar-ko edo Gipuzkoako kostaldeko beste baseri horien antzeko batean, erretiratutako itsasgizon bat bizi da bere alabarekin. Beharbada, gizon zahar-aren eta neskatxaren irudia gogoan marraztean, eleberrigileari sir John Millais-en koadro bat gogoratu zitzaion, "El paso del Noroeste" izenekoa, garai hartan erreprodukzio asko izan zituena. Baina, azken finean, zahar hori, Juan de Aguirre da, eta neskatxa, Shantiren lehengusina bera. Enigma argitu egiten da, Shantiren bizitza sentimentala bete egiten da, Juan de Aguirre hil..., baina denbora joango da oraindik haren bizitzari buruzko gertaera guztiak erabat zehaztu baino lehen. Itxaso deritzan itsasgizon frantses euskaldun batek argituko digu zerbait, eleberriarren laugarren liburu osoan zehar; zazpigarren liburuan ere kontatzen da haren bizitzarik, autobiografia baten itxuran, Juan beraren eskuizkribu baten kopiatzat aurkezten baita. Itxasoren kontra orokorragoa da, eta aldi bakar bati dagokio; eskuizkribua, berriz, erabatekoa da, etenik gabea.

Berako Pío Barojaren liburutegian "itsasgiroko" nobelez gainera, itsasoari buruzko liburu asko dago, itsasbideak, itsas hiztegiak, itsasketa liburuak, untzigintzari buruzko liburuak, marinelen

eritasunei buruzkoak, eta beltz tratularien, kortsarioen eta itsaslapurren kontakizun liburuak. Liburu hauetako batzuk eleberriz idatzi ondoren lortutakoak dira, beste batzuk, aldiz, eleberria idatzi bitartekoak. Baina liburu horietako batzuetatik hartutako xehetasun teknikoak alboratu zitzaizkion, zera esan beharra dago: *El Dragón* untziko marinela, Zaldumbide kapitaina buru zutela, eta horien etsaiak deskribatzeko, Barojak ez zion mugarik jarri irudimenari. Era guztietako xehetasunez kontatzen dira ere beltz tratularien espedizioei eta txinatarren garraioari buruzko pasarteak. *Los pilotos de altura* eta *La estrella del capitán Chimista* idatzi zituenean, Abaroa zeritzan bizkaitar kapitain baten eskuizkribua erabili zuen esku artean Barojak, 1860. urtean edo idatzia; eskuizkribu horretan "ebano"-aren salerosketari eta "coolies"-en garraioari buruzko zertzelada asko jakinarazten da. Desagertua dago eskuizkribu hori, baina Barojaren Shantiri buruzko deskripzioak –Iriberrirekin egindako hitz aspertuak gogoan, itsasbideei buruzko idatziak eta "La France maritime"-ko testuak baliatuz– askoz biziagoak dira. Eleberririk argia ikusi zuenean, jesuita frantses euskaldun batek, Pierre Lhande-k, hala esan omen zuen kritika batean, liburuak "alga asko zituela...", eta an-

vocabularios náuticos, tratados de navegación, de construcción naval, de enfermedades propias de los navegantes e historias varias de negreros, corsarios y piratas. Algunos fueron adquiridos después de escrita la novela, otros en el momento de componerla. Pero, con independencia de los detalles técnicos tomados de varios de tales libros, hay que convenir que en la descripción de los tipos que tripulaban El Dragón, con el capitán Zaldumbide a la cabeza, y sus grupos hostiles, Baroja hizo un derroche de imaginación. Hay también una gran exactitud en el relato de las expediciones negreras y el transporte de chinos. Cuando mucho después escribió Los pilotos de altura y La estrella del capitán Chimista tuvo a mano el minucioso diario de un capitán vizcaíno, apellidado Abaroa, escrito hacia 1860 y en el que se suministraban cantidad de detalles sobre el comercio de "ébano" y el transporte de "coolies" a América. Este diario ha desaparecido, pero las descripciones que Baroja hizo en Shanti, recordando las charlas con Iriberry, aprovechando las lecturas de derroteros, de textos de La France maritime, etc., son más vividas. Dice su autor que cuando apareció la novela, un jesuita vascofrancés, el padre Pierre Lhande, escribió una reseña crítica en la que observaba que "tenía muchas algas..." y que no se parecía nada a las de Paul Bourget. Ninguna de las dos observaciones molestó a Baroja. En cuanto a lo de las algas, yo, por mi parte, no veo el abuso. Y respecto al plan formal hay que reconocer que la narración se rompe y se descompone, que da lugar a digresiones y soliloquios en los que el autor (más que Shanti mismo) hace acto de presencia. Pero el hilo permanece siempre fuerte. Entre la narración de Itchaso y la autobiografía de Juan de Aguirre queda el libro quinto, en que se cuenta la interferencia de Juan Machín, el minero, en la vida y amores de Shanti con su prima. Pero la unidad interna, esencial, del relato no se rompe, sino que se recarga. Este minero es otro Aguirre violento, bastardo de Juan. El contraste entre la felicidad de Shanti y los tormentos de Machín

constituye un nuevo contrapunto. Las escenas de la romería y otras, blandas y apacibles, en que Shanti participa se contraponen a las maquinaciones y ardides de guerra del minero atormentado. Pero al fin desaparece y el médico viejo de Lúzaro aclara su secreto.

Su desenlace

El libro sexto con la historia de los amores de Juan de Aguirre y la Shele, "compuestos" de manera autoritaria por doña Celestina y el vicario del pueblo, es fruto de la experiencia de Pío Baroja como médico rural.

Es, acaso, de lo mejor del libro: en las reflexiones del médico viejo sobre la raza vasca, sobre los matrimonios concertados por dinero, sobre la moral tradicional de las gentes ricas, etc., hay que ver parte de las meditaciones del médico de Cestona en la última década del siglo pasado. Pero estas reflexiones también vienen a cuento, están encajadas en su sitio. Y ahora llegamos al final: el manuscrito de Juan de Aguirre cuenta su vida en línea. Muchacho atolondrado, violento, aunque de buen corazón, se ve lanzado a un mundo de aventuras, sin más base que los principios que le inculcó su madre, mujer rígida y orgullosa, de moral severa, pero estrecha, y de linaje. Marino mercante, negrero luego, presidiario en un pontón, termina su vida como un muerto civil, viudo de una mujer adorada, con su hija y el fiel Allen como únicos sostenes. Al final un episodio muy clásico de libro de aventuras, el del tesoro de Allen (inspirado en Poe sobre todo), precede al epílogo de Shanti, que es una de las buenas páginas líricas, poéticas, de Pío Baroja, y que terminan con un saludo nostálgico de despedida al mar antiguo, a las viejas naves a punto de desaparecer. Hoy, en 1967, este mundo reflejado por el novelista en 1911, ha desaparecido total, radicalmente. Y el autor, muerto en el otoño de 1956, lo echaba aún más en falta, de viejo, como base fun-

tzik ere ez zuela Paul Bourget-ek idatzitakoekin. Bi irizpen horiek ez zuten Baroja kezkatu. Algei buruz, nik behintzat ez dut uste gehiegikeriatan aritu zenik. Liburuaren egitura formalari dagokionez, kontakizuna hautsi eta desegin egiten da, eta barreiatu, eta bakarrizketari ematen zaio bidea horrelakoetan, eta orduan egilea bera agertzen da (Shanti bera baino gehiago). Baina haria ez da inoiz ere eteten. Itchasoren kontakizunaren eta Juan de Aguirreren biografiaren artean bostgarren liburua dago: Machin meatzaria Shantiren eta honen lehengusinareneko bizitzan eta amodioan sartzen denekoa. Baina kontakizunaren barruko osotasuna, funtsa, ez da puskatzen; aitzitik, indartu egiten da. Meatzari hau beste Agirre odolbero bat da, Juanen sasiko semea. Shanti zorionsuaren eta Machin ekaiztsuaren arteko aldea beste kontrapuntu bat da eleberrian. Erronomia eta Shantik ere parte hartzen duen beste eszena biguin lasaiak, oinazeak hartutako meatzariaren azpijokoei eta maltzurkeriei kontrajartzen zaizkie. Baina bukeran, desagertu egiten da meatzaria, eta Luzaroko mediku zaharrak bere sekretua argitzen du.

Amaiera

Seigarren liburua Pio Barojak mediku zegoela bizitako esperientzien emaitza da: Juan de Aguirre eta Sheleren arteko amodioa, doña Celestinak eta herriko bikarioak, aldez edo moldez, “hartaratua”, kontatzen da bertan.

Liburuaren atalik hoberena da, beharbada, honako hau. Medik zaharraren gogoeta haietan (euskaraz arrazari buruzkoa, diruagatik egiten diren ezkontzei buruzkoa, dirudunen moral tradizionalari buruzkoa, etab) XIX. mendearen bukaeran Zestoan mediku ibili zenarenak sumatzen dira. Baina gogoeta horiek ere harira datoz, dagokien tokian daude. Eta orain, gatozen amaierara: Juan de Aguirreren eskuizkribuak etenik gabe bezala kontatzen du haren bizitza. Mutikoa, burtzoroa

eta odolberoa, baina bihotz onekoa, abenturazko mundu batera hertsaturik aurkitzen da, amarengandik jasotako irakasbidea, beste oinarririk ez duela. Emakume gogor harroa du ama, moral zuzen baina hertsikoa, eta leinu onekoa. Itsasgizon hasieran, beltz tratulari ondoren, ingelesen unti batean preso gero, zibil gisa hil zen, emakume maitagarri baten alargun, alaba eta Allen fidela beste euskarririk gabe. Azkenean, abenturazko liburuetan ohizkoa den pasarte bat dator: Allenen altxorra (batez ere Poe-n oinarri hartuta). Shantiren azken hitzaren aurretik dago zati hori, eta Pio Barojaren orrialde liriko, poetiko onentsuenetako bat da; itsaso zaharrari eta betirako galtzearen dauden unti zaharrei azken agurra emanez amaitzen da kapitulua. Gaur egun, 1967an, eleberrigileak 1911n kokatzen duen mundu hori, desagertua da erabat. 1956ko udazkenean hil zen idazlea, eta zahartzaroan are gehiago sentitu zuen mundu haren hutsa, funtsezko oinarri baizitzaion bere lanbiderako, eleberririk idaztean datzan –eta etorkizunari begira, bestalde, fede urriko agertu zen– ertigintza horretarako.

Eleberriaren “garaia”

“Misteriorik ez badago, ez dago nobelarik” esan ohi zuen Pio Barojak. Gizarteari edo giroari dagokion misterioa, erantsi behar dut, eta ez zientziari edo filosofiari dagokiona, bizitza bi misterio suerte horiez bete baitago oraindik ere. Eleberrietako misterioak lainopean dagoen gizarte batek besterik ezin ditu sortu, argia eta itzalaren kontrasteak ahalbideratzen dituen inguru batek, eta gaur egun ez dago halakorik. Lehen esan bezala, Pio Barojak, XIX. mendearen bigarren erdia aurreratu-zea zela jaioa, mendearen lehen erdiko bizitza misterioitsuagoa izan zela uste zuen, eta horregatik erakartzen zuen horrenbeste. Baina eleberriaren misterioan ez zuen naturaz gaindiko edo zientziatzako osagarri onartzen: arrazionalak izan edo ez, ilunbeetako giza jaiaretan edo etenik

damental para desarrollar la profesión de novelista, el arte de novelar, sobre cuyo porvenir tenía poca fe.

La “época” de la novela

“Donde no hay misterio no hay novela”, decía. Misterio, añadiré, de tipo social o ambiental, no científico o filosófico, porque la vida humana sigue estando llena de misterios de estas dos últimas clases. Los misterios novelísticos no los puede dar más que una sociedad un poco envuelta en nieblas, un medio ambiente que permita los contrastes de luz y sombra, que hoy no se dan. Como he dicho antes, Pío Baroja, hombre nacido en la segunda mitad del siglo XIX ya avanzada, creía que la vida humana durante la primera había sido más misteriosa y por eso le producía mayor atracción. Pero en el misterio novelesco no pretendía que entraran ingredientes sobrenaturales o científicos: debía ser éste un misterio basado en la existencia de pasiones humanas y de acciones continuas, racionales o no, en medios oscuros. Con Las inquietudes... se perfila su gusto por un pasado concreto: un pasado anterior a aquel en que se centra la acción de Zalacaín... (es decir, la segunda guerra civil) o la de la trilogía llamada “El pasado” precisamente y compuesta por La feria de los discretos, que ocurre en Córdoba, en la época de la revolución del 68, Los últimos románticos y Las tragedias grotescas, novelas con muchos episodios del período de la “Commune”, revividos por su autor en el París del último año del siglo XIX. Esta vuelta al pasado se exagera en Las memorias de un hombre de acción y queda representada, en última instancia, por El caballero de Erlaiz (1943), obra de vejez y de desengaño total. Sin embargo -dirá algún ergotizador de éstos al uso-, Pío Baroja siempre demostró tener una tendencia antihistórica. Es verdad. Pero una cosa es la historia o el devenir histórico total y otra el pasado concreto e inmediato y para el novelista la historia antigua, la medieval, la moderna, hasta la de mediados del

siglo XVIII, no tenían contenido de mayor interés. Menos aún la filosofía de la historia. En cambio, el pasado vivido por las generaciones de sus abuelos y bisabuelos estaba cargado de significación vital para él, era una parte, un elemento considerable de su propio devenir. Por ideas, por costumbres, por herencias, por problemas... Una de las grandes paradojas que se dan en Baroja es que estando en la avanzada de su época en cuanto a modos de expresión y dispuesto siempre a la ruptura con moldes viejos de contar, de concebir el arte de hacer novelas, se encuentra viviendo un mundo que le irrita o que, por lo menos, no le gusta en general y tiene que recrear el del pasado inmediato, para estar más a gusto con personajes y ambientes. Ni la España finisecular ni la de los años de madurez y senectud le agradaron. Partió, pues, de su infancia “para allá”, en vez de venir “hacia acá”, al buscar muchos temas y dar rienda suelta a su imaginación de solitario. Y he aquí cómo el enemigo teórico de la historia se convirtió a la postre en un conocedor profundo de la del siglo XIX, en una especie de erudito buscador de folletos, estampas y libros sobre aquella época, que para nosotros es ya lejana, muy lejana y en la que vivieron piratas, negreros, marinos de altura que navegaban a vela, “hombres de acción” de todas suertes y que nada tenían que ver con los personajes que Baroja encontraba viviendo y bullendo en el Madrid, en el San Sebastián de sus años mozos o de la madurez: políticos, negociantes, profesores, con mayores pretensiones de sensatez que los españoles anteriores, pero que le daban constante impresión de garrulería, vanidad, incompreensión o rapacidad endomingadas.

Fortuna de la novela

Las inquietudes de Shanti Andía ha sido obra con cierto éxito. Aparte de la primera edición (objeto de una falsificación evidente), hay que destacar la aparición, en 1920, de otra editada por Rafael Caro Raggio, con ilustraciones de R. Zubiaurre y R.



Pío Baroja. ¡Todos leen a Pío Baroja! kartelaren xehetasuna, Julio Caro 1975ean egindakoa.

Pío Baroja. Detalle del cartel ¡Todos leen a Pío Baroja! realizado por Julio Caro en 1975.

gabeko ekintzetan oinarri hartutako misterioa behar zuen eleberrarenak. *Las inquietudes*... eleberrian garai jakin bati buruzko zaletasuna agertu zuen Barojak: *Zalacain*... eleberriko gertakizunaren haria askatzen den garaia (bigarren gerra zibila, alegia) baino lehenagokoari, edo “*El pasado*” izeneko trilogiarenaren aurrekoari buruzkoa, alegia. Trilogia hori osatzen duten nobelak hauek dira: *La feria de los discretos*, Cordoban, 1868ko iraultzaren garaian gertatzen dena, eta *Los últimos románticos* eta *Las tragedias grotescas*, “Commune”-ren aldiko gertakari asko biltzen dituzten eleberririk hauek, eta idazleak, XIX. mendearen azken urteko Parisen bersortu zituenak. Iraganaldira itzultzeko joera hori are biziagoa da *Las memorias de un hombre de acción* delakoan, eta azkenekoz, *El caballero de Erlaiz* (1943), zahartzaroko eta etsipen erabatekoaren obra horretan agertzen da. Hala ere -tematuko da betiko buru argia-, Pio Barojak historiaren kontrako joera erakutsi zuen beti. Egia da. Baina gauza bat da historia edo historiaren bilakaera osoa eta beste bat iraganaldi konkretu eta hurbila; eleberrigilearentzat Antzinako historiak, Erdi Arokoak, historia modernoak, edota XVIII. mendekoak, ez zuten aparteko interesik. Are gutxiago historiaren filosofiak. Hala ere, haren aitona-amonek edo birraitona-amonek bizitako iraganaldia bizi arnasa bezalakoa zen idazlearentzat, bere etorkizunaren beraren zati bat, garrantzi handiko osagai bat zen. Ideiengatik, ohiturengatik, heredentziagatik, arazoengatik... Adierazpide moduei dagokienez, Baroja bere garaian aitzindari zen, kontakizun molde zaharrak, eta eleberrigintzari buruzko irizpideak apurtzeko beti prest; aitzitik, haserre bizian jartzen duen mundu batean bizi da, edo gustatzen ez zaion batean behintzat, eta beraz, iragan hurbileko mundua *birsortu* behar du pertsonekin eta giroekin gustorago egoteko. Ez zuen atsegin ez mende bukaerako Espainia ez heldutasun urtetakoa eta ezta zahartzarokoa ere. Hala, kontagaiak bilatzeko gizon bakarzalearen irudimen hura askatzen zuenero, haurtzarotik “harantz”

abiatzen zen, “honantz” etorri beharrean. Hara non, teoriarik behintzat historiaren aurka zegoen gizon hark sakontasunez ezagutu zuen XIX. mendeko historia, garai hartako foileto, estampa edo liburu bilatzaile jakintsu bihurturik. Guretzat jada urrun, urrunegi dagoen garai hartan, piratak, beltz tratulariak, bela untzietako itsasgizonak, era guztietako “ekintza gizonak” bizi ziren, eta gizon horiek ez zuten ikustekorik Barojak Madrilan aurkitu edo Donostian –ume kozkor zein, gero, gizon heldua zen garaian– ikusi zituenekin: politikariak, negozio gizonak, irakasleak... aurreko aldiko espainiarrak baino zentzudunagoak zirelako ustean denak, baina Barojari, apainkeriaz jantzitako gizon berritsu, harroputz, ezjakin harrapariak begitandu zitzaizkionak beti.

Eleberraren zoria

Nolabaiteko arrakasta izan duen obra dugu *Las inquietudes de Shanti Andía*. Lehen edizioaz gainera (falsifikazio nabarmena), aipagarria da Rafael Caro Raggiok 1920an argitaratu zuena, R. Zubiaurreren eta R. Barojaren marrazkiekin. Bigarrenaren irudiak, esan beharrik ez, egokiagoak dira lehenengoarenak baino, azken hauek, marrazki adierazkorak bainoago, liburuaren apaingarri direlako. Berehala alemanierara itzuli zen (1913), ondoren portuguesera eta, A. Maurois-ek zuzendutako bilduma batean, frantsesera gero. Ingelesera A. Kerrigan-ek itzuli zuen, eta arrakasta handia izan zuen Ipar Ameriketara. Zinemara ere eramane zuten, eta euskarara itzulia izan zen (1959). Eleberria argitaratu zenean, hala iragarri zuen *Azorín*-ek, Donostiako “El Pueblo Vasco”-n, haren kalera-teea: “*Las inquietudes de Shanti Andía*, Barojaren azken liburua, eleberrigile handi honek argitaratu duen hoberenetakoa bat da. Ez dago gure hizkuntzan Euskal Herriko itsasoari eta kostaldeari buruzko deskripzio zoragarri, bikain horien parekorik. Eleberri hori itsasoaren eta Euskal He-

Baroja. Inútil será decir que los dibujos del segundo se compenetran más con el texto que los del primero, decorativos más que expresivos. Fue pronto traducida al alemán (1913), más tarde al portugués (s.a.) y al francés en una colección dirigida por A. Maurois. Al inglés fue traducida por A. Kerrigan, y este texto tuvo bastante éxito en Norteamérica en ediciones de tipo más popular que la primera. Fue también puesta en cine y traducida al vascuence (1959). Cuando apareció, Azorín anunció su salida en "El Pueblo Vasco", de San Sebastián, con estas palabras: "Las inquietudes de Shanti Andía, último libro de Baroja, es uno

de los mejores que el ilustre novelista ha publicado. Nada hay en nuestra lengua que supere esas soberbias, maravillosas páginas en que describe el mar y las costas vascas. Esa novela es el libro del mar y del pueblo vasco. Ni mejor guía 'sentimental' de Vasconia ni más hondo y delicado canto en su honor." Opinión más rotunda no se puede dar. Hoy, más de medio siglo después de emitida, habrá algunas gentes del país que ya la suscriban. Pero creo que lo más importante es que es un libro del mar y de aventuras, que supera los intereses infantiles o populares, y se convierte en obra lírica de alta calidad.

rriaren liburua da. Vasconiako gida "sentimental" hobeagorik eta haren ohorez egindako kantu sakon samurragorik ere ez dago". Ba ote irizpen biribilagorik?. Gaur, iritzi hori eman zenetik mende erdi luze bat joan zaigularik, izango da *jadanik*

hura onartzen duen herriko semerik. Baina, nire ustez, zera da garrantzitsuena, itsasgiroko eta abenturazko liburu bat dela hau, haurren edo herritar xeheen nahikariak gaudituz, eta kalitate handiko obra liriko bilakatzen dena.

BIBLIOGRAFIA

1. Edizioak

El mar. Las inquietudes de Shanti Andía. Madril, 1911. Biblioteca Renacimiento. Kopia faltsua egin zioten.

El mar. Las inquietudes de Shanti Andía. Rafael Caro Raggio. Madril, 1920. Ricardo Baroja y Ramón de Zubiaurrek ilustratutako argitalpena. Azalean Pioren erretratua dakar, anaiak egindakoa.

Las inquietudes de Shanti Andía. L.D. Bailiff y M.B. Jones-en argitalpena. Chicago, University Press, 1930.

Las inquietudes de Shanti Andía. Madril. Colección Austral, 206 zenbakia, 1941, 1944, 1948, 1955, 1958, 1963 urteetan. Akats asko du argitalpenak.

Las inquietudes de Shanti Andía, Biblioteca Nueva, Madril, 1946.

Las inquietudes de Shanti Andía. José María Salaverriaren hitzaurrea, Aguilar, Colección Crisol, Madril, 1951.

2. Itzulpenak

Alemanieraz:

Die Abenteuer des Shanti Andía. Autorisierte Uebersetzung aus dem Spanischen von Mario Spiro. Munich y Leipzig, 1913.

Frantsesez:

Les inquiétudes de Shanti Andía. Préface de Philippe Soupault. Roman traduit de l'espagnol par Georges Pillement. Paris, 1956.

Ingelesez:

The restlessness of Shanti Andía and other writings. Traducción de Anthony Kerrigan. Ann Arbor, 1959. Con una introducción del traductor.

Portugesez:

Os dois rumos. Romance. Tradução de Carlota Serpa Pinto. Lisboa, s.a.

Euskaraz:

Itxasoa laño dago... Xanti Andía itxas-gizonaren bizitza ta kezka. Yon Etxaidetarrak euskerara emana. Zarauz, 1959. Colección "Kuliska sorta", con un prólogo.

3. Aztelanak

TENREIRO, Ramón M.: "Las inquietudes de Shanti Andía", *La Lectura*-n, III, 1911, 66 or. eta ond.

BAROJA, Pío: *Páginas escogidas*. Autoreak berak egindako aukeraketa, hitzaurre eta oharak. Madril, 1918, 320 or. Antologia ere bai, 321-335 or.

LHANDE, Pierre: "Réplica al señor Baroja", *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en, X, 1919, 209-212 or.

BAROJA, Pío: "Contestación a Mr. Lhande sobre un supuesto plagio", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, X, 1919, 206-208 or.

AZOLA, José Miguel: "¿De dónde era Shanti Andía? Contribución al barojismo", *El Español*-en, 1946-Apirila-20.

AZORIN: "Las inquietudes de Shanti Andía", *Ante Baroja*-n. Zaragoza, 1946, 71-74 or. (Donostiako *El Pueblo Vasco*-n, liburua agertu zela eta).

PEREZ FERRERO, Miguel: "Carta con documentos a C.J.C. Homenaje a Pío Baroja"-n, *Papeles de Son Armadans* aldizkarian. Madril-Palma de Mallorca, 1956. s.p.

SOUPAULT, Philippe: *Las inquietudes de Shanti Andía* frantseserako itzulpenari hitzaurrea, 7-14 or.

KERRIGAN, Anthony: "The world of Pío Baroja", *The restlessness of Shanti Andía*-n, 3-27 or.

ALDECOA, Ignacio: "Las inquietudes de Shanti Andía", *Baroja y su mundo*-n, I. Madrid, 1962, págs. 157-161.

BIBLIOGRAFIA

1. Ediciones

- El mar. Las inquietudes de Shanti Andía. *Madrid, 1911. Biblioteca Renacimiento. Fue objeto de una falsificación.*
- El mar. Las inquietudes de Shanti Andía. *Rafael Caro Raggio. Madrid, 1920. Edición ilustrada por Ricardo Baroja y Ramón de Zubiaurre, con un retrato de Pío por su hermano en la portada.*
- Las inquietudes de Shanti Andía. *Edición de L.D. Bailiff y M.B. Jones. Chicago, University Press, 1930.*
- Las inquietudes de Shanti Andía. *Madrid. Colección Austral, número 206, 1941, 1944, 1948, 1955, 1958, 1963. Edición con muchas erratas.*
- Las inquietudes de Shanti Andía, *Biblioteca Nueva, Madrid, 1946.*
- Las inquietudes de Shanti Andía. *Prólogo de José María Salaverría, Aguilar, Colección Crisol, Madrid, 1951.*

2. Traducciones

Alemán:

Die Abenteuer des Shanti Andía. *Autorisierte Uebersetzung aus dem Spanischen von Mario Spiro. Munich y Leipzig, 1913.*

Francés:

Les inquiétudes de Shanti Andía. *Préface de Philippe Soupault. Roman traduit de l'espagnol par Georges Pillement. Paris, 1956.*

Inglés:

The restlessness of Shanti Andía and other writings. *Traducción de Anthony Kerrigan. Ann Arbor, 1959. Con una introducción del traductor.*

Portugués:

Os dois rumos. *Romance. Tradução de Carlota Serpa Pinto. Lisboa, s.a.*

Vascuence:

Itxasoa laño dago... Xanti Andía itxas-gizonaren bitizta ta kezka. *Yon Etxaidetarrak euskerara emana. Zarauz, 1959. Colección "Kuliska sorta", con un prólogo.*

3. Estudios

TENREIRO, Ramón M.: "Las inquietudes de Shanti Andía", en *La Lectura*, III, 1911, págs. 66 y sigs.

BAROJA, Pío: Páginas escogidas. *Selección, prólogo y notas del autor. Madrid, 1918, pág. 320, más la antología, páginas 321-335.*

LHANDÉ, Pierre: "Réplica al señor Baroja", en *Revista Internacional de Estudios Vascos*, X, 1919, págs. 209-212.

BAROJA, Pío: "Contestación a Mr. Lhande sobre un supuesto plagio", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, X, 1919, págs. 206-208.

AZAOLA, José Miguel: "¿De dónde era Shanti Andía? Contribución al barojismo", en *El Español*, 20-abril-1946.

AZORIN: "Las inquietudes de Shanti Andía", en *Ante Baroja. Zaragoza, 1946, págs. 71-74. (De El Pueblo Vasco de San Sebastián, a raíz de la aparición del libro).*

PÉREZ FERRERO, Miguel: "Carta con documentos a C.J.C.", en "Homenaje a Pío Baroja", de los Papeles de Son Armadans. *Madrid-Palma de Mallorca, 1956. s.p.*

SOUPAULT, Philippe: *Prólogo a la traducción francesa de Las inquietudes de Shanti Andía, págs. 7-14.*

KERRIGAN, Anthony: "The world of Pío Baroja", en *The restlessness of Shanti Andía, págs. 3-27.*

ALDECOA, Ignacio: "Las inquietudes de Shanti Andía", en *Baroja y su mundo, I. Madrid, 1962, págs. 157-161.*

Pío Baroja eta itsasoa

Jesús María Lasagabaster

Familia, infancia y juventud liburuan bere jaiotetxea gogorazten du Pío Barojak, orduan Zurriolako pasealeku zeritzan kaleko etxe hura, hain zuzen ere. “*Itsas aurrean dago*”, esaten du kaleaz, eta zera eranstean du ondotik:

“Atsegin zait itsaso ondoan jaio izana; askatasun eta aldaketa seinale iruditu izan zait beti”¹.

Idazleak berak poesi mintzairaz “bidearen azken bihurgunea” deitu zuen bizitzaren zahartzaroko urteetatik begiratuta –ordurako bazituen hirurogeita hamabi urte–, Barojak ez du soilik itsas ondoko etxe batean jaioa dela esaten, interpretatu egiten du itsaso hori, askatasunaren sinbolo gisa interpretatu ere; hau da, idazlearen bizitza osoan eta bere lan guztietan funtsezkoa eta ezinbestekoa izan den balioaren sinbolo gisa: nork nahi bezala pentsatzeko askatasuna, nahi bezalako iritzia ematekoa, nahi bezalako literatura egitekoa; hitz batean esateko: nahi den eran bizitzeko askatasuna.

Itsasoa –gogoan dituen umetako bizikizunetako bat, Donostiako moila zaharraz gordetako irudi haiek bezala– inspirazio iturri eta literatur gai bihurtzen da Baroja idazlearentzat, bere narrazio-gintzan garrantzi handiko tokia hartzeraino; izan ere, itsasoaren nobelagile baita Baroja:

«“*Itsasoaren nobelagileen*” koru unibertsal hainbat eta hainbat aldiz ospatuan, aitzindaritzat eta are aitatzat ere Homero zaharra, Homero bera duen horretan, eta besteak beste Conrad eta Melville-renak bezain obra indar handikoak dituenak, edota

Loti eta Mac Orlan-enak bezain nostalgikoak, badu Barojak, eskubide osoz irabazita gainera, ohorezko toki bat»².

Baina Pío Barojaren biografiaren eta itsas literaturaren artean loturarik egin badaiteke, ez da soilik Pío, haurtzaroan, Kantauri itsasoa beti aurrean izan zuelako; bada, gainera, “belaunaldiz belaunaldiko tradizio” bat, Julio Carok *Las inquietudes de Shanti Andía* eleberrirako egin zuen hitzaurrean gogorazten duen bezala. Gofñitarren aldeko Barojaren arbasoen artean, badira itsasgizonak, marinelak eta untzi kapitainak, Cadizetik Filipinetara arteko bidea eginak, Esperantza Oneko lurmuturra inguratuz: Justo eta Antonio María de Gofñi, adibidez; berorien oroitzapena eta arrastoa da, literatur abentura bihurturik, Barojaren itsaso nobeletan geratu dena.

Hor da Cesárea de Gofñi, *Las inquietudes de Shanti Andía* eleberriko izeba Úrsula, marinelen arreba, itsasoko bidaiei, guduei eta lapurrei buruzko zein abenturazko historia harrigarriak kontatu zizkiona Píori. Hor dira Donostiako kaiko oroitzapenak: itsasoratzen eta kairatzen diren untiak, eta arrantzale zaharrak, bizitako eta ametsezko gertaeren arteko muga jadanik ezin bereiz daitekeen itsasoa gogoan; horietakoa zen, adibidez, *Las inquietudes de Shanti Andía* liburuko Yurumendi irudimen beroa.

“Itzea”ko etxeak, Ibardingo mendiaren magalpean hondarturiko galeoi zahar ametsezkoak, Barojatarren itsasoko iraganaldiaren oroitzapenak gordetzen ditu: idazlearen arbaso bat buru duen untiaren lehia bizia itsas ekaitzaren erdi-erdian,

¹ *Familia, infancia y juventud*, Obras Completas, VII, Madril, Biblioteca Nueva, 1978, 529. or.

² Eugenio G. de Nora, *La novela española contemporánea*, I. liburukia, 1, Madril, Gredos, 1963, 180. orr.

Pío Baroja y el mar

Jesús María Lasagabaster

En Familia, infancia y juventud, Pío Baroja recuerda la casa en que había nacido, en el llamado entonces paseo de la Zurriola, que estaba, dice “en frente del mar”; y comenta:

“El haber nacido junto al mar me gusta; me ha parecido siempre un augurio de libertad y de cambio”¹.

Desde la perspectiva de sus años viejos, que él mismo llama poéticamente “la última vuelta del camino”, Baroja -que tiene ya setenta y dos años- no se limita a registrar el dato de haber nacido en una casa junto al mar, sino que además lo interpreta: el mar como símbolo de libertad, es decir, de un valor sobre el cual se ha sostenido de manera indefectible la vida entera y la obra toda del escritor: libertad de pensar, libertad de opinar, libertad de hacer literatura, libertad, en una palabra, de vivir.

El mar, que forma parte del horizonte de sus experiencias infantiles -estampas marineras del muelle viejo de San Sebastián- se convierte, en el Baroja escritor, en fuente de inspiración y en materia literaria que ocupará una parte importante cualitativamente de su obra narrativa; porque Baroja es un novelista del mar:

“En el coro universal y por tantas veces ilustre de los ‘novelistas del mar’, que enarbola como precursor y aun como padre nada menos que al viejo Homero, y en el que cuentan obras tan poderosas como las de Conrad y Melville, o tan nostálgicas como las de Loti o Mac Orlan, tiene Baroja por derecho propio un puesto de honor”².

Pero no es sólo la presencia del Cantábrico en el paisaje cotidiano de la primera niñez lo que nos permite relacionar en Pío Baroja biografía y literatura; hay una “tradicón familiar”, a la que Julio Caro alude en un prólogo a Las inquietudes de Shanti Andía. Por la rama de los Goñi, hay en los ancestros de Baroja hombres de mar, marinos y capitanes mercantes, que han hecho la ruta de Cádiz a Filipinas, por el Cabo de Buena Esperanza, como Justo y Antonio María de Goñi; es su memoria y su rastro lo que queda, convertido en aventura literaria, en las novelas barojianas del mar.

Y está doña Cesárea de Goñi, la tía Úrsula de Las inquietudes..., hermana de marinos, que le contaría al pequeño Pío sorprendentes historias de aventuras y de viajes marítimos, de batallas navales y de piratería. Y están los recuerdos del muelle de San Sebastián, con barcos que zarpan y atracan, con viejos pescadores que rememoran un mar en el que ya no se percibe la frontera entre lo vivido y lo imaginado; como el fantasioso Yurrumendi de Las inquietudes de Shanti Andía.

La casona de “Itzea”, como un viejo y fantástico galeón varado al abrigo del alto de Ibardin, conserva recuerdos de ese pasado marítimo de los Baroja: el barco capitaneado por un antepasado del escritor, debatiéndose en medio de un temporal, grabados de batallas navales, fotografías de marinos, objetos relacionados con la vida marinera: catalejos, brújulas, mapas... Y, sobre todo, esa espléndida biblioteca, con abundantes libros relacionados con el mar, con las obras de los grandes autores, ingleses sobre todo, que han cultivado la

¹ Familia, infancia y juventud, O.C., VII, Madrid, Biblioteca Nueva, 1978, p.529.

² Eugenio G. de Nora, La novela española contemporánea, tomo I, Madrid, Gredos, 1963, p.180.



Las inquietudes de Shanti Andía liburuaren lehen argitalpena (Ed. Renacimiento, Madril, 1911). Marco-ren azala du.

Primera edición de Las inquietudes de Shanti Andía (Ed. Renacimiento, Madrid, 1911). Portada de Marco.

itsas gudueta grabatuak, marinelen argazkiak, itsasoko bizitzarekin zerikusia duten tresnak eta gauzakiak: katalejoak, itsasorratzak, mapak... Baina, oroz gain, liburutegi zoragarria dauka etxeak, eta bertan, itsasoari buruzko liburu asko, eta itsas abenturazko eleberririk idatzi dituzten idazle handien obrak, ingeles idazleenak gehienbat: Conrad eta Stevenson, Marryat eta Poe...³

1. Itsasoari buruzko Barojaren testuak

Zalantzarik gabe, “itsaso nobelak” eleberririk saila osatzen duten lau liburuak dira itsasoari buruzko Barojaren testurik ezagunenak eta haren obraren ezaugarri nagusiak gordetzen dituztenak. 1911n argitaraturiko *Las inquietudes de Shanti Andía* da lau eleberririk horietako lehenbizikoa, eta 1923ko *El laberinto de las sirenas* bigarrena. Saileko azken bi eleberririk, *Los pilotos de altura* eta *La estrella del capitán Chimista*, lotura estua dute elkarrekin, urte bateko aldearekin argitaratu baitziren, 1929an eta 1930ean, hurrenez hurren; baina benetan batasuna ematen diena, bietan, alde edo moldeaz, protagonistaren papera betetzen duen pertsona da: abenturaz abentura “profesional” gisa bizi den “Bizargorri” txundigarria, alegia.

Abenturazko kontakizunak dira lau eleberririk horiek, itsasoan askatzen da, lauetan, kontakizunaren hari nagusia, eta duela ehun urteko euskal marinela dira lauetan protagonista: Andía eta Juan de Aguirre, Embil eta Chimista, Galardi... Era eta mota guztietako pertsonak igaro dira Barojaren eleberrietatik, baina aipatutako lau horietakoak gailendu badira, Barojak bizi-biziki, indar handikoak eta, eleberrietako heroi gisa, oso erakargarriak erretratatu zituelako da.

³ Liburu horien artean aipagarriak dira J. Alberich-en *Los ingleses y otros temas de Baroja*, Madril, Alfaguara, 1966, ingeles idazleen abenturazko eleberririk buruzko kapitulu jakingarria duena; L. Lecuonaren ikerlan bat: *Presencia de lo inglés en Pío Baroja*, Donostia, Instituto Dr. Camino, 1933; eta ingeles bibliografiari dagokionez, eraskin bat, liburutegiak gordetzen dituen ingeles autoreen liburuaren katalogoa dakarrena.

El laberinto de las sirenas eleberririk itsasoa, Mediterraneo itsasoa da, eta bertako abenturak, Juan Galardiren amodiozko abenturak dira, marinela Marseille-n, Napoli-n, Roccanera-n... bizitakoak.

Beste hirurak bazter eta amai gabeko ozeanoetan gertatzen dira.

Itsasoko eleberririk horiek abenturazko eleberririk tipikoak dira, eta D. Villanueva-k *Las inquietudes de Shanti Andía* eleberririk buruz esan zuen bezala, hurbilago daude ingelesez “romance” deiturikotik “novel”-etik baino⁴. Hau da, gertaera bitxiak, are ametssezkoak ere, jazotzen eta pilatzen dira kontakizun horietan, idazlearen ohizko denboratik eta espaziotik kanpo: bela untzien garaiko “itsaso zaharrea”, Atlantikoko eta Ozeano Bareko ur amaigabeetan, Txinako itsasoan.

Izan ere, Barojak zaletasun handia zion⁵ baliabide bat erabiltzen du lau eleberririk hauetan ere: inoren oroitzapenen balizko idatziak –hala nola Shanti Andíaren kontakizuna, Embil-en Itsasaldiko Egunerokoa edo Galardiren memoriak– eleberririk oinarritzat hartzea, eta gero, oroitzapen horiek berridaztea.


Julio Caro dioenez⁶, ordea, bada, egiaz, testu bat, Barojak eleberririk idazteko kontuan hartu zuena: idazleak esku artean erabili baitzuen deituraz Abaroa zeritzan XIX. mendeko euskal marinela baten egunerokoaren eskuizkribua, gero, alde batetik edo bestetik, sail horretako azken bi eleberririk idazteko baliagarri gertatu zitzaiona.

Baina idazleak Abaroaren egunerokotik eleberririk baterako baino gehiagorako gaia atera zuenez, bi idaztea erabaki zuen: *Los pilotos de altura* eta

⁴ *Las inquietudes de Shanti Andía*, Darío Villanuevaren argitalpena, Madril, Espasa Calpe, 1988, 17. orr. eta hurrengoak.

⁵ Ikus, bestela, *Memorias de un hombre de acción* eleberririk saillean erabiltako narrazio-estrategia.

⁶ C. f., Pío Caro Baroja, *Gula de Pío Baroja. El mundo Barojiano*, Madril, Caro Raggio / Cátedra, 1987, 100. orr.



Donostiako portua, Didier Petit de Meurwilleren gouachea, 1857 eta 1873 bitartean egin. Javier Satrustegiren bilduma.

Puerto de San Sebastián. Gouache de Didier Petit de Meurville, realizado entre 1857 y 1873. Colección Javier Satrustegui.

novela marina de aventuras: Conrad y Stevenson, Marryat y Poe...³.

1. Los textos barojianos del mar

Los más característicos y los más conocidos son, sin duda, las llamadas "novelas del mar", esa serie de cuatro, que se inicia en 1911 con Las inquietudes de Shanti Andía, a la que sigue en 1923 El laberinto de las sirenas, cerrándose con dos novelas a las que da una fuerte unidad no sólo la fecha

de publicación, 1929 para Los pilotos de altura y 1930 para La estrella del capitán Chimista, sino sobre todo el personaje que protagoniza de algún modo ambas novelas, ese emblemático "profesional" de la vida aventurera que es el desconcertante "Bizargorri".

Las cuatro novelas son relatos de aventuras, que tienen como espacio fundamental de la trama el mar, y como protagonistas esos marinos vascos de hace cien años, Andía y Juan de Aguirre, Embil y Chimista, Galardi..., cuyos retratos destacan, por

³ Puede verse, en el libro de J. Alberich Los ingleses y otros temas de Baroja, Madrid, Alfaguara, 1966, el capítulo dedicado a la novela inglesa de aventuras. Igualmente, el estudio de L. Lecuona, Presencia de lo inglés en Pío Baroja, San Sebastián,

Instituto Dr. Camino, 1993 y, por lo que se refiere a la bibliografía inglesa, el apéndice final con el catálogo de libros de autores ingleses que se encuentran en la biblioteca de Itzea.

La estrella del capitán Chimista. Beraz, asmoz itsasoa gai duten nobelen trilogia bat izatekoa zena lau eleberriko sail bat bilakatu zen azkenean. Baina ez dira lau eleberririk horiek itsasoa gaitzat duten Barojaren testu bakarrak. Bere lehen obran bertan –1900. urtean argitaraturiko *Vidas sombrías* kontakizun bilduman–, bada itsas giroko edo gaiko zenbait ipuin: “Playa de otoño”, “Angelus” eta “Grito en el mar” izenburukoak adibidez, edo arrantzaleen bizimodua irudikatzen duen beste labor bat, “A la pesca” izenburukoa, *Hojas sueltas*⁷ delakoan argitaratu zena.

Deskripzio moduko kontakizun labor-laburrak dira ipuin guztiak, eta horietan agertzen den itsasoa, Kantauri itsasoa beti, paisajearen funtsezko erreferentzia izaten da, pertsonen ikusi eta sentitu ez ezik, bizi ere egiten dutena, eta hala, beren sentimenduen, oroitzapenen edo ametsen metafora bihurturik azaltzen dena.

Adibidez, misterioz betetako “Grito en el mar” ilun, ia goibel horretan, Kantauri itsasoko ura labarriko haiz beltzen aurka burrunbaz hausten eta, oldarraldi horretan, aparrezko hodei handiak jaurtitzen ikusteak, zera esatera bultzatzen du narratzailea:

“Giza arimaren isla-edo da itsasoa; honen goraldia haren poza, beheraldia goibeldura...”

Eugenio de Aviranetaren abenturazko eta azpikeriazko bizimodua kontatzen duen *Memorias de un hombre de acción* eleberririk sailean ere bada itsasoa –Mediterrania beti– edo marinelen bizimodua agertzen duen eleberririk, baina “itsaso nobelak” deiturikoen aldean, garrantzi eta eragin gutxiago dute gai horiek.

La ruta del aventurero-ko “El convento de Monsat” kontakizuna da, dudarik gabe, guztietan jakingarriena; Barojak berak “Mediterranioko nobela”-tzat dauka.

Mediterrania eta itsaso horren ikuskaria azaltzen ditu berriro *Memorias de un hombre de acción* eleberririk saileko VII. liburuan, *Los contrastes de la vida* izenburuz argitaratu zuen eleberririk “La aventura de Missolonghi” kontakizunean hain zuen ere. Aviranetaren bidaia bat kontatzen da liburu horretan, Gibraltar-etik Alejandriara eta handik Turkiara egin zuena, bertan lord Byron-en aginduetara jartzeko eta, Grezia-Turkia arteko gerraren kariatz, greziarzaileen alde egiteko.

Mediterrania itsasoa da halaber, Barojak “Las furias” izenburuz argitaratu zuen *Memorias de un hombre de acción* eleberririk saileko XII. liburuko kontagaiaren gertalekua, baina itsasoa ordez hirietan –Tarragonan, Bartzelonan, eta batez ere Malagan– kokaturik dago nobelaren kontagaia.


Bada, azkenik, Barojaren testu bat, oso testu laburra –bere lan guztien bildumako V. liburuko hiru orrialde–, ez narrazioa, saiakera baizik, oso adierazgarria izan daitekeena itsasoari buruzko Pío Barojaren ikuspegia ezagutzeko, eta baita, guretzat jakingarriago dena gainera, denboraren joanean literaturak nola aztertu duen itsasoa –Barojaren arabera ikusitako eta definitutako itsaso hori– jakiteko. “El mar y el marino” du izena testuak, eta 1935. urtean *Vitrina pintoresca* izenburuz argitaratu zen artikulu edo saiakera laburren liburukoa da⁸.

2. Pío Barojaren itsasoa

Barojaren itsasoa abenturaren itsasoa da. Ondo asko definitzen du Shanti Andiak: arrantzalearentzat edo “marinel gizajoarentzat” itsasoa, etsai izan arren, bizi betegarri eta zorionbide da; engainatzen eta balakatzten, itotzen eta liluratzen duen tiranoa. Baina

⁷ *Hojas sueltas*, I, Madril, Caro-Raggio, 1972, 330-333. orr.

⁸ *Obras Completas*, VII, 785-787. orr.



El laberinto de las sirenas liburuko lehen argitalpena. Ed. Caro Raggio. Madril, 1923. Primera edición de El laberinto de las sirenas. Ed. Caro Raggio, Madrid, 1923.

su viveza y por su fuerza, por el atractivo que ejercen como héroes novelescos, en la rica galería de los personajes barojianos.

El mar de El laberinto de las sirenas es el Mediterráneo y las aventuras son sobre todo las amorosas del marino Juan Galardi, en Marsella, en Nápoles, en Roccanera...

El escenario de las otras tres novelas son los océanos inmensos e infinitos.

Las novelas del mar son típicamente novelas de aventuras y responden, como acertadamente ha señalado D. Villanueva a propósito de Las inquietudes..., al "romance" de los ingleses, más que a la "novel"⁴. Es decir, se trata de relatos donde se suceden y acumulan sucesos peregrinos, fantásticos a veces, y que tienen lugar en un tiempo y un espacio alejados de los del escritor: el "mar antiguo" de la navegación a vela, por las aguas infinitas del Atlántico y el Pacífico, del mar de la China.

Baroja utiliza en todos los casos ese recurso al que tan aficionado es, y que consiste en simular la existencia, como base de su novela, de textos de carácter memorial, el relato de Shanti Andia, el Diario de Navegación de Embil o las Memorias de Galardi, que él se limita a transcribir.

Sin embargo, Julio Caro⁶ señala que la existencia de un texto previo sobre el que Baroja construye su novela es real, en el sentido de que tuvo en sus manos el manuscrito del diario de un marino vasco del XIX, apellidado Abaroa, que le inspiró de alguna manera el material para las dos últimas novelas de la serie.

La materia que le proporcionaba al escritor el diario de Abaroa resultó excesiva para una sola novela, lo que le llevó a Baroja a escribir dos, Los pilotos de altura y La estrella del capitán Chimista. La

proyectada trilogía del mar se convertía así en una serie de cuatro novelas.

Pero estas cuatro novelas no agotan la presencia del mar como motivo en los textos barojianos. Porque ya en su primera obra -el conjunto de relatos de Vidas sombrías, publicado en 1900- algunos de los cuentos son de tema o de ambiente marino; recordemos, por ejemplo, los que llevan por título "Playa de otoño", "Angelus", "Grito en el mar", o esa breve estampa de pescadores, titulada "A la pesca", y recogida en Hojas sueltas⁷.

Se trata en todos los casos de relatos muy breves, de un fuerte carácter descriptivo, y donde el mar, siempre el Cantábrico, es una referencia fundamental del paisaje, un paisaje no sólo visto y sentido, sino también experimentado por los personajes y convertido así en metáfora de sus sentimientos, de sus recuerdos o de sus sueños.

Por ejemplo, en "Grito en el mar", que tiene un tono misterioso, sombrío y casi lúgubre, el espectáculo del Cantábrico rompiendo con estruendo contra las rocas negras del acantilado y lanzando en la embestida altas nubes de espuma le hace decir al narrador:

"El mar es como una reflexión del alma del hombre, su flujo es su alegría; su reflujo, la tristeza..."

En las Memorias de un hombre de acción, sobre la vida aventurera y conspiradora de Eugenio de Aviraneta, hay también algunas novelas en las que se hace presente el mar, siempre el Mediterráneo, o la vida marinera, aunque ciertamente con una función y un significado menos decisivo que en las "novelas del mar".


El texto más interesante es, sin duda, el relato que lleva por título "El convento de Monsant", de La ruta del aventurero, que el propio Baroja califica como "novela del Mediterráneo".

⁴ Las inquietudes de Shanti Andia, Edición de Darío Villanueva, Madrid, Espasa Calpe, 1988, p.17 y ss.

⁵ Baste recordar la estrategia narrativa de las Memorias de un hombre de acción.

⁶ Cf. Pío Caro Baroja, Guía de Pío Baroja. El mundo Barojiano, Madrid, Caro Raggio / Cátedra, 1987, p.100.

⁷ Hojas sueltas, I, Madrid, Caro-Raggio, 1972, p. 330-33.



Los pilotos de altura liburuko lehen argitalpena. Ed. Caro Raggio, Madril, 1929.

Primera edición de Los pilotos de altura. Ed. Caro Raggio, Madrid, 1929.

“Guretzat, itsas barruko marinelenzat, itsasoa ibilbi-de zaigu bereziki, norabaiteko bidea ia soilki. Baina zer bide!”

Itsasoaz eta itsasoko gauzez idatzi duten beste euskal narraziogileek Barojarenaz ez bezalako ikuspuntutik aztertu dute gaia. Ignacio Aldecoa-k –*Gran Sol* edo *Parte de una historia*– adibidez, lantokitzat dauka itsasoa, eta bertan, arrantzaleak dira heroiak. Aitzitik, Ramiro Pinilla-ri –*Seno, Doña Toda, Andanzas de Txiki Baskardo*– zera da interesatu zaiona: mitoen itsasoa, itsas ama eta itsasora itzultzea jatorri itzultzearekin berdintzea. Pinillaren itsasoko heroiak euskal nekazari soilak dira; hauek denboran barrena abiatzen dira, beren denboran barrena, itsasoaraino, hasieraren bila.

Barojarentzat, berriz, abenturaren gertalekua da itsasoa, edo, hobeto, Shanti Andíaren hitzetan esateko, abentura burutzeko bidea; itsas barruko unti kapitainen eta pilotoen abentura, itsaslapurrena eta beltz tratulariena...

Izan ere, Barojak ez baitu bere garaiko itsasoan kokatzen eleberria, eta XIX. mendearen erdialdera jotzen du, itsaslapur galeoien edo “ebano” saleosleen garaiko itsasora, idazleak “itsaso zaharra” deitzen duen horretara, alegia.

Itsaso hori da, hain zuzen ere, *Las inquietudes de Shanti Andía* eleberriko protagonistak (lehen liburuko bigarren atalean) Luzaron, bere sorterriko bakartasunean, eztizko urrutitasun min batez oroitzen duena; itsasoa aldatu zaigu –dio bere artean Shantik– untzia aldatu zaigulako, marinela ere aldatu zaigulako; behialako masta sail lirain haieetatik, txirrika ziriei eusteko haga motzak besterik gelditzen ez direlako.

Bela untzien ordez lurrin untiak erabiltzeak aldarazi du itsasoa. Bela untiak “jaungoikozko zerbait zuen”, “erlijio batek edo poema batek bezala”, eta haizearen indarrak eta haize ohialetan pausatutako Aingeru Goardako misterioitsu batek bulztaturik zebilen. Orain, ordea, ikatzak baztertu

ditu Aingeru Goardako poetiko haren hegoak, eta baita itsasoko bizimodua aldatu ere.

Shanti Andía bere itsas ibilaldien gertaleku arriskutsu eta aldi berean abegikor izan den itsaso zahar horrekin ametsetan bizi den bezala bizi da Pío Baroja ere lehengo itsasunzi soilekin ametsetan: izadiarekin halako batasun bat eratuz bizi eta, gaurkoa bezain itsas on edo bare batean ez bada ere, “bai ordea ederrago, biziago eta gaztexeago” zen itsasoan zehar zebiltzan horiekin.

Pío Barojak itsaso nobelak idatzi bazituen, ez zituen soilik zorren kitagarri gisa idatzi, Kantauri itsasoaren ertzean jaiotzeagatik edo familiaren aspaldiko marinel tradizioari eusteagatik; ez eta irakurle gisa atseginez bete eta idazle gisa gehientsu maite izan zuen eleberri jeneroa –abenturazko nobelak– lantzeko aukeragatik ere; itsaso nobelak idaztea omenaldi bat ere bada, Pío Barojak burdinazko eta ikatz eta lurrin indarrez dabiltzan itsasuntzien aurreko itsaso zaharraren min ez eginikoa; izan ere, nabigatzeko tresna modernoak darabiltzan oraingoari, ordukoa baino hobea eta zibilizatuagoa izan arren, Shanti/Baroja-k “ikuskitun negargarri” irizten baitiote.

Eta benetako negar samina dario, kapituluaren amaian, aurrerapenaren eta zibilizazioaren ekaitzaldi galgarriak erasota babesik aurkitu ezinik dabiltzan itsaso zaharreko itsasuntziei eskaintzen dien dei liriko horri...

“Agur, masta-sail lerdin eta bela zuriok! Agur, fragata lirainok, branka hain txutik zenutenok eta ur-epailearen apaingarri katamalo irudia! Agur, urka biribil eta bela-bergantinok! Zuen suntsitu beharrak penetan nauka! Olatu urdinetan zutiturik, zure begi berde-jarioz gure begira egon ohi zinen lamia atsegingarria, ez zaituzte gehiago ikusiko!”⁹.

“El mar y el marino” izenburuz argitaraturiko saia-kera laburrean itsasoari buruzko literatur historia moduko bat egiten digu Pío Barojak; itsaso nobe-

⁹ *Las inquietudes de Shanti Andía*, Obras Completas, II, 1001. or.

El Mediterráneo y su contemplación y descripción vuelve en *Los contrastes de la vida*, tomo VII de las *Memorias de un hombre de acción*, y en concreto el relato que lleva por título *La aventura de Missolonghi*, donde se narra el viaje de Aviraneta de Gibraltar a Alejandría y luego a Turquía, para ponerse a las órdenes de lord Byron y al servicio de la causa filo-helena en la guerra greco-turca.

Mediterráneo es también el marco de la acción de *Las furias*, tomo XII de las *Memorias de un hombre de acción*; pero no es el mar ni el viaje, sino las ciudades -Tarragona, Barcelona y, sobre todo, Málaga- lo que constituye el ambiente en que se inscribe la acción de la novela.

Hay, por fin, un texto de Baroja que no pertenece a su obra narrativa, sino a los ensayos, texto muy breve, apenas tres páginas en el tomo V de las *Obras Completas*, pero que puede ser emblemático de la visión que Pío Baroja tiene del mar y, lo que aquí nos puede interesar más, del tratamiento que del mar, tal como nuestro autor lo ve y lo define, ha venido haciendo la literatura a lo largo de los tiempos. Se trata de *"El mar y el marino"*, de *Vitrina pintoresca*, libro de artículos o ensayos breves, publicado en 1935⁸.

2. El mar de Pío Baroja

El mar barojiano es el mar de la aventura. *Shanti Andía* lo define muy bien cuando señala que para el pescador o el "pobre marino" el mar es enemigo y sin embargo, llena su existencia y hace su felicidad; el mar es un tirano que engaña y adula, ahoga y seduce. Pero

"Para nosotros los marinos de altura el mar es principalmente una ruta, es casi exclusivamente un camino. ¡Pero qué camino!"

Otros narradores vascos que se han interesado también por el mar lo han visto desde una perspectiva diferente; así, por ejemplo, el mar de Ignacio Aldecoa -el de Gran Sol o Parte de una historia- es el mar del trabajo y sus héroes son pescadores. A Ramiro Pinilla -Seno, Doña Toda, Andanzas de Txiki Baskardo- le ha interesado el mar del mito, el mar-madre, la vuelta al mar como el retorno al origen. Sus héroes son elementales campesinos vascos, que remontan el tiempo, su tiempo, hasta el mar, en busca del principio.

Para Baroja el mar es el espacio, o mejor, como dice *Shanti Andía*, la ruta de la aventura; la de los pilotos y capitanes de altura, la de los piratas y negreros...

Porque Baroja no sitúa la acción de sus novelas en un mar contemporáneo, sino que se remonta en el tiempo hasta la mitad del XIX, hasta ese mar de galeones de piratas o de mercaderes de "ébano", que el escritor llama "el mar antiguo".

Es el mar que, capítulo segundo de *Las inquietudes...*, evoca el protagonista, desde la serena y nostálgica lejanía de su retiro en su Lúzaro natal; es un mar -piensa *Shanti Andía*- que cambia, porque cambia el barco, porque cambia también el marino; porque de aquellas airosas arboladuras no quedan ahora más que los cortos vástagos para sostener las poleas.

La sustitución del barco de vela por el barco de vapor hace que el mar sea diferente. El barco de vela era "como una creación divina", "como una religión o un poema", impulsado por el viento y por un misterioso ángel de la guarda, plantado en la lona de las velas. Ahora, el carbón ha reemplazado al poético ángel de la guarda y ha cambiado las condiciones del mar.

La nostalgia de *Shanti Andía* por ese mar que ha sido el espacio arriesgado y acogedor a un tiempo de sus andanzas marineras es también la nostalgia

⁸ O.C., VII, p.785-787.

Ricardo Barojak *Las inquietudes de Shanti Andía* (1920) libururako egindako ilustrazioa.

Ilustración de Ricardo Baroja para Las inquietudes de Shanti Andía (1920).



letan eta batez ere behin eta berriz aipatu dugun *Las inquietudes de Shanti Andía* eleberriko “Itsaso zaharra” deritzan kapituluan iraisean azaldutako ideia batzuek baliatzen da horretarako.

Literaturaren ikuspuntutik aztertuta, hiru aldi bereizten ditu Barojak itsasoaren historian: alegiazkoa, zaharra eta modernoa: alegiazkoa, eta bere “*sirenak, tritoiak eta nereidak*”; itsaso zaharra, eta bere “*haize oihal sarriko untziak, abenturak, matxinadak, itsaslapur eta beltz tratulariak*”; itsas modernoa, eta bere “*helize bizkorreko makinak eta haririk gabeko telegrafia*”.

Alegiazko itsasoa –Mediterrania eta ingurumariak– mitologia klasikoaren itsasoa da, urrezko ardilarruaren bila dabiltzan Jason eta Argonautena, Ulises eta Eneasen menturazko itzulerana –bata Itakara bestea Labiniako kostaldeetara–, *Mila gau eta beste gau bat* ipuinetako itsasoa...

Itsaso zaharra eskandinaviar eta normandiarren espedizioetako itsasoa da, bale arrantzale euskaldunena, esploradore eta konkistadoreena geroago, eta handik gaur egun arterainokoa.

Itsas modernoa mekanikaren itsasoa da, itsasuntzia “ia guztizko” makina bilakatu den garaikoa.

10 *Obras Completas*, V, 785. orr.

Honela laburbiltzen du Barojak itsasoaren literatur teoria moduko hau:

“*Alegiak, misterioa eta mekanismoa lirateke guretzat itsasoaren hiru literatur aldiak*¹⁰”.

Baina, Barojak dioenez, marinelak ez du hiru aldi horietako batean ere inolako protagonismo literarioa izan; aitzitik, halako “ilunantz” batek estali du. Literaturak beste lanbide batzuek arduraren berezia agertu duen bezala, misterioz beteriko itsaso zaharraren garaiko itsasoak, itsastarrek eta marinelek ez dute idazleen arreta edo oharatsun apurrik merezi izan. Barojarentzat, berriz, idazleek atzendutako garai hori da hain zuzen ere garairik jakingarriena¹¹.

Oso berandu, XIX. mendearen erdialdean edo, zabaldu zitzaion itsasoari literaturan sarrera; hala ere, orduko liburuak, gehiago ziren zientzia gaiko liburuak literaturakoak baino. Baina, handik aurrera, idazleek literatur gai berri bat aurkitu zuten itsasoan. Idazle horien artean aipagarri dira Verne eta Loti, Kipling eta Conrad, itsaso modernoaz, itsaso “geroago eta arruntago, geroago eta epelago” batez jardun zutenak.

11 Hau ez dator bat Barojak berak lehenxeago esandakoarekin, itsas gaiko hainbat literatur lan aipatu baititu, ingeles idazleen itsaso nobelak batik bat: Defoe, Poe, Kipling, Stevenson, Conrad, Walter Scott edo Marryat.



La estrella del capitán Chimista liburuaren lehen argitalpena. Ed. Caro Raggio, Madril, 1930.

Primera edición de *La estrella del capitán Chimista*. Ed. Caro Raggio, Madrid, 1930.

de Pio Baroja por unos barcos elementales, que forman una misma cosa con la naturaleza con la que viven y funcionan, por un mar que si no era tan bueno ni tan pacífico, si era "más hermoso, más pintoresco y un poco más joven".

Las novelas del mar no son sólo el débito a haber nacido a la orilla del Cantábrico o esa lejana tradición marina familiar; o la ocasión de cultivar ese género novelesco que hizo las delicias del Baroja lector y fue también uno de sus preferidos como escritor, la novela de aventuras; es también el homenaje nostálgico que Pio Baroja rinde a ese mar antiguo que está más allá de los barcos de hierro, del carbón y del vapor, de los modernos instrumentos de navegar, de un mar que es mejor y más civilizado, pero que para Shanti / Baroja no deja de aparecer como un "espectáculo lamentable".

Y lamento es en verdad esa lírica invocación, al final del capítulo, a los barcos del mar antiguo, impotentes para capear el fatal temporal del progreso y la civilización...

"Oh, gallardas arboladuras, velas blancas, fragatas airoosas con su proa levantada y su mascarón en el tajamar! ¡Redondas urcas, veleros bergantines! ¡Qué pena me da el pensar que váis a desaparecer! ¡Amable sirena, que te levantabas sobre las olas azules para mirarnos con tus ojos verdes, ya no te verán más!"⁹

En el breve ensayo *El mar y el marino* Pio Baroja nos da una especie de historia literaria del mar, repitiendo algunas ideas expuestas de manera general en las novelas del mar y, sobre todo, en ese capítulo repetidamente citado, "El mar antiguo", de *Las inquietudes de Shanti Andía*.

⁹ *Las inquietudes de Shanti Andía*, O.C., II, p.1001.

¹⁰ O.C., V, p.785.

Distingue tres periodos en la historia del mar, desde un punto de vista literario: el fabuloso, el antiguo y el moderno: el fabuloso, "con sus sirenas, sus tritones y sus nereidas"; el mar antiguo, "con sus barcos de velas complicadas, sus aventuras, sus sublevaciones, sus piratas y sus negreros"; el mar moderno, "con sus máquinas de hélices poderosas y su telegrafía sin hilos".

El mar fabuloso -el Mediterráneo y sus proximidades- es el mar de la mitología clásica; de Jasón y los Argonautas en busca del vello de oro; de Ulises en el retorno aventurero a Itaca, de Eneas hasta las costas lavinias; el de las fantasías de *Las mil y una noches*...

El mar antiguo es el de las expediciones de escandinavos y normandos, de vascos a la pesca de la ballena; el de los exploradores y conquistadores más tarde, hasta llegar a nuestro tiempo.

El mar moderno es el de la mecánica, cuando el barco es una máquina "casi perfecta".


Baroja resume esta especie de teoría literaria del mar:

"Fábula, misterio y mecanismo serían para nosotros las tres etapas literarias del mar"¹⁰.

Y señala que en ninguna de estas tres etapas ha sido el marino un verdadero protagonista literario, sino que ha quedado oculto en una "semioscuridad". Mientras que otras profesiones han gozado de una atención abundante por parte de la literatura, el mar, el marino y el marinero, en esa época de misterio que es la del mar antiguo, la más interesante según Baroja, han escapado al interés y a la observación de los escritores¹¹.

Sólo muy tarde, a mediados del siglo XIX, entra de lleno el mar en la literatura, pero con libros científicos más que literarios. Pero a partir de aquí se descubre el océano como tema literario: Verne y

¹¹ Esto es un tanto contradictorio con lo que el propio Baroja acaba de decir, cuando hace un mínimo recorrido por algunos títulos literarios de tema marítimo y se detiene sobre todo en la novela marina inglesa, desde Defoe y Poe a Marryat, pasando por Kipling, Stevenson, Conrad o Walter Scott.



Vidas sombrías liburuko lehen argitalpena (Ed. M. Poveda, Madril, 1900), *Angelus*, *Playa de otoño* eta *Grito en el mar* kontakizunak zekartzan tartean, beti itsasoa agertzen dela.

La primera edición de Vidas sombrías (Ed. M. Poveda, Madrid, 1900) incluía varios relatos en los que el mar estaba presente: *Angelus*, *Playa de otoño* y *Grito en el mar*.

Itsasoak eta marinelen bizitzak literaturaren arreta galdu dutela iruditzen zaio Barojari; horregatik idazten ditu itsaso zaharrari buruzko eleberririk, jadanik izaterik ez duen itsaso hori literaturaren fantasiaz berreskuratzeko.

Barojaren marinelek mundu osoko itsasbideak kurrutzen dituzte, abenturaz abentura: Andiarekin Cadizetik Filipinetara, Esperantza Oneko lurmuturra inguratuz, eta Liverpooletik Habanara gero; Embil eta Chimistarekin Valparaísotik Melbourne-ra. Horregatik mintzo da honela Shanti Andía:

“Mundua inguratu eta Itsaso Bareko uhartetako bizigiroaren atseginez gozatu ondoren; Atlantikoko hurakanekin, Txinako itsasoko tifoiekin eta Esperantza Oneko lurmuturreko izotz-uharteekin borrokan jardun eta gero...!”¹².

Barojaren marinelek abentura burutzeko ibilbide baderitzate itsasoari, grinez eta tentsioz beterik bizi dute beti abentura hori, etengabeko borrokan eta dialektikan itsasoarekin eta itsasoko arriskuekin (ekaitzak, naufragioak...), eta batez ere, itsasgizonekin: matxinadak, itsaslapur untzien esetsaldiak, beltz tratularien itsasuntzien atzetik dabilzan ingeles itsas untzidiko fragaten jazarpenak... Izan ere, marinela xehe hauentzat, itsasoko bizitza ez da soilik abentura bat, gerra ere bada.

Hori da behintzat *Los pilotos de altura* eleberriko Embil zaharrak gogoan darabilena:

“Itsasoko bizitzan zelata eta zelata besterik ez da (...); borroka lazgarria baino ez dut ikusi nik itsasoko bizitzan; eta lehia horretan, ziren arma guztiak erabiltzen zituzten lehiakideek: indarra, adorea, buru-argitasuna, azpikeria eta gezurra”¹³.

Baina “itsasoak eta zorioneko abentura bizitzeko aukerak mendean harrapatzen zaituzte”; hala ere, eta Embilek dioen bezala, itsasoa ibiltzeko “afizio

handia behar da. Adorerik eta kemenik gabeko jendeak hobe du lehorrean geratzea...”.

Euskal marinelen itsasorako grina hori ez da abentura bizi nahi huts bat; izan ere, Embilek berriro esaten duenez, “behartasunetik bat-batean libratzeko” aukera ere eskaintzen baitu itsasoak. Arrazoi horrek bultzatuta, beltz tratularien itsasuntzietako buruzagi izatea bezalako lan bigun-garriak hartzea iristen dira gure marinelek.

Barojak itsasoaz duen ikusmoldean, bereizkuntza argi bat egin daiteke bi itsas moten artean: Atlantikoa, Ozeano Barea eta Txinako itsasoa alde batetik, eta Mediterraneo bestetik. Lehenbiziko hirurak abenturaren itsasoen eredu jatortzat ditu. Mediterraneo, berriz, arriskurik gabeko itsasotzat dauka, eta duen tradizioagatik, ingurumarietako paisajearen bereizgarriagatik, eta hango bazterretan bizi den jendearen izpirituagatik ederresten du.

El Mayorazgo de Labraz eleberrian, Maiorazkoak eta Marinak Labraz-tik ihes egiten dute, Sortalderantz, Mediterraneoaren bila. Egun batean, arratsaldean, muino batetik begira daudela, hodeiartzarekin nahasten den itsasoaren urdingunea eta kostaldea bereizten dituela iruditzen zaio Marinari: Mediterraneo da.


“Hango lurralde hura, lipar batez begiztatua, eguzkiaren lurraldea zen, hain denbora luzean bila ibilitako lur agindu hura”¹⁴.

“El convento de Monsant” izenburuko atalean, Ondarako herriaren deskripzioa egiten duenean, herriari darion edertasun barea eta argitasuna azpimarratzen ditu Barojak, hango gelditasuna eta armonia, sortaldeko hiriei dariena bezalakoa dena: “lurraren eta itsasoaren arteko musu leunak” ernea. Mediterraneo argia da¹⁵, ez argi fisikoa soilik, gogoarena ere bai neurri batean; baz-

¹² *Las inquietudes...*, *Obras Completas*, II, 1050. or.

¹³ *Obras Completas*, II, 1344. or.

¹⁴ *Obras Completas*, I, 161. orr.



Ricardo Barojak Pío Barojari egindako erretratu, *Las inquietudes de Shanti Andía* liburuko barruko azalean azaldu zen 1920an.

Retrato de Pío Baroja por Ricardo Baroja que figura en la portadilla de la edición de *Las inquietudes de Shanti Andía* de 1920.

Loti, Kipling y Conrad, que se ocupan del mar moderno "cada vez menos típico y de menos carácter".

Baroja piensa que tal vez el mar y la vida del marino han perdido interés para la literatura, por lo que sus novelas del mar antiguo vendrían a ser la recuperación, mediante la fantasía literaria, de un mar que ya no existe.

Los marinos de Baroja recorren con sus aventuras todas las rutas del mundo: con Andía, de Cádiz a Filipinas por el Cabo de Buena Esperanza o de Liverpool a La Habana; con Embil y Chimista de Valparaíso a Melbourne; por eso puede exclamar Shanti Andía:

"¡Después de haber dado la vuelta al mundo y respirado el ambiente voluptuoso de las islas del Pacífico; después de haber luchado con los huracanes del Atlántico, con los tifones del mar de la China y los bancos de hielo del Cabo de Buena Esperanza...!"¹²

Si el mar es, para los marinos barojianos, la ruta de la aventura, ésta es vivida en todos los casos con pasión y con tensión, en una dialéctica y en una lucha continua con el propio mar y sus peligros, tempestades, naufragios..., y sobre todo entre los hombres del mar: motines, persecuciones de barcos piratas o de fragatas de la marina inglesa a la busca de barcos negreros... Porque la vida en el mar, para estos marinos elementales, no es sólo una aventura, sino una guerra.

Eso piensa al menos el viejo Embil de Los pilotos de altura:

"La vida en el mar no es más que una serie de emboscadas (...) yo no he visto en la vida del mar más que una lucha terrible, en la cual los contrincantes empleaban todas las armas: la fuerza, el valor, la inteligencia, la intriga y la mentira"¹³.

¹² *Las inquietudes...*, O.C., II, p.1050.

¹³ O.C., II, p.1344.

¹⁴ O.C., I, p.161.

Pero "el mar y la posibilidad de la aventura dichosa agarran", aunque para andar por el mar, como señala Embil, "hay que sentir afición. La gente sin valor ni arrestos se puede quedar tierra adentro..."

Esta pasión del mar de nuestros barojianos marinos vascos no se debe a un simple deseo de aventura; está también el dato, y Embil lo repite, de que el mar ofrece posibilidades de "salir de una vez de pobre rápidamente", lo que lleva a nuestros marinos a aceptar el trabajo odioso de capitanear barcos negreros.

En el tratamiento que Baroja hace del mar, se puede establecer una clara distinción entre el Atlántico, el Pacífico o el mar de la China, por un lado, y, por otro, el Mediterráneo. Aquéllos son, de manera ejemplar, mares de la aventura; éste, el Mediterráneo, es un mar que no aparece vivido de manera arriesgada, sino visto o interpretado por su tradición, por las características del paisaje que lo constituye, por el espíritu de las gentes que habitan sus orillas.

En El Mayorazgo de Labraz, el Mayorazgo y Marina huyen de Labraz hacia el Este, buscando el Mediterráneo; hasta que una tarde, desde una cumbre, Marina cree distinguir la costa y la mancha azul del mar, confundida con el horizonte: es el Mediterráneo:

"Aquella tierra, entrevista un momento, era la tierra del sol, la tierra prometida, adonde iban marchando desde hacía tanto tiempo"¹⁴.

En la descripción que en "El convento de Monsant" hace Baroja de la pequeña Ondara, subraya su calma hermosura y su luz, su inmovilidad y su armonía de ciudad oriental, nacida "del beso suave de la tierra con el mar". El Mediterráneo es luz¹⁵, pero no sólo luz física, sino de alguna manera luz espiritual, ya que en su paisaje Baroja vis-

¹⁵ Evidentemente, la luz forma parte de las descripciones que Baroja hace del paisaje de todos los mares, pero es la luz la que define por antonomasia el paisaje mediterráneo.

ter horietan Barojak bere kultur tradizioaren klasi- zismo guztia antzematen baitu, Greziakoa eta Erromakoa, eta Mediterraneo itsasaldeko Afri- kakoa.

La ruta del aventurero liburuan eta batez ere *Los contrastes de la vida* deiturikoan egiten du Barojak Mediterraneoaren deskripzioa, ez bakarrik itsasoarena, baita kostalde osoan zehar eratzen den munduarena ere, eta halako paralelismo bitxi bat egiten du Atlantikoarekin:

“Atlantikoko kostaldetik iritsitako gizon batentzat –dio La ruta del aventurero delakoan–, Mare Nostrum itsasoko ertzetan bada beti ustekaberen bat gordeta, irakaspen-itxura hartzen duena batzue- tan. Itsasbaterrean etengabe kantuan ari diren latin itsasoaren ur urdin hauetan, bizimodu arina eta mal- gua darama gizonak. Han, inoiz, azalekoa dirudi beste toki batzuetan sakona dirudiena; han itsasgo- rak ez du gizona egunero mehatxatzen, ozeanoan bezala, eta giza bizitza lurraren –aberriaren– eta hiriaren elkar ukitze gozoan hazten da; itsasoa, arraunez zein haize-oihalez munduko ibilbide bihur- turik...”¹⁶

Los contrastes de la vida delakoan, askotan aipa- tzen da ideia hau: Atlantikotik Mediterraneoan igar- rotzea mundu batetik bestera joatea bezala da:

“diharduen eta dabilen mundu batetik mundu disti- ratsuago, geldiago eta hilago batera joatea”¹⁷.

Eta Barojak, azalpen luze bezain eder batean, bi itsaso horien arteko konparazioa egiten du, bero- rien paisaje fisiko zein izpirituzkoak, mitologiak, berorietan bizi diren gizonak... erkatuz.

¹⁵ Jakina, Barojaren itsas deskripzio guztietan agertzen da argia paisajearen osagarri gisa, baina Mediterraneoan, argia bera da paisajea.

¹⁶ *Obras Completas*, III, 652. orr.

¹⁷ *Obras Completas*, III, 838. orr.

Hala, Mediterranioko paisajea gardena eta garbia den bezala, Ozeanokoa lainotan eta forma nahasi lausotan ageri da. Mediterraneoan “gauza guztiei tradizioa eta historia dariela dirudi”, Atlantikoan “bat-batekotasuna eta berritasuna”; “Mediterranioa bakea eta armonia da; Atlantikoa borroka eta kontraesana”; mitologia ere desberdi- na dute: Atlantikokoa behinolako itsaso arrisku- tsuak utzitako arrastoagatik “lazgarria” den beza- la, Mediterraniokoa “gardentasun eta hots handiagokoa da: sirenak, ninfak, delfinak...”; Mediterraneo klasikoa da, eta Atlantikoa, berriz, erromantikoa.

Eta hain desberdinak izanik itsasoak, bertan hazi- tako gizonak ere desberdinak dira:

“Mediterranioko gizakia espresio zuzena da, eginda- ko formula; Atlantikoko gizakia, berriz, moldeatu gabeko oldarra”¹⁸.

Mediterranioa ez da, eta ezin daiteke izan, aben- turarako itsasoa. Horregatik, *El laberinto de las sirenas* eleberriko Juan Galardi itsasgizonaren abenturak, Chimista edo Embilenak ez bezala, lehorrean bizitako amodiozko abenturak dira gehienbat¹⁹.


3. Barojaren itsasoko jendea

Barojaren eleberrietako itsasoan bizi den jendea itsas barruko marinel jendea da, kostatik gertuko itsasketan dabilen abenturazale jendea, baina aukera egokitzuz gero, beltzen tratuan eta lapurre- tan ere aritzen dena.

Barojaren itsasoan ez da arrantzalerik, kontakizu- naren hari nagusiari erantsitako aipamentxoren

¹⁸ *Obras Completas*, III, 838-839. orr.

¹⁹ Horrek ez du esan nahi beste eleberririk horietako abenturak beti itsasoan gertatzen direnik, baina *El laberinto de las sirenas* eleberraren gertalekua ez da *Los pilotos de altura* edo *La estrella del capitán Chimista* eleberriena.



Las inquietudes de Shanti Andía (1920) libururako Ricardo Barojak egindako ilustrazioa.

Ilustración de Ricardo Baroja para *Las inquietudes de Shanti Andía* (1920).

lumbra todo el clasicismo de su tradición cultural, la de Grecia y Roma, incluso la del África mediterránea.

La descripción del Mediterráneo, y no sólo del mar, sino del mundo que se constituye en sus cos-

16 O.C., III, p. 652.

tas, es hecha por Baroja, en La ruta del aventurero y sobre todo en Los contrastes de la vida en un curioso paralelismo con el Atlántico.

“Para un hombre llegado de las costas del Atlántico -dice en La ruta del aventurero - las orillas del Mare Nostrum guardan siempre una sorpresa que a veces toma aspecto de lección. En estas aguas azules del mar latino, que cantan eternamente en las costas, el hombre vive una vida ligera y elástica; allá, a veces, parece superficial lo que en otras partes parece profundo; allá la marea no amenaza constantemente al hombre como en el océano, y la vida humana se desarrolla en el contacto plácido de la tierra, que es la patria y la ciudad; el mar, que por el remo o por la vela se convierte en el camino del mundo...”¹⁶.

En Los contrastes de la vida, se repite la idea de que pasar del Atlántico al Mediterráneo es como ir de un mundo a otro,

“de un mundo de actividad y movimiento a un mundo más suntuoso, más inmóvil y más muerto”¹⁷.

Y Baroja desarrolla una extensa y hermosa comparación entre ambos mares, en lo referente al paisaje, físico y espiritual, a la mitología, a los hombres...

Así, el paisaje mediterráneo es claro y limpio, mientras el del Océano está hecho de nieblas y de formas confusas y vagas; en el Mediterráneo “todo parece tradición e historia”, en el Atlántico, “improvisación y novedad”; “el Mediterráneo es paz y armonía; el Atlántico, lucha y contradicción”; también las mitologías son diferentes, porque mientras que la del Atlántico es “hórrida”, como resto de los tiempos en que el mar era un peligro, la del Mediterráneo es “más clara y más solemne: sirenas, ninfas, delfines...”; el Mediterráneo es clásico y el Atlántico, romántico.

17 O.C., III, p. 838.

batean ez bada. Hala nola, *La ruta del aventurero* eleberrian, Ondarako arrantzaleak bizi diren auzoaren deskripzio laburra egiten duenekoan; edo *El laberinto de las sirenas* eleberriko bukaera aldeko kapitulu batean, Roccanerako marinelek arrantza-leen zaindariari, Karmengo Amari, eskaintzen dioten prozesioa azaltzen duenean; edo Juan Galardik, Mediterranioko kostaldean, Roberto O'Neil untziburu dela, "Argonauta" itsasuntzian egiten duen bidaian, koral arrantzaleen txalupatxo dohakabe bat topatzen duenean. Arrantzale girokoak dira, halaber, "Angelus", "A la pesca" eta gisako beste ipuin batzuetako marinelen bizitzaren irudi moduko azalpen laburrak.

Baina Barojaren itsasoko protagonistak nahia nahiez abenturazale behar du izan; eta protagonista paper hori betetzeko, zein itsas barruko marinela baino egokiago? Bai Barojak berriro sortu nahi duen eleberri mota horrekin kontraesanean ez erortzeko, bai don Plok euskaldunen itsas tradizioaren lekukotasuna eman nahi duelako bere kontakizunetan, Elkano eta Urdaneta, Okendo eta Txurruka bezalako gizon argitsuekin gailurra jo zuen tradizio horrena, alegia.

Barojak *El País Vasco*²⁰ izenburuaz idatzi zuen Euskal Herriari buruzko gida turistiko literarioaren azken kapituluko atalen batean ere, euskal marinela hitz egiten du:

"Portu txiki hauetan marinela jende alaia bizi izan zen, beldurrik eta kezkarik gabea. Arrantzatik, itsas barruko salerosketatik eta, behiala, noizbehinka lapurreta egitetik bizi izan zen. Balea eta bakailaoa atzematera joaten zen lehen. Orain, berriz, asmo apalagoko irtenaldiak egiten ditu.

Jende horrek itsas ekaitzak eta ur azaleko haitz biziak ezagutu zituen, zorabioa, estualdiak eta izu-

*mena, eta baita Kraken delakoa, Maelstrom eta Satanas uhartea ere. Ez zen haatik, ikaratu. Ikusi zituen, edo hala uste izan zuen behintzat, sirenak eta itsas sugeak, arpiak, olagarro erraldoiak, eta sumendi misterioetsuko suzko uharteak: lurralde harrigarritan lehorreratu zen, eta ipotzak eta erraldoiak, larru beltzak eta larru horiak ikusi zituen"*²¹.

E. González López-ek *Las inquietudes de Shanti Andía* eleberriri buruz esan zuena Barojaren itsaso nobela guztiez esan daiteke: "bai, (liburu horiek) euskal itsasgizonen saga dira"²².

Barojaren abenturazko itsas horretako protagonista nagusiak euskal marinela dira guztiak: Andía eta Juan de Aguirre, Tristán de Ugarte eta Embiltarrak, Chimista kapitaina eta Juan Galardi. Bada denek besteekin batera duten ezaugarriak: abentura bizitzeko irrika, eta bizi arriskatzea, bai itsasoaren aurkako borrokan, eta batez ere, beste gizon batzuen aurkakoan. Ekinaren ekinaz eta zoriaren zoriaz moldatu dira itsasgizon horien bizitzak, ezustekoez eta are zoritxarreko halabeharrez beteak. Bizitza horietan itsasoa abenturaren gertaleku, edo hobeto esanda, abentura burutzeko bide den bezala, denborak, berriz, ez du markarik ez aurrez ezarritako araurik, ez bada naturaren erritmoak berak ezarritako hori, arriskua alegia²³.

Barojaren obra ikertu duten aditu batzuen usteetan, itsasgizon horien baitan zerturik agertzen zaigu nolabait ere euskal arrazaren izaera, abenturazalea eta arriskuzalea. Ez litzateke, ordea, oso zuzena izango Barojaren marinela hauek zein beroen sinbolismoa gehiegi idealizatzen hastera.

Izan ere, eta idazleak argi eta garbi aipatzen du hau behin baino gehiagotan, batez ere Embilez eta Chimistaz ari denean, abenturak, funtsean,

²⁰ Bartzelona, Destino, 1953.

²¹ Op. cit., 463. or.

²² *El arte narrativo de Baroja. Las trilogías*, Madril, Anaya Las Américas, 1971, 239. or.

²³ *Baroja y el País Vasco* izenburuaz 1974. urtean argitaraturiko obran (La gran Enciclopedia Vasca, Bilbao), bada M. Pelay Orozcoren idazlan jakingarri bat, "Fantasía barojiana", non idazleak zenbat pertsona aurkezten baitizkio Itzea handiko jaun zaharrari, eta horien artean, nola ez, gure itsasgizon handiak: Andía eta Chimista, Embil eta Galardi.

Y mares tan distintos, hacen también hombres distintos:

“El hombre del Mediterráneo es la expresión correcta, las fórmulas hechas; el hombre del Atlántico es el impetu aún sin moldearse”¹⁸.

El mar de la aventura no es, no puede ser el Mediterráneo; por eso, las aventuras del marino Juan Galardi en El laberinto de las sirenas son, a diferencia de las de Chimista o Embil, aventuras fundamentalmente amorosas, vividas en tierra¹⁹.

3. Los pobladores del mar barojiano

Los pobladores del mar barojiano son marinos de altura, aventureros que ejercen el cabotaje y, si se tercia, la trata de negros y la piratería.

En el mar de Baroja no hay pescadores; tan sólo mínimas alusiones, y siempre accidentales, dentro de lo que constituye la verdadera trama novelesca. Como cuando en La ruta del aventurero se describe brevemente el barrio de pescadores de Ondara, o cuando hacia el final de El laberinto de las sirenas se dedica un capítulo a describir la procesión de los marineros de Roccanera en honor de su patrona, la Virgen del Carmen o cuando, en el viaje de Juan Galardi por las costas mediterráneas a bordo del Argonauta, capitaneado por Roberto O’Neil, se encuentran con una mísera barca de pescadores de coral. También es de pescadores el ambiente de esas pequeñas estampas marineras que se recogen en algunos de los cuentos, como “Angelus” o “A la pesca”.

Pero el protagonista del mar barojiano es, debe ser, un aventurero, y la elección sólo podría recaer

en los marinos de altura. Por coherencia con los universos novelescos que Baroja pretende recrear y, también, porque don Pío quiere contribuir con sus relatos a dejar constancia de la rica tradición marina de los vascos, tan gloriosamente representada por Elcano y Urdaneta, Oquendo y Churruca. En su libro El País Vasco, guía turístico-literaria de Euskalerría²⁰, Baroja dedica una parte del último capítulo a los marinos vascos y en ella señala:

“Los marinos de estos puertecitos fueron gente alegre, sin miedo y sin preocupaciones. Hacían la pesca, el comercio de altura y en otro tiempo algo de piratería. Iban a la pesca de la ballena y a la del bacalao. Ahora hacen expediciones más modestas. Conocieron las tempestades y los escollos, los vértigos, las angustias y el terror, el Kraken, el Maelstroem y la isla de Satanás. Nada de esto les sobrecogió. Vieron o creyeron ver sirenas y serpientes marinas, arpias y pulpos gigantes, islas de fuego con volcanes misteriosos: desembarcaron en países extraños, poblados por enanos o por gigantes, por negros o por amarillos”²¹.

De las novelas del mar, de las cuatro, se puede decir lo que E. González López ha señalado a propósito de Las inquietudes de Shanti Andía, que “son en realidad la saga de los marinos vascos”²².

Los protagonistas principales de ese mar barojiano de la aventura son todos marinos vascos, Andía y Juan de Aguirre, Tristán de Ugarte y los Embil, el capitán Chimista y Juan Galardi, y tienen todos en común la pasión de la aventura, el riesgo de la lucha contra el mar, pero sobre todo contra otros hombres. Se trata de vidas que se hacen a golpe de impulsos y de fortuna, repletas de imprevisibilidad y hasta de fatalidad, donde, si el mar es el

¹⁸ O.C., III, p. 838-39.

¹⁹ Lo cual no quiere decir que las aventuras de las otras novelas sucedan siempre en el mar; pero el marco de El laberinto de las sirenas es muy distinto del de Los pilotos de altura o La estrella del capitán Chimista.

²⁰ Barcelona, Destino, 1953.

²¹ Op.cit., p. 463.

²² El arte narrativo de Pío Baroja. Las trilogías, Madrid, Anaya Las Américas, 1971, p. 239.

pisu handiko arrazoi ekonomikoa baitu eragileztat: lehenbailehen aberastea; lehorreko lana ez baita, inondik ere, aberaspide azkarra. Horra zergatik onartzen duten gure marinelek beltz tratularien itsasuntzietako buruzagitza –Embilek bost bidaia egin zituen, gordeka garraiatu beharreko “ebanozko salgaiez” zamaturik– edo, noiz behinika, itsaslapur gisa aritzea; Chimistaren ibilaldiak ere albiste gai bilakatzen dira Habanako edo New Orleans-ko prentsarentzat: alegietako itsaslapurtzat dute euskal marinela, Atlantikoko kostaldea menderatzen eta mehatxatzen duen Bizargorri berri bat balitz bezala –eta horrela deitzen dute, gainera: “Bizargorri”–. Horregatik erabakitzen du Atlantikoa utzi eta Ozeano Barean zehar ibiltzea.

Marinel hauen morala harrigarriro malgu da itsasoko bizitzak eta abenturak hertsatzen duten gorabeheretara egokitzen. Marinelek geroko uzten dituzte, lehorrera itzultzen direnerako, lehen aldiz untziratu zirenean ontzat hartutako giza jokamoldeetako asko.

Lúzaro-ko bizimoduak eskaintzen dizkion sosegua, uruntasuna eta buru argitasuna lagungarri zaizkio Shanti Andíari itsasoan izandako bizimodu oroitzeko, eta zera onartzen du:

“Garai hartako marinela, nolabait ere, gizartetik apartatua zegoen, eta ia-ia gizatasunetik ere bai; moralak ere alegia, marineleri, gainerako hilkorrei ez besteko ikusmoldeak eskaintzen zizkion”²⁴.

Andía, Atlantikoan zehar zebilen garaiko gorputz sasoitik zein gizalegezko arauetatik urrun, gauza da, orain, “lur barruko gizabidea” berreskuratze-ko, eta horren arauera epaitzeko marinelen bizimodua:

“Itsasoaren ankerkeria handiari, haren zerbitzuko gizonaren ankerkeria jarraitzen zitzaion; ur gaziaren

aberekeriari gizonaren aberekeria. Aldi hartan, marinela, eraztuna belarrían, pulsera eskumuturrean eta kakatua edo tximinoa sorbalda gainean etxeratu ohi zen”²⁵.

Morala “paraleloei loturik zihoan” gizon haienztat. Horregatik dauka Embilek, beltz tratulari bihurturik, langile zintzotzat bere burua; horregatik aukeratzen du Chimista zinikoak, bizimodua ateratzeko zituen hiru bideetatik –eskale, soldatapeko edo lapur– azkena, “dirua egiteko biderik nobleena delako”. Eta gizalegeak hartaraturik, halako bihotz zimikoa eragiten diote beltz tratuan dabilzanak; egiazki nazkagarri iritzen dio lanbide horri; Chimistak ez du “salerosle jendilaje” horren moralik, eta nahiago du itsaslapur izan.

Esan liteke itsasoak urraturiko moral –edo anti moral– horrek agerian uzten duela gizarteak lotsa handirik gabe darabilen alde biko moral moduaren hipokrisia. Azaluseria horren erakusgarri izan liteke, adibidez, Zaldumbide deritzan gizon zintzo bezain anker hori. Gizartearen moral hori kritikatzan du Barojak, ez ordea moralitasun arauen ikuspuntu abstraktutik, ez bada itsasoko abenturazko bizimoduaren gorabeherak halabeharrez zuritzen duten moralaren nabartasunetik edo moralitasun ezarenetik²⁶. Chimistak beltz tratulariak salatu eta lapurretan ibiltzea nahiago duela esaten duenean, puritanotik gutxi duen pertsona dela onartzen du –“nik ere saldu izan ditut beltzak, eta hainbat deabrukeria egina naiz”–, baina, zalantzarik gabe dio, “ni ez naiz barrenzuri itxurati bat”.

Barojaren itsaso nobeletatik igarotzen diren euskal marinel guztiak abenturazaleak izanagatik, bada, hala ere, haien artean alderik. Shanti Andía behazale da, eta Embilek ez dauka bere burua abenturazaleztat, “untzi piloto on eta langile zintzo bat” da. Juan Galardi, berriz, abenturazalea da, baina

²⁴ *Las inquietudes de Shanti Andía*, Obras Completas, II, 1000. or. ²⁵ *Ibid.*

²⁶ Itsaso nobelen alderdi hau zabalki eta zehazki aztertzen du Rivera Haydee-k: *Pío Baroja y las novelas del mar*, Michigan, UMI, Dissertation Services, 1970.

espacio, o mejor, el camino de la aventura, el tiempo no tiene más marca ni más convención que el del ritmo de la naturaleza, el del peligro²³.

Algunos estudiosos de Baroja han subrayado que en estos protagonistas del mar está de alguna manera materializado el carácter de la raza vasca, amante de la aventura y del riesgo. No sería sin embargo muy riguroso caer en una excesiva idealización de estos marinos barojianos y de sus simbolismos.

Porque queda claro repetidamente -sobre todo en los casos de Embil y Chimista- que la aventura tiene una fuerte y decisiva motivación económica: el enriquecimiento rápido, que sería imposible de todo punto con el trabajo en tierra. Esto explica que nuestros marinos acepten comandar barcos negreros -Embil hace hasta cinco viajes con el clandestino "mercado del ébano"- o que en ocasiones se conviertan en piratas; Chimista llega a ser noticia en la prensa de La Habana o de Nueva Orleans, como un pirata legendario, un nuevo Barbarroja -de hecho, es llamado "Bizargorri"- que domina y atemoriza en las costas atlánticas; y por eso decide navegar por el Pacífico.

La moral de estos hombres se adapta con una desconcertante flexibilidad a las circunstancias que impone la vida y la aventura en el mar. Y quedan en la reserva, para la vuelta a tierra, muchos de los principios y convenciones morales con los que embarcaron la primera vez.

Desde la serenidad, la lejanía y la lucidez que la vida en Lúzaro le permite recordar su vida en el mar, Shanti Andía reconoce que:

"un marino, entonces, era algo extrasocial, casi extrahumano, un marino era un ser para quien la moral ofrecía otros aspectos que para los demás mortales"²⁴.

Andía, lejos ya física y moralmente de sus aventuras por el Atlántico, es capaz ahora de recuperar la "moral de tierra adentro" y juzgar desde ella la vida del marino:

"A la gran barbarie del mar, correspondía la barbarie de su servidor el marino; a la brutalidad del elemento salobre, la brutalidad humana. En aquella época, un marino volvía a su rincón, con un anillo en la oreja; una pulsera en la muñeca y una cacatúa o una mona en el hombro"²⁵.

La moral es "una cuestión de paralelo". Esto hace que Embil, convertido en negrero, se considere a sí mismo un trabajador fiel; o que el cínico Chimista, entre tres maneras de ganarse la vida, como mendigo, como asalariado o como ladrón, prefiera esta tercera, porque "es la manera más noble de hacer fortuna". Y hasta siente un cierto escrúpulo moral por el trabajo de negrero; sencillamente, le da asco; no tiene la moral de esa "gentuza comerciante" y prefiere ser pirata.

En esta desgarrada moral -o anti-moral- que produce el mar se podría ver la manifestación descarada y un tanto cínica de la moral hipócrita, de la doble moral de la sociedad. El cruel y bondadoso a un tiempo Zaldumbide podría ser una muestra de esta hipocresía. La moral social es criticada por Baroja no desde una abstracta norma de moralidad, sino desde la ambigüedad moral o desde la inmoralidad que justifican fatalmente las circunstancias de la vida aventurera en el mar²⁶. Cuando Chimista condena la trata de negros y prefiere la piratería, reconoce no ser un puritano, -"yo he vendido negros y he hecho otras diabluras"-, pero, afirma tajante, "no soy un hipócrita".



Juan de Aguirre, *Shanti Andia*ren kezkak liburuko pertsonaia. Arturo Ruiz-Castillo-ren marrazkia, 1946.

Juan de Aguirre, personaje de *Las inquietudes de Shanti Andía*. Dibujo de Arturo Ruiz-Castillo, 1946.

²³ En Baroja y el País Vasco, *La Gran Enciclopedia Vasca*, Bilbao, 1974, M. Pelay Orozco ha escrito una preciosa "Fantasía barojiana", donde una serie de personajes desfilan ante el viejo Jaun de la casona de Itzea. Entre ellos no podían faltar nuestros marinos, Andía y Chimista, Embil y Galardi.

²⁴ *Las inquietudes de Shanti Andía*, O.C., II, p.1000.

²⁵ *Ibid.*

²⁶ Este aspecto de las novelas del mar está extensamente analizado en Rivera Haydee, Pío Baroja y las novelas del mar, Michigan, UMI, Dissertation Services, 1970.

bere erara; izan ere, haren abenturak amodiozko abenturak dira beste ezer baino gehiago; amodiozko abentura izan zuen ere –jainkoaganako amodioa baina–, bere azken abentura: folletinen moduko amaiera batean, apaiz egin eta haren alaba Roberta moja egona zen Roccanerako frantziskotarren konbentuko arrebengana bultzatu zuena.

Abenturazale, izan, Chimista kapitaina da. Embilek zer duen gogokoan galdetzen dionean, zalantzarik gabe erantzuten du Chimistak: “abentura”. Kapitainak berak ederki azaltzen duen bezala, “abentura bildumatzaille amorratua” da; azalpen zehatz eta bikaina inondik ere hori, Chimista era guztietako lanbidetan aritua zela kontuan hartzen badugu: marinel, taumaturgo, saltzaille ibiltari, txerpolari, prestidigitadore, urre bilatzaile...

Pertsona horiengan guztiengan bada denek duten beste ezaugarri bat, abenturazko bizimodua bukatzeko era: erretiroa eta, era batera edo bestera, itsasmina. Shanti Andiak nahiago du semeak marinel ez ateratzea, eta hala ere... Embil zaharrak, Cadizera erretiraturik, itsas gaiko liburuak irakurriz eta bere Itsasaldiko Egunerokoa txukun berridatziz betetzen du bere bakartasuna. Chimista, goitik behera ingeles “gentleman” bihurturik, jauregi oparo batean bizi da, kontrabandisten eta piraten abenturazko bizimoduarekin ametsetan, zeren bere emazte maltzurarengatik, oin geldiko bizimodua aukeratu behar izan baitu...

Itsasoa da, itsasoa beti, oroimenean urruti ikusten dugulako idealizaturik agertzen den itsaso hori, Pio Barojak hain maite zuen eta bere haurtzaroko bizikizunez gero, Zurriolako bere sortetxetik begira, itsasaldean begiztatu zuen askatasunaren berezko bizileku gisa berriro azaleratzen dena.

Azken finean, Barojaren itsaso nobelen saileko eleberri guztiak, idazleak *El laberinto de las sirenas* eleberrian O’Neil ingelesa egiletzat duen “Canción de la libertad del mar” horretan bil daitezke:

“Itsasoa! Itsasoa! Bide guztiak, itsasbide guztiak; lau norabideak, Thor-en ikurrean bezala, eta... askatasuna (...)

Olatuen gainean goazelarik, lorratz zuria utzirik uraren urdinean, apar artetik sortzen dira Ulises eta Jason, Dido eta Eneas, Anibal eta Zesar, Bizargorri eta Dragut-en antzinako islak; sortzen dira hiri zaharrak, eta tenpluak, eta marmolezko jauregiak; sortzen dira ere gerra, bortxa, esklabo salerosketa; gizateria kateatuaren tortura mota guztiak... *Bainagu libre gara gure untxi gainean...*

(...) gure libertatea sentitzeko gauza gara naturaren indarren aurrean, eta begirunez, olatuetako ur irakinen gainazalari begira, zera oihukatzen dugu zezelka:

Itsasoa!, Itsasoa!, Thalassa!, Thalassa!”²⁷.

Si todos los marineros vascos que desfilan, con mayor o menor relieve, por las novelas barojianas del mar, son aventureros, no lo son de la misma manera. Shanti Andía se define a sí mismo como un contemplativo y Embil no se considera un aventurero, sino "un buen piloto y un buen trabajador". Juan Galardi es aventurero a su manera; en realidad, sus verdaderas aventuras son las amorosas, porque amorosa sería también, aunque de amor divino, la última aventura que le lleva, en un final un tanto folletinesco, a hacerse cura y trabajar como capellán del convento de franciscanas de Roccanera, donde su hija Roberta ha profesado como monja.

El aventurero por antonomasia es el capitán Chimista. Cuando Embil le pregunta qué le interesa, responde sin vacilar "la aventura"; y él mismo se ha definido "un gran coleccionista de aventuras"; la definición es exacta, si consideramos que Chimista ha probado todos los oficios: marino, taumaturgo, charlatán, sacamuelas, prestidigitador, buscador de minas de oro...

Común también a todos estos personajes es el final de la vida aventurera, el retiro y de algún modo, la nostalgia. Shanti Andía prefiere que sus hijos no sean marineros, y sin embargo... El viejo Embil, retirado en Cádiz, rellena su soledad leyendo libros de marina y poniendo en limpio su Diario de Navegación. Chimista, convertido en un perfecto "gentleman" inglés, vive en un suntuoso palacio, añorando la vida aventurera de contra-

bando y piratería, porque por la pícara de su mujer ha tenido que escoger la vida sedentaria...

Pero otra vez el mar, siempre el mar, visto en la lejanía del recuerdo y por lo mismo idealizado, aparece en el horizonte como el espacio por antonomasia de la libertad, de esa libertad tan cara al escritor Pío Baroja y que había tenido ocasión de intuir desde su experiencia infantil, en el paisaje marino contemplado desde su casa natal en la Zurriola.

Porque, en el fondo, la serie entera de las novelas del mar queda resumida en esa "Canción de la libertad del mar" que Baroja, en El laberinto de las sirenas, atribuye al inglés O'Neil:

"¡El mar! ¡El mar! Todos los caminos, todas las rutas; las cuatro direcciones, como en el signo de Tor y... la libertad (...).

Mientras vamos sobre la cresta de las olas dejando una estela blanca en el agua azul, surgen de entre las espumas las siluetas antiguas de Ulises y de Jasón, de Dido y de Eneas, de Aníbal y de César, de Barbarroja y de Dragut; surgen las viejas ciudades, y los templos, y los palacios de mármol; surgen también la guerra, la violencia, la venta de esclavos; todas las torturas de la encadenada humanidad... Pero nosotros somos libres en la cubierta de nuestro barco.

(...) sentimos nuestra libertad ante las fuerzas de la naturaleza y baluceamos con reconocimiento mirando la superficie de las olas turbulentas:

¡El mar! ¡El mar! ¡Thalassa! ¡Thalassa!"²⁷.

Epopeia baten arrastoa alderrai: Barojagandik Unamunorengana, eta alderantziz

José Miguel de Azaola

Lan honen gaia izango den epopeiari “El mar” titulua ere eman liezaioke, eta Barojaren lau nobela hartzen ditu, *Las inquietudes de Shanti Andia* (lehenengoz 1911n argitaratu zena), *El laberinto de las sirenas* (lehen argitalpena 1923koa duena), *Los pilotos de altura* (datari bagagozkio, 1929ko urrian Beran bukatu zuena) eta *La estrella del capitán Chimista* (datari bagagozkio, Madrilen 1930eko urtarrilan bukatu zuena). Asmoz trilogia bat izatekoa zena tetralogia bilakatu da azkenean, baldin eta azkeneko bi nobelak nobela bat beraren zati bezala hartzen ez badira behintzat (aukera gisa, oso defendagarria litzatekeena, bestalde).

Epopeia horretan agertzen diren protagonistak, eta gainerako hainbat eta hainbat bigarren mailako pertsonaia ere, zuten itsasorako tiragatik, bizitzako gorabeherak edo eguneroko ogia irabazi beharrak hara eraginak edota hainbat eratako arrisku edo meatxuri ihes egin beharrez marinel bihurtutakoak dira. Epopeia honetan agertzen diren herrialde gehienetako ingurunea ere itsasoa da, halaber; eta gainerako kontakizunetan ere, ia denetan agertzen da portu, herri edo hiri handi edo txikiren bat, arrantzalea edo bestelakoa (Europakoa, Afrikakoa, Ameriketakoa edo Asiakoa). Gertakizun horietako trama guztiak itsasoan edo itsasbazterretako lekuren batean jazotzen direnez, hezur eta mamizkoekin batean itsasoa ere gertakizun horietako pertsonaia edo aktore bilakarazten da tarteka, gertakizun horiei zioa emanez batzuetan, horien bilakaerari bidea markatuz beste batzuetan. Eta azkenik, nahiz eszenario gisa agertuz, nahiz bera aktore bihurtuz, bere deskribapenetako, gogoetetak eta burutazioetako gai ere bilakatzen da itsasoa, ez denean nobela horietako hainbat pasartetako kontagai edo argumentu.

Hiru era horietara agertzen da itsasoa (ingurune gisa, pertsonaia gisa eta gai gisa), eta horregatik, oso komenigarria iruditzen zait itsasoaren agertzeko hiru modu horiek, batzuk besteetatik ongi bereiztea, baldin aldi bakoitzean hori gaitzat hartzea nondik datorren eta erabiltzean zer asmo duen behar bezala baloratu nahi bada.

Eta neure burua alderraitzat hartu dudan honengatik esan, beste liburu koskor baten (*El mar en Unamuno*, 1987) autore naizela ere azaldu duela orrialde hauen argitaratzaileak. Unamunoren obrako hainbat eta hainbat pasarte aztertu ez ezik, horiek komentatu ere egiten nuen liburuxka horretan, sarri agertzen baita horietan ere itsasoa. Handik hara, animatu ninduten lan hau egitera, eta hain zuzen, horrexegatik agertzen da gaitzat donostiar kreatzaile famatuaren itsasoko epopeiako honetan, bilbotar idazle ospetsua ere. Bien arteko lotura egin nahiak eraman nau beti ere menturatsu samar diren inspirazio edo gogoantza espontaneo bideetatik jotzera, eta ez aurrez erabakitako sistema edo plan baten arabera ibiltzera. Baten idatzietatik bestearenetara saltoka igaro ditut, bada, egun batzuk, eta erromes gisa baino areago –irakurle zintzoak ibiltzen baitira horrela– alderrai gisa, eta horrela ibili ondoren niri interesgarriak iruditu zaizkidan (hala gerta bitez gainerakoentzat ere) bi idazle horien iritzi, sentimendu eta lekukotasun apur batzuk –benetan apurrak– jaso ditut gogoan; irakurlea ahalik hobekien informatzeko errepresentagarriak iruditu zaizkidanak, hala ere.

Batenak eta bestearenak konparatu nahi baditu irakurleak, egin beza; baina ez nuke inor horrelakorik egitera eragingo, zeren baliozko ondoren batzuetara iritsiz gero, behar baitu konparazio gaien artean homogeneousutasun pixka bat, eta Unamunoren eta Barojaren obretan ez dago konparagari izateko hainbateko homogeneousutasunik.

De Baroja a Unamuno, y vuelta: vagabundeo en torno a una epopeya

José Miguel de Azaola

La epopeya de que aquí se trata es el conjunto formado, bajo el título común *El Mar*, por las novelas *Las inquietudes de Shanti Andía* (cuya primera edición es de 1911), *El laberinto de las sirenas* (primera edición en 1923), *Los pilotos de altura* (terminada de escribir en Vera de Bidasoa en octubre de 1929) y *La estrella del capitán Chimista* (cuyo final está fechado en Madrid en enero de 1930). La proyectada trilogía convirtiose así en tetralogía, a menos que consideremos las dos últimas novelas como

dos partes de una misma obra (lo que es perfectamente defendible).

Tanto los protagonistas como la mayoría de los innumerables personajes secundarios que pueblan la epopeya son gentes vocacionalmente marineras, o que las circunstancias han forzado a navegar para ganarse la vida o para salvarla huyendo de amenazas y peligros de distintas clases. Por eso, el marco o escenario de los relatos que la componen es, en las más de sus páginas, el mar; y en casi todas las restantes, los puertos de mar



Pío Baroja Donostiako portuan, *Las inquietudes de Shanti Andía* liburuaren zinerako egokitzapena filmatzeko kanpoaldeak bilatzen ari zirela (1946).

Pío Baroja en el puerto de San Sebastián durante la localización de exteriores para el rodaje de la adaptación cinematográfica de *Las inquietudes de Shanti Andía* (1946).

Ricardo Barojaren ilustrazioa, *Las inquietudes de Shanti Andía* (1920) liburuan "Lope de Aguirre, traidor" kápitulurako.

Ilustración de Ricardo Baroja para el capítulo "Lope de Aguirre, traidor" de *Las inquietudes de Shanti Andía* (1920).



Borondatearen deuseztea

Las inquietudes de Shanti Andía nobelaren hasieran honela dio:

"Itsasoak zinez deusezten gaitu eta akitzen, gure amets-mina eta borondatea agortzen. Bere berdintasun neurrigabeak, bere aldaketa ugariak, bere bakardade handiak, begirazale bihurtzen gaitu."

"Gure begi-ninen mugigarri dabilzan olatu berdebareok eta apar txuriskak gure arima igurtzika ari dira, gure nortasuna janaz, begirazale huts bihurtzeraino, Naturarekin berdintzeraino."

"Itsasoa ulertu nahi dugu eta ez dugu ulertzen; arrazoi bat aurkitu nahi genioke, eta ez diogu aurkitzen. Herensugea dirudi, edota ulertu ezinezko esfinjea; hilik datza biziaren ernategia, antzu da kezka etengabearen seinalea. Askotan susmo batek eragiten digu; bere baitan erakuspen bat gorderik ote duen, alegia. Inoz edo, bere ezkutuaren jabe egin garen ustea sortzen zaigu; beste batzuetan bere erakusbi-deak itzuli egiten digu eta olatuen disdirapean eta haizearen txistupean galdu ohi da."

Horra hiru pasarte 1910. urtearen erdialdera edo hurrengoaren aurrenetan idatzi bide zituenak.

Urte pare bat lehenago (1908), abuztuaren 16ko *La Nación* aldizkarian, behean datorren beste hori zion, zer ere, Barojak irakurtzeko menturarik izan

bazuen inoiz, ia seguru, ez zuen berriz 1912an *Soliloquios y conversaciones*-en agertu zen arte egingo:

"Itsasoak –zion idatzi horretan– logurea ematen dit, musikak bezalaxe. Itsasoak okitu eta urtu egiten du nahimena, barreiatu egiten dit arima. Hotza eta hezea iruditzen zait hura. (Itsasoa hezetasunarekin lotze horretan, ikus dezakezuenetz, badabil gordeko bizkorkeriaren bat). Byron lord-ak berak ere ez du ni itsasoarekin adiskidetzetik lortu. Uhinen jolasari begira egotea zigarro kearen kiribilei begira egotea dela iruditzen zait. Iruditzen zait, diot, zeren ez baitut inoiz erre izan. Zer esaten digun itsasoak? Guk esatea nahi duguna. Musikak bezala. Eta nik ez dut gauzek –gertakizunek eta misterioek– nik nahi dudana esan diezadatenik nahi, beraiek zer nahi duten esan diezadaten baizik, eta behar nazatela beraiei gogor egitera. Horregatixe ez dut nik pentsatzen dudana hura esango didatela uste dudana idazleren lanik irakurtzen".

Barojaren testuaren eta Unamunorenaren arteko azaleko zenbait antz eta diferentzia begibistakoak dira. Bitxia da, Unamuno hain paradoxari emana izanik, Barojarenean aurkitzea paradoxa, eskuartean darabilagun honetan, eta oso egoki ekarria gainera: hilik, "biziaren ernategia" da itsasoa, antzu, "kezka etengabearen seinalea".

(grandes o chicos, pueblos o ciudades, de pesca o de otra índole, europeos o africanos, americanos o asiáticos). Dado que la trama de cada uno de esos relatos se desenvuelve sobre sus olas o a sus orillas, el mar se erige también, a ratos, en personaje o actor que, junto a los de carne y hueso, interviene de diversas maneras en los acontecimientos, determinando su rumbo. Finalmente, y bien en cuanto escenario, o bien en cuanto actor, el mar es objeto de descripciones y de reflexiones o consideraciones de otro género, con lo cual se convierte, además, en asunto o tema de varios pasajes de la obra.

Tales son las tres formas distintas -marco, personaje, asunto- que reviste la presencia del mar en esta epopeya, y me parece bueno diferenciarlas mutuamente para valorar lo que cada una de ellas es y representa.

En lo que concierne al vagabundeo, los editores de estas páginas me han dispensado la atención de recordar que soy autor de un pequeño libro (El mar en Unamuno, 1987) donde analizo y comento numerosísimos pasajes de la obra unamuniana, en los cuales se halla presente el mar, y me han invitado a intervenir aquí de manera que el célebre escritor bilbaino se halle, en cierto modo, presente en esta evocación marina o marinera del famoso creador donostiarra de la epopeya. Para conseguirlo, y dejándome guiar más por la siempre azarosa inspiración o remembranza instantánea, que por un sistema o plan preestablecido, me he dedicado a pasear unos días, de los textos de un autor a los del otro, vagabundeando más que peregrinando -que es lo que hacen los lectores devotos-, y he recogido, a propósito de ciertas cuestiones que me parecen interesantes (espero que lo sean para los demás), unos pocos -muy pocos- pensamientos, sentimientos y testimonios de ambos escritores, que he juzgado bastante representativos, para contribuir a la información del lector.

Si éste desea compararlos, hágalo; aunque no se lo aconsejo, pues una comparación, para llegar a

dar resultado valioso, requiere la existencia de, al menos, cierto grado de homogeneidad entre los objetos que se comparan, lo cual no ocurre en tratándose de la obra de Unamuno y la de Baroja, demasiado heterogéneas y desemejantes entre sí para poder ser comparadas con utilidad.

La destrucción de la voluntad

Muy al comienzo de Las inquietudes de Shanti Andía, leemos lo siguiente:

“Realmente, el mar nos aniquila y nos consume, agota nuestra fantasía y nuestra voluntad. Su infinita monotonía, sus infinitos cambios, su soledad inmensa, nos arrastran a la contemplación.

Esas olas verdes, mansas; esas espumas blanquecinas donde se mece nuestra pupila, van como rozando nuestra alma, desgastando nuestra personalidad, hasta hacerla puramente contemplativa, hasta identificarla con la naturaleza.

Queremos comprender al mar, y no le comprendemos; queremos hallarle una razón, y no se la hallamos. Es un monstruo, una esfinge incomprensible; muerto, es el laboratorio de la vida, inerte, es la representación de la constante inquietud. Muchas veces sospechamos si habrá en él escondido algo como una lección; en momentos se figura uno haber descifrado su misterio; en otros, se nos escapa su enseñanza y se pierde en el reflejo de las olas y en el silbido del viento”.

Tres párrafos que debieron de ser escritos en la segunda mitad de 1910 ó en la primera del año siguiente.

Poco antes, en julio de 1908, Unamuno había escrito esto otro (publicado en La Nación, de Buenos Aires, el 16 de agosto, y que Baroja -sí lo leyó, acaso, alguna vez- no conoció, casi seguramente, hasta después de su reedición en 1912, formando parte del libro Soliloquios y conversaciones):

Autorea ala pertsonaiak ari dira hizketan?

Beharrezkoa iruditzen zait, hala ere, garrantzizko ohar bat egitea hemen (eta ez bakarrik bi idazleak elkarrekin konparatu nahiak tentatzen dituenak horretatik atzera arazteko): Unamunok eta Barojak, batek eta besteak, lehenengo pertsona darabilte; baina Unamuno bakarrik mintzo da bere izen propioan eta itsasoari buruz bere iritzia aditzera emateko. “*Divagaciones de estío*” artikuluan –askotan ohi zuen bezala– irakurleari belarri-ira xuxurlatuz bezala mintzo da, nola udaldia igarotzera itsasertzera joateko asmotan den aitortzen dio, baina ez, hain zuzen, “Kantauri itsasoko kosta zakarrera, esaten du, Portugalgoetara baizik” (asko pentsatu gabe berak, Bilbon ama hil zitzaio- la bide, egun gutxi barru Espinho-ko bere egonaldia eten eta uda parterik handiena bere “Kantauri itsasoko kostalde zakarrean” igaro beharko zuela). Unamunok orduan itsasoaz zuen ikuspegi ezezkoia, edo etsaikoia, oso garbi ikusten da lerro horietan; eta berebat, gero urte askotan izango zuenaren adierazgarri ere badira. 1924an, Fuerteventuran konfinatua egon zenean aldatu zuen ikuspegiz; orduan hartu zuen itsasoaren argiak (“*de la mar*” esaten du berak, eta hala idaztea nahiago izan zuen gerostik); eta orduan aldatu zuen itsasoari buruzko jarreraz (musika ordea, oso kasu bakanetan izan ezik, ez zuen inoiz ulertu nahi izan).

Barojak, aldiz, nahiz eta honek ere idazterakoan lehenengo pertsona erabili, ez du hori bere iritzi propioak aditzera emateko egiten, bere protagonistenak edo darabilen nobelan idazle gisa agertu nahi duen baten iritzia emateko baizik: gorago agertu ditudan parrafo horietan Shanti Andíarenak, esate baterako. Parrafo horietan, itsasoak beregan izan duen eraginaz ari da Shanti Andía, bereziki, “eta hainbestetan leporatu didaten nagikeria sonatuak. Eta hain zuzen ere, ez da marine-laren bizia gaitz horietaz sendatzeko biderik ego-

kiena”. Har daiteke Unamuno idazleak 1908an itsasoari buruz agertzen duen ikuspegia, horrek egun haietan pentsatzen eta sentitzen zuenaren adierazpen, hobeto esan, aitorten gisa, baina nola esan gauza bera eta hori zalantzarik gabe ziurtatu Baroja idazleagatik, honek, ordura arte itsasoan asko bizi gabeak eta itsasketa kontuan oso esperientzia laburra zuenak, fikziozko bere pertsonaia baten lumari idazarazten dizkionak idazarazten eta are itsas zabaleko marinel baten esperientzia duela esanarazten dionean? Ez dabil Barojak bere liburuan (fikzio gaien zale diren hainbat idazlek ohi duen bezala) Shanti Andíaren bidez bere autorretratoa egiteko edo horri bizia emateko asmorik, berariazkorik edo bestelakorik. Shanti Andíaren edo gainerako aktoreen iritzi, sentimendu, sentsazio, esperientzia eta ikuspegi gisa agertzen dituenak, horienak dira izan, eta ez idazlearenak, nahiz eta inoiz horienak eta hone-nak bat etorri; azkeneko baieztapen hori, ordea, egin behar da aurrena aztertu eta hala den ikusi, probatzeko eta egiaz hala dela esan ahal izateko.

Idazten dituen nobeletako abenturak eta gogoe-tak pertsonaiei berei lehen pertsona kontarazte-ko hori Barojak sarri erabiltzen duen errekurtsioa da, eta horrekin bere liburu-eta aktore eta horien kronista bihurtzen ditu. Itsasoa gai duen trilogia/tetralogia honetan *Las inquietudes de Shanti Andía* eta *El laberinto de las sirenas* nobelak Shanti Andíak idatziak izan balira bezala agertzen ditu, *Los pilotos de altura* eta *La estrella del capitán Chimista* nobelak, berriz, Domingo Cincúnegui-k idatziak bezala; dituen narratzaileen zerrenda ez da, noski, izendatu direnekin bukatzen. *Las inquietudes* nobelako gertaeretan ere zati handiak baitaude Juan de Aguirre, Machin-en, delako mediku zahar baten, itsasketarako gauzak saltzen dituen dendari eta, Itchaso izeneko marinel ohiaren, Ciriaco Andonaegui kapitainaren eta beste hainbaten ahotan jartzen edo horien lumatik irtendako gisa agertzen dituenak..., eta are gehiago *El laberinto de las sirenas* nobelan, non ere, nobela bereko fikziozko protagonista den

“El mar me da sueño, como la música. El mar me anega y diluye la voluntad, me disgrega el alma. El mar me resulta frío y húmedo. (Esto de que el mar sea húmedo es, como veis, un rasgo de cierta recóndita ingeniosidad). Ni lord Byron ha logrado congraciarme con él. Contemplar el juego de las olas es como contemplar las espirales del humo del cigarro. Digo, me parece, porque nunca he fumado. ¿Qué nos dice el mar? Lo que queremos que nos diga. Es como la música. Y yo quiero que las cosas -los hechos y los misterios- me digan no lo que yo quiero, sino lo que quieren ellas, y que me obliguen a resistirlas. Y he aquí por qué no leo a los escritores que supongo han de decirme lo mismo que yo pienso”.

Saltan a la vista ciertas semejanzas y ciertas diferencias externas entre el texto de Baroja y el de Unamuno. Y es curioso que, siendo éste último un cultivador sistemático de la paradoja, la encontremos ahora, y muy feliz, en el del primero: muerto, el mar es “el laboratorio de la vida”; inerte, es “la representación de la constante inquietud”.

¿Habla el autor o hablan los personajes?

Ahora bien (y no sólo para desalentar a quienes tiene la comparación entre ambos autores), es necesario formular aquí una advertencia de peso. Unamuno y Baroja se expresan, los dos, en primera persona; pero sólo aquél habla en nombre propio y da su personal opinión acerca del mar en ese artículo (titulado “Divagaciones de estío”), en el cual -siguiendo su costumbre- se dirige con intimidad a sus lectores, a quienes confía que se dispone a marchar de vacaciones veraniegas a orillas del mar, pero no a su “brava costa cantábrica, sino en tierra de Portugal” (muy lejos de sospechar que su estancia en Espinho iba a ser interrumpida, pocos días después de iniciada, por la muerte de su madre en Bilbao: lo que le obligó a pasar la mayor parte de aquel verano en su “brava costa cantábrica”). La visión negativa, incluso hostil, que del mar tenía Unamuno en aquel

momento, se pone, muy sinceramente, de manifiesto en estas líneas, bastante representativas de la incompreensión que mantuvo durante muchos años (salvo en unos cuantos momentos excepcionales) hasta que, confinado en 1924 en la isla de Fuerteventura, recibió allí la revelación del mar (“de la mar”, como prefirió escribir desde entonces la mayoría de las veces) y mudó de actitud hacia él radicalmente (en cambio, persistió hasta el final, excepto en rarísimas ocasiones, su incompreensión hacia la música).

Baroja, en cambio, y no obstante escribir también en primera persona, no está expresando su opinión personal, sino la del protagonista y presunto redactor de su novela: la del marino Shanti Andía, quien habla en esos párrafos de la influencia que la vida marinera ha ejercido sobre él, especialmente al fomentar la tan “decantada indolencia que tanto me han reprochado, y que, sin duda, desarrolla y exagera la vida del marino”. Mientras que la visión que el escritor Unamuno dice tener del mar en 1908 debe tomarse como una manifestación, y hasta confesión, personal de lo que él pensaba y sentía en aquellos días, ¿cómo atribuir con igual seguridad y en forma tan inequívoca y rotunda, al escritor Baroja, las palabras que, sin haber hecho hasta entonces vida marinera y teniendo una cortísima experiencia personal de la navegación, pone éste en la pluma de un personaje de ficción, de quien afirma que posee una larga experiencia profesional como marino de altura? Baroja no pretende hacer, ni tampoco hace sin querer (como a tantos autores de ficción les sucede) su propio autorretrato al trazar la imagen de Shanti Andía e insuflarle vida en las páginas de su libro. Las opiniones, los sentimientos, las sensaciones, las experiencias y los puntos de vista de éste, como de los otros actores de sus novelas, son de ellos, no de su autor, con quien pueden coincidir a veces; pero esto último, hay que mirarlo bien y comprobarlo, para poder probarlo, antes de afirmar nada.

Eso de hacer escribir a sus personajes, quienes narran sus aventuras y formulan sus reflexiones en

Juan de Galardiren oroitzen liburua balitz bezala agertzen baitu ia nobela guztia: Kixoteko beste Cide Hamete Benengeli-k idatzitako eskuizkribu Cervantesek aurkitu nahi eta topatu zuen haren kasuan bezala, Shanti Andiak ere Napolin aurkitu nahi eta aurkitzen duen liburu gisa, alegia; haren eta honen arteko diferentzia da, Kixoterenean Cervantes bera dela liburu horren idazlea eta orobat delako eskuizkribuaren bila ibili eta gero aurkitzen duena, eta *El laberinto de las sirenas* nobelaren kasuan, berriz, fikziozko pertsonaia batek, Shanti Andiak egiten duela lan hori, ez Barojak; eta horrekin bitarteko bat gehiago sartzen du, gainera, nobelako ordenamenduaren katean: katearen lehenengo mailan, "*Conversación preliminar*" izeneko aitzin solas moduko bat agertzen da; atal horretan (gertatua edo asmatua den, gutxi axola), S. Dukesarekin izandako elkarrizketaren berri ematen du autoreak, eta nola, hurrena idazten duen nobela bidaliko diola agindu dion. Katearen bigarren maila, "Prólogo": Shanti Andiak Italiara egindako bidaia bat kontatzen da parte honetan, nola horrek Juan de Galardiren berri izan duen Napolin (guztia Shanti Andiak idatzi izan balu bezala), nola entzutera duen eskuizkribu bat eskuratu arteko onik izan ez duen; eta azkenik, nola eskuizkribu horren lehenengo parte erregalatu egin dioten eta bigarrena berak liburu zaharren saltzaile bati erosi dion. Eskuizkribuan Juanek bere historia kontatzen du euskaraz. Katearen hirugarren maila: atal honetan, Galardiren autobiografia kontatzen da, hirugarren batek erromantzez emana, baina agertzen da hori, beste fikziozko erredaktzaile batek, alegia, Shanti Andiak idatzia bezala, eta beste zehar historia batzuk ere, kontatera horretan Galardik sartuak direla pentsarazten digutenak hauek (horrela ez izatera Shanti Andiak ez baitzuen horien berri izaterik), tartekaturik dituela. Katearen laugarren maila, "Epílogo": lehenengo erredaktzaile berarena da hau ere, oso laburra. Atal honetan, Galardiren akaberaren berri ematen da. Parte batzuk, ustez horren autobiografiakoak diren datuekin osatuak dira, eta beste

parte batzuk, Roccanera markesaren, alegia, horren lehenengo lagun baten konfidentziaz baliaturik osatuak, Roccanera markesari esker izan ere baitzuen Shanti Andiak delako Galardi horren berri lehenengoz, eta modu berean eskuratu ere orain autobiografia idatzi zion horren eskuizkribua.

Deskribatu denaren oso antzeko kateamendua dute tetralogiaren hirugarren eta laugarren parte osatzen duten bi nobelek edo (irakurleak hala baderitza) trilogia osatzen duten hirugarren nobelako bi liburukiek. "Introducción" labur bat agertzen da *Los pilotos de altura* nobelan ere. Sarrera horretan, Elguea eta Lúzaro izeneko bere asma-ziozko arrantzale herrietara (Euskal Herrikoak biak) egin zuen bidaia baten berri ematen du Barojak; nola azkeneko herri horretan zelako Domingo Cincúnegui (bere asmaziozkoa hau ere), bertako gizon eskolatu batek idatzitako eskuizkribuzko liburuki lodi bat lortu zuen: "pixka bat laburtua, baina haren lana da hau", dio *Los pilotos de altura* nobelagatik, baina ez du esaten zer kendu duen, eta ez da antzematen ere laburtu duenik inon; baina jakitera bai ematen du gero, Cincúnegui-ren obra hori omen dagoela idatzita horren autoretzat ematen denak Embil izeneko familian ahoz-ahokoak ziren datuak jaso eta horiek oinarri harturik, eta bereziki, XIX. mendearen erdialdera itsasoan ibili izan zen Ignacio Embil kapitainak bere *Diario de navegación* eskuizkribuan utzi zituenetatik, izan ere, utzi barruko bizimoduaz aparte xehetasun handiko hainbat beste kontaera sartuak baitzuen hark bere paperetan. Eta *La estrella del capitán Chimista* nobelan, berriz, gorago aipatu den Embil horren kontaerari jarraitzen dio; Embil hori Chimista kapitainaren laguna eta sarritan untzian berekin izaten zuena baitzen. Embilen kontaerari ekin baino lehen prologo labur bat egiten du. Prologo horretan karta bat agertzen da tartekaturik, asmaziozko irakasle alemaniar batek Cincúnegui egina, eta kartan euskaldunei buruz esaten ziren zenbait antropologia gogoeta hutsal eta karikatuzko; Cincúnegui idatzi zion karta, aldiz, laburtu egiten

Pío Baroja paseando. Mende hasieran Ricardo Barojak egindako akuaforte eta urtinta. Grabatu honen plantxa lapurtu egin zieten Barojatarrei Madrilen zuten etxearen errautsetatik (etxea gerra zibilean bonbaz lehertu zuten). Urte batzuk beranduago Calcografía Nacionalak hartu zuen.

Pío Baroja paseando. Aguafuerte, aguainta y punta seca de Ricardo Baroja realizado a comienzos de siglo. La plancha de este grabado fue robada de los escombros de la casa que los Baroja tenían en Madrid (tras ser bombardeada durante la guerra civil) y años más tarde sería adquirida por la Calcografía Nacional.



primera persona, resultando así ser cronistas a la vez que actores de la novela, es un recurso del que Baroja echa mano a menudo. En el caso de su trilogía / tetralogía marinera, finge que Las inquietudes de Shanti Andía y El laberinto de las sirenas están escritos por Shanti, y que Los pilotos de altura y La estrella del capitán Chimista lo están por Domingo Cincúnegui, sin que se detenga aquí la lista de los narradores. En efecto: largos trozos de Las inquietudes son relatos puestos en la boca o en la pluma de otros personajes: Juan de Aguirre, Machín, el médico viejo, el tendero de efectos navales y antiguo marino Itchaso, el capitán Ciriaco Andonaegui, etcétera..., mientras que lo esencial del Laberinto es el libro de memorias de Juan Galardi, el imaginario protagonista de la novela: un libro que Shanti Andía busca y encuentra en Nápoles, al modo como Cervantes cuenta en el Quijote que buscó y encontró el pretendido manuscrito de Cide Hamete Benengeli; con la diferencia de que es el propio Cervantes -el autor, de carne y hueso, del libro- quien pretendidamente hace la búsqueda y el hallazgo, mientras que, en El laberinto de las sirenas, los hace Shanti

Andía -personaje de ficción-, introduciéndose con ello un intermediario más en una cadena que se ordena así: primer eslabón, la "Conversación preliminar" (real o imaginaria; poco importa esto) que el autor dice haber tenido con la Duquesa S., a la que promete enviarle su próxima novela; segundo eslabón, el "Prólogo" que se finge haber sido redactado por Shanti y en el que éste cuenta su viaje a Italia y cómo, en Nápoles, tiene noticia de Juan Galardi y no descansa hasta que se hace con un manuscrito cuya primera parte le regalan y cuya segunda parte adquiere a un librero de viejo: manuscrito en el que Juan relata -en lengua vasca- su propia historia; tercer eslabón, la autobiografía de Galardi -puesta en romance por una tercera persona- aderezada por el fingido redactor Shanti Andía con una serie de historias anejas que hemos de suponer incorporadas a su relato por el propio Galardi (pues, de no ser así, Shanti no tendría conocimiento de ellas); cuarto eslabón, el "Epilogo" del mismo redactor, muy breve, dando cuenta del final de la vida de Galardi con datos presuntamente tomados en parte de la autobiografía de éste, y en parte de las confidencias de su

du autoreak eta, hori eginez, Cincúneguik idazten zizkion arrunkeiak eta txorakeriak irakurri beharra aurreratu egiten dio irakurleari eta, beste zehar konturik gabe, utzitako historiari jarraitzen dio. Historia hori bukatzean jakiten du Cincúneguik Chimista kapitain abenturazale kezkatia zahartzaro burges, lasai eta erosoaren berri, Elguean zabaldu zen eta batzuek gogoan jaso zuten albiste baten bidez, hain zuzen, eta zahartzaro hori deskribatzen du laburki.

Eta horrela, Embil kapitaina Cincúneguik eskolatuaren Cide Hamete Benengeli bihurtzen da, Juan de Aguirre eta Juan Galardi Shanti Andíaren eta Shanti Andía bera eta Cincúnegui, hura lehenengo bi nobeletan eta hau hurrengo bietan Barojaren Cide Hamete Benengeli bilakatzen diren bezala. Idazleak horietako edozein pertsonaia fikziozkoren ahotan jarritako esapideak, edo irakurlearen eta autorearen artean nobelako gertakizunak kontatzeko jartzen den edozein narratzaile fikziozko idatzitakoak ez daitezke, bada, besterik gabe idazlearen irizpideen eta sentimentuen adierazgarri gisa hartu.

Las inquietudes de Shanti Andía (1920) libururako Ricardo Barojak egindako ilustrazioa.

Ilustración de Ricardo Baroja para Las inquietudes de Shanti Andía (1920).



Itsasoa eta askatasuna

Zera irakurri dezakegu Barojak *Desde la última vuelta del camino* titulu orokorraren pean argitaratu zituen oroitzapenetan: “atsegin zait itsaso ondoan jai izana; askatasun eta aldaketa seinale iruditu izan zait beti”. Hor bai, garbi agertzen du Barojak nola pentsatzen eta zer sentitzen zuen. Itsasoa eta askatasuna elkarrekin ezkontzeko hau oso topiko maitea du literaturak (literatura mota guztiek), eta idazle asko eta askok

ere. Aipatu den pasarte horretan ez ezik beste hainbatetan ere agertzen dira Barojarenean itasoa eta askatasuna elkarrekin ezkonturik, berak horrela ikusten dituela adierazteko batzuetan, horretarako pertsonaiak erabiliz, besteetan. Pasarte horietan aipagarriena agian O’Neil, *El laberinto de las sirenas* nobelako pertsonaiarik garrantzitsuenetakoak idatzitakoa, “Canción de la libertad del mar” du. Olerki itxurako kanta bat baino gehiago tartekatu zituen nobela horretan, O’Neil-enak; niri O’Neil-i untzien branketako maskarek iradokitzen diotena gustatzen zait gehiena. Barojak pertsonaia horrek egindako bezala agertzen dizkigun hitzlauzko olerkietan ez dago, hala ere, harako beste Roccanera-ko farozain, unzi miniaturak egiten zituen artisauaren lana deskribatzerakoan idazten duenaren parekorik.

Unamunok ere erabili izan zuen itsasoa eta askatasuna elkarrekin ezkontzeko topikoa, *Paz en la guerra* nobelan, besteak beste; baina Unamunok ez du topiko hori nobelako pertsonaia baten ahotan jartzen, gauden kasuan, berean baizik, kontatzailearen gogoeta modura agertuz, izan ere, gaztetako Unamunoren irudi literario den Pachico Zabalbidek Bizkaiko mendi tontorretara egindako txangoa eta urrutira ikusitako itsasoa deskribatzen baititu. Pasarte horretan esaten, komentatzen du autoreak, mendia askatasunaren sehaska bada itsasoa horren zabaldu dela; eta hartan bukatu berria zen azkeneko karlistada oroitaraziz, ematen du beheraxeago aditzera, itsasoa liberalen bandoaren sinbolo dela, eta mendia Don Karlosen bandoarena (zertan buruz oso argia izaterik eskatzen ez zuen gogoeta, bestalde, jakinda zeinen eta zeinen arteko gudua izan zen hura, besteak beste merkatarien eta baserritarren artekoa, Unamunok berak pasarte berean esaten duen bezala).

Barojak itsasoa eta aldaketa ideiak elkarrekin ezkontzen dituenean, hori zein “aldaketaz” ari den garbi esatera, ni behintzat ez nintzateke ausartuko; ari den, itsasoak izaten dituen aldaketa sarri eta bizkorrez –bare lanoan egoten denetik

antigua amiga, la marquesa de Roccanera, gracias a la cual Andía había obtenido las primeras noticias y el manuscrito de su biografiado.

El eslabonamiento es muy parecido en (como prefiera el lector) las dos novelas que constituyen la tercera y la cuarta parte de la tetralogía, o los dos volúmenes de que consta la tercera novela de la trilogía. En *Los pilotos de altura* hay una "Introducción" corta, en la que Baroja narra una pretendida excursión suya a Elguea y Lúzaro, imaginarias villas pesqueras de la costa vasca, y cómo se hace en esta última con un grueso tomo manuscrito cuyo autor es el erudito local Domingo Cincúnegui, igualmente imaginario; y añade: "Esta obra es la suya, un poco abreviada"; pero no nos dice en qué consiste la abreviación, ni ésta se hace notar en ninguna forma ni en ningún sitio; ahora bien, descubrimos más tarde que la obra de Cincúnegui está supuestamente redactada sobre la base de los datos que su pretendido autor recoge de la familia Embil por transmisión oral y, principalmente, del Diario de navegación de un capitán Ignacio Embil que había navegado a mediados del siglo XIX y había introducido en su manuscrito multitud de detallados relatos que se suman a los concernientes a la vida de a bordo. Y en *La estrella del capitán Chimista* prosigue la narración de este Embil, amigo y, con frecuencia, compañero de Chimista, la cual se reanuda después de un prólogo muy corto, en el que se inserta una carta de un imaginario profesor alemán, dirigida a Cincúnegui, con una serie de consideraciones antropológicas caricaturescamente banales acerca de los vascos, pero no la carta de Cincúnegui al profesor alemán, pedestre y vacua a juzgar por el resumen que de ella hace el autor, quien ahorra al lector, en vista de esto, el trabajo de leerla y vuelve a tomar, sin más preámbulos, el hilo de la interrumpida historia. Cuando termina la larga narración de Embil, Cincúnegui descubre (y describe muy brevemente) el retiro burgués, sosegado y acomodado, del agitado aventurero Chimista, a través de una noticia que, según él,

había corrido por Elguea y algunos conservaban en su memoria.

De esta manera, el capitán Embil viene a ser el Cide Hamete Benengeli del erudito Cincúnegui, ni más ni menos que Juan de Aguirre y Juan Galardi vienen a serlo de Shanti Andía; y que a este último en las dos primeras novelas y a Cincúnegui en las dos siguientes, les corresponde ser los Cide Hamete Benengeli de Pio Baroja. Una frase puesta en boca de cualquiera de los personajes de ficción, o presuntamente escrita por cualquiera de los narradores igualmente ficticios que se interponen entre el lector y el autor para referir o comentar la acción novelesca, no puede tomarse a la ligera como testimonio del pensamiento o del sentimiento de este último.

Mar y libertad

En las memorias que Baroja publicó bajo el título genérico *Desde la última vuelta del camino*, leemos, por ejemplo: "El haber nacido junto al mar me gusta; me ha parecido siempre como un augurio de libertad y de cambio". Aquí sí que hay una declaración inequívoca de lo que siente y piensa el autor. Esa asociación del mar con la libertad es tópico muy frecuente en todas las literaturas y en innumerables escritores. En Baroja, y como opinión propia del autor o de sus personajes, la encontraremos en varios otros sitios, y quizás el más notable de ellos sea la "Canción de la libertad del mar", que escribe Roberto O'Neil, uno de los actores más destacados del Laberinto de las sirenas. Son varias las poéticas "canciones" de O'Neil intercaladas en esta novela, y entre ellas me gusta particularmente la que le inspiran los mascarones de proa, aunque ninguno de los poemas en prosa que Baroja atribuye a este personaje tiene la belleza de otro pasaje, hondamente poético, consagrado a describir el trabajo del artesano constructor de barcos en miniatura, que es el torrero del faro de Roccanera.

ekaitz haserrean dagoeneta rainokoez-, ari den, itsasoak gizonari munduaren alde batetik bestera, inoiz kontrakoak direneta, aldatzeko eskeintzen dizkion erraztasunez, edo ari den, herrien arteko ondasun aldaketaz (trukaketaz), horretan baitatza merkataritza, hain zuzen ere, hein handi batean itsasoz egiten dena.

Itsasoa eta anbiguotasuna

Eta “aldaketa” hitza –gauden kasuan bederen– anbigua eta era bat baino gehiagotara uler daitekeena bada, zer ez esan itsaso hitzaz. *Las inquietudes de Shanti Andía* nobelaren bukaeran hitzok irakur daitezke (kezka baino areago sosegu darienak, bestalde, pertsonaia horren osaba den Juan de Aguirreren beste hauekin konparatuz gero): itsasoak “alaitasun handi bat ematen dit udaberriari; udazkenean, berriz, tristura handi bat; baina tristura hau hain da bitxi, neure buruari dohakabe iritziko niola noizbait sentituko ez banu”.

Hori leitzean, irakurleari beste hau bururatzen zaio aurrena, itsasoak ez baino udaberriak eta udazkenak eragiten dizkiola Shanti Andíari poza eta tristura, eta ez da zertan harritu horrekin. Ordea, garbi uzten du hurrengo parrafoetan, poz horrek eta tristura horrek daukan itsasminean dutela iturria. Paradoxa horiek, itsasminak poza eragitearenak eta udazkenean sentitzen duen tristurak tristurarik ez sentitzearen zoritxarretik libratzearenak, areagotu egiten du itsaso hitzaren anbiguotasun hori, horri buruz orokorrean edo abstraktuan ari garenean “el mar” nahiz “la mar” esan ahal izateak nahiko anbiguo egiten zuena, bestalde (itsaso berezi edo konkretuen izenek ez baitute onartzen beste aldaerarik: el Cantábrico, el Rojo, el Caribe, etab.). Hori gazteleraz da horrela; frantsesez, berriz, *la mer* beti femeninoa da; alemanez *die See* bezala, baina alemanak badu *das Meer* neutroa ere; neutraltasun eta anbiguotasun bera du ingelesean eta latinean;

grekeran, berriz, femeninoa da eta euskeran ez du jenerorik. Literaturaren beraren ikuspegia ere, bat idazten edo hitzegiten ari den hizkuntzarena, halaxe baita, anbigua. Beraz, Unamunok ondoren konparaketa honetan egiten duen hitz ezkontza:

*Itsasoa musika da; lurra,
literatura, letra.*

beste hainbat lekutan ere, egoki edo ez hain egoki, hitzlauz eta bertsoz errepikatzen duena, nahiko eztabaidagarria da, izan ere, ez baitu musikak letraren gaineko monopoliorik ez anbiguotasunean, ez balioaniztasunean ezta zehazgabetasunean ere. Ez itsasoak ere, lurraren gainekorik...

Ez bakarrik itsasoa baizik itsasoko bizitza bera ere era bat baino gehiagotara uler daiteke Barojarenean, aukeratzen den ikuspegiaren eta garrantzia zeri ematen zaionaren arabera. *Las inquietudes de Shanti Andía* nobelan, esate baterako, Shanti Andiak dio aurrena nahiago dituela “itsasketa aldietako ordu nagi amestiak” bere Lúzar hartako bizitza herritarra baino; handik gutxira esaten du, berriz, “ikara ematen dit atzera nire untzira itzuli beharrak eta eguneroko gertakizunen iskanbilan sartu beharrak”. Untziko bizitza, bada, noiz ameskeriazko nagikeria bat noiz izugarritzko iskanbila iruditzen zaio.

Deskribapenak

Itsasoa da eskuartearen dugun Barojaren epopeiako eszenario nagusi, eta hala, epopeia bateko eszenario nagusiari dagokion bezain zehatz deskribatu ere izan zuen honek hura. Deskribapen horietako batzuk ahaztezinak dira; *El laberinto de las sirenas* nobelan Napoliko badiak, eta hango ordurik ordu aldatuz doan argia deskribatuz egiten duena, esate baterako; edo Joniar itsasoaren beste, Rocca neraren hegoaldea deskribatzen dueneko hura; edo, *Las inquietudes de Shanti Andía* nobelan, Lúzaroko herria ekaitzak jo zueneakoa, zeinetatik

A su vez, Unamuno asocia las ideas de mar y de libertad, entre otros muchos lugares, en su novela Paz en la guerra, no atribuyendo la asociación a uno de los personajes de ésta, sino como reflexión del narrador -en este caso, el propio autor- al referirnos las excursiones campestres de Pachico Zabalbide (encarnación literaria del Unamuno joven), quien sube a las montañas de Vizcaya, desde cuyas cumbres, a lo lejos, avizora el mar. Y el autor comenta que, si la montaña es cuna de la libertad, el mar es su campo; y a renglón seguido, evocando la entonces recién terminada última guerra carlista, hace del mar el símbolo del bando liberal; y de la montaña, el del bando de Don Carlos (lo que no requiere gran esfuerzo imaginativo, dada la naturaleza de un conflicto que fue, entre otras cosas -y Unamuno mismo lo subraya en este pasaje-, un choque entre mercaderes y campesinos).

En cuanto a asociar el mar con la idea de cambio, no me atrevo a asegurar si Baroja, al escribir "cambio", se refiere a las muchas y rápidas mudanzas que el mar experimenta -desde la calma chicha hasta la tempestad furiosa-, o a la facilidad que proporciona al ser humano para cambiar de paradero y pasar de un lugar del planeta a otros completamente diferentes y aun opuestos, o bien al cambio de unos bienes por otros, en que consiste el comercio, uno de cuyos vectores capitales es, precisamente, el mar.

Mar y ambigüedad

Con todo, si la palabra "cambio" es -al menos, en este lugar- ambigua y propicia a los equívocos, el mar lo es muchísimo más. Por ejemplo, leemos estas palabras atribuidas a Shanti Andía al final de la novela consagrada a sus llamadas "inquietudes" (que casi venían a ser la quietud misma si las comparamos con las de su tío Juan de Aguirre): el mar "en la primavera me produce una gran alegría; en el otoño, una gran tristeza; pero una tristeza tan

extraña, que me parece que [yo] sería muy desgraciado si no la sintiera alguna vez".

Lo primero que se le ocurre al lector es pensar que no es el mar, sino la primavera y el otoño, lo que produce a Shanti alegría y tristeza, respectivamente: cosa que nada tiene de particular; pero en los párrafos siguientes queda claro que esa alegría y esa tristeza tienen su origen en la nostalgia de su vida marinera, ya pasada; y las paradojas de que, por un lado, su nostalgia sea fuente de alegría y, por otro, la tristeza que siente en otoño lo libere de la desgracia de no sentirla, acentúan la ambigüedad que acabo de señalar y que se pone de manifiesto ya en el hecho mismo de que podamos decir "el mar" o "la mar", indiferentemente, cuando hablamos de él -o de ella- en general, en abstracto (en particular o concreto, el mar -el Cantábrico, el Rojo, el Caribe, el Caspio, etcétera-es invariablemente masculino). Esto es en castellano; en francés, la mer es, sin variar, femenino; como en alemán die See, pero también das Meer, neutro; e igual neutralidad -ambigüedad- se da en inglés y en latín; en griego es femenino, mientras que en vasco... carece de género. Porque también es ambigua la literatura, cuyas perspectivas varían según cuál sea el idioma en que uno se exprese. Por eso es discutible el doble emparejamiento que hace Unamuno:

Es música la mar; literatura,
letra la tierra,

y que reitera, más o menos felizmente, en numerosos lugares, tanto en verso como en prosa. En efecto: la música no tiene, frente a la letra, el monopolio de la ambigüedad, de la polivalencia, de la imprecisión. Ni lo tiene la mar frente a la tierra...

Pero no es sólo la mar; es también la vida marinera, la que, en Baroja, se presta a diversidad de interpretaciones, según desde qué punto se le mire y cuál de sus aspectos se perciba. En las Inquietudes, vemos que Shanti dice primero pre-

Shanti Andía mirariz bezala salbatzen baitu Juan Machinek; edota, *La estrella del capitán Chimista* nobelako beste, Manilako badiatik irtetzerakoan altxatzen den haize erauntsi izugarri batek Embilen untzia hondoratzen eta kapitaina bera (Embil) eta Roque izeneko mutiko batez gainerako bidaiari eta untzigizon guztiak hil zireneko hura; eta hainbat beste, izan ere, itsasoan dabilenari egokitzen zaio, adur onez edo txarrez, itsasoa ez den beste hainbat eszenariotan ere (portuetan etab.) bizi beharra. Beraz, horien deskribapenak ere baditu Barojak, eta bikain askoak, Marseille eta Napolirena, esate baterako, *El laberinto de las sirenas* nobelan; Cadizena, *Las inquietudes de Shanti Andía* nobelan; Sevillako San Francisco plazarena eta inguruena (Chimista abenturazalearen iskanbila-lagun zen gizagajo baten garrotez hiltzea gertakizun nagusi duela), *Los pilotos de altura* nobelan; eta beste, Lúzaró eta Roccanera bezalako asmaziozko herri askorenak (Lekeitioren antz handia duena lehenengo, baina nola horren guztiz berdina ere ez den, ni behintzat, batbera direnik esatera ausartuko ez nintzatekeena; bigarrenagatik, aldiz, bai, ausartuko nintzateke beharbada Catanzaro-n inspiratua dagoela esatera: aztertze-koa litzateke): deskribapen horietako asko, non edo hango errealitate baten irudikapen izan edo ez, lan horretan maisu direnen parean eginak dira, errealismoan eredu izatekoak, literarioak, eta bat liluraturik eta txunditurik uzten dutenak. Lúzaró batek edo Roccanera batek ez zuten, esate baterako, inoiz existentziarik izan, eta nobeletan agertzen diren beste lekuek ere idazleak ezagutu edo amestu baino ondo lehenago galdu zuten izatea. Literaturan, beste arteetan bezalaxe, obrari formak ematen dio edertasuna, ez obrak kanpoko eredu batekiko duen antzak, nahiz eta eredu oso ederra izan.

Unamunoren nobeletan lekuen deskribapenik (alde honetatik aipatzekoa den *Paz en la guerra* nobelan eta lekuen deskribapen kontuan aipatzea merezi ez duten *La tía Tula* eta *San Manuel Bueno, mártir* nobeletan izan ezik) agertzen ez dena, berriz, gauza jakina da; izan ere, azkeneko

hauen eszenaleku bakarra pertsonaien arima baita. *Paz en la guerra* nobelan, bitan bakarrik hurbiltzen da itsasora, eta gainerakoetatik –lehen esan dudana bezala– batean bakarrik begiztatzen du hori, eta urrundik. Behin hartzen du hori deskribatzeko beta, eta horretan bikain eta labur egiten du. Idatzi zituen saiakeretan, artikuluetan eta olerkietan, berriz, oso sarri agertzen da itsasoa (Fuerteventurakoa eta Hendaiakoa, batez ere); askoz ere gutxiagotan hartu zuen hori eszenario gisa; eta bakanak dira horri buruz egin zituen deskribapenak, asko eta sakonak, aldiz, gogoetak eta, literaturaren aldetik begiratuta, edertasun handikoak askotan.

“Itsaso” pertsonaia

Aktoreak eta pertsonaiak ere, konta ezin ahala dira Barojaren nobeletan, nola itsas-girokoetan hala bestelakoetan (honen edozeinetan gehiago dira, bestalde, Unamunoren guztietan batera baino). Eta, noski, nola agertu ere itsasoa, hartarako edo honetarako, ia etengabe egiten den, aktore edo pertsonaia ez ezik protagonista ere bihurtzen da inoiz, (ez denean obra osoko, behintzat parte bateko). Ikusi dugu gorago ere, nola Shanti Andíak, bere izateko era nagi ameskoia eta horretatik datorkion jokatzeko modua, itsasoaren eraginari egotzen dion; zera bera esan daiteke Barojaren epopeiako beste hainbat pertsonaia garrantzizko eta ez hain garrantzizkorengatik ere. Itsasoa bare edo haserre egoteak inoiz, gertakizunen zioa eta pertsonaien planak egoera horren arabera alda ditzake, horrekin haragizko aktoreei protagonismoa kenduz. Arrazoi horregatik dio Juan Galardik bere existentzia (*El laberinto de las sirenas* nobelako argumentu nagusia) “marinelen bizimodu triste, monotono eta lotiak eragin zion izateko era ilun misantropoari” diola zor (autoreari gero marinelen bizimodua triste, monotonoa eta lotia dela probatzea eta, baita ere, Galardiri horrek eraginetik zetorkiola zuen izateko era ilun misantropoa demostratzea).

ferir "esas horas de indolencia y ensueño de los días de navegación" a la vida pueblerina de Lúzaro, su pueblo; y pasa luego a espantarse ante "la idea de volver a mi barco, [de] hundirme en el ajeteo continuo del acontecimiento". La existencia a bordo es, pues, para él, sucesivamente, indolencia ensoñadora y espantoso ajeteo.

Descripciones

Como escenario principal de la epopeya, el mar es, en sus páginas, objeto de descripciones minuciosas; algunas de ellas, inolvidables: así, en *El laberinto de las sirenas*, la de la bahía de Nápoles, con su luz cambiante de una hora a otra, o la del mar Jónico al Sur de Roccanera; en *Las inquietudes*, la de la tempestad que azota a Lúzaro y de la que *Shanti* es asombrosamente salvado por Juan Machín; en *La estrella del capitán Chimista*, la del tifón que, a la salida de la bahía de Manila, hace naufragar el mal barco mandado por Ignacio Embil y perecer pasajeros y tripulantes, salvo el capitán y el muchacho Roque; y tantas otras. Y pues la vida marinera, además del mar, tiene por escenarios los puertos y otros sitios, hasta los que el marino es empujado por su buena o su mala estrella, tenemos las descripciones notabilísimas de Marsella y de Nápoles, en *El laberinto*; de Cádiz, en *Las Inquietudes*; de la plaza de San Francisco y sus aledaños, en *Sevilla* (con el agarrotamiento, como acontecimiento central, de un desgraciado compañero de fatigas del aventurero Chimista), en *Los pilotos de altura*; amén de las de lugares imaginarios, tales como Lúzaro y Roccanera (muy parecido aquél a Lequeitio, aunque no idéntico, por lo que sería abusivo afirmar que los dos son uno y lo mismo; y me atrevo a aventurar que inspirada quizás ésta en *Catanzaro*: sería cosa de averiguarlo): descripciones magistrales, modelos de realismo literario, deslumbradoras e impresionantes, sea cual sea su fidelidad anecdótica a una realidad que, en los casos de Lúzaro y Roccanera, nunca existió; y en los de los otros

sitios, dejó de existir bastante antes de que el novelista la conociera o la ensoñara. Que, en literatura como en las demás artes, la belleza reside en la forma que la obra reviste, no en el parecido entre la obra y un modelo exterior a ella, por muy bello que sea éste en sí mismo.

Sabido es que, en las novelas de Unamuno, y con la única excepción notable de Paz en la guerra y las apenas notables de *La tía Tula* y *San Manuel Bueno, mártir*, no hay descripciones de lugares, pues aquéllas tienen por casi único escenario las almas de sus personajes. Paz en la guerra se asoma al mar en no más de dos ocasiones, y en otra -antes lo he dicho- lo divisa a lo lejos. Sólo en una se detiene el autor a describirlo, y lo hace con acierto y brevedad. En sus ensayos y sus artículos, así como en sus poemas, la mar vuelve con frecuencia (sobre todo, en *Fuerteventura* y en *Hendaya*) como asunto; mucho menos, como escenario; y las descripciones de ella son raras, mientras que las reflexiones son numerosas, a menudo profundas y, literariamente, revisten no pocas veces gran belleza.

El personaje "Mar"

Por lo que se refiere a los actores o personajes, innumerables en las novelas barrojanas (cualquiera de las cuales tiene, ella sola, más que todas las de Unamuno juntas), pululan en las de asunto marineramente lo mismo que en las demás. E, inevitablemente, la presencia casi constante del mar hace que, en éstas últimas, el escenario intervenga en la acción (según he señalado antes) como actor o personaje, e incluso protagonista (sí es que no del conjunto de la obra, sí de alguna de sus partes). Hemos visto que *Shanti Andía* atribuye al influjo de la mar su carácter indolente y soñador que determina en gran medida su comportamiento, y lo mismo cabe decir de otros actores, más o menos destacados, de la gran epopeya marinera. Así como, en ocasiones, el curso de la acción cam-

Unamunoren nobeletan, aldiz, nola ia agertu ere egiten ez den itsasorik (*La Tía Tula* nobelan izan ezik, eta horretan ere bakan), oso zeregin txikia du horrek idazle honen nobeletako barneko gertakizunetan; idatzi zituen poesietan, berriz, asko eta askotan agertzen da, eta ez pertsonaia huts gisa bakarrik, baita pertsonaia nagusi gisa ere; lehenengo mailan agertzen da, bestalde, Fuerte-venturara bidali eta bi urtera idatzi zuen *Sombras de sueño* izeneko bere tragedia bikainean ere, zeinetan, eszenaratzean itsasoak bistan behar duela (eta lau agerraldietan) agintzeaz gainera, hezur eta mamizkoez aparte "*La Mar*" deritzaion beste bat ere agertzen den pertsonaien zerrendan. Lau urte lehenago (Fuerteventurara bidali aurretik, beraz) idatzi zuen *Tulio Montalbán y Julio Macedo* nobela laburraren eszenarako bertsio bat da hau. Eszenarako egokitze horretan egiten dituen garrantzizko aldaketa guztiak itsasoa tarteko sartu nahiak eragindakoak dira; proba da, eszenarako egokitu zuen tragedian alde guztietan agertzen den bezala, nobelan inon ere ez dela agertzen, eta aipatzen ere ez itsasorik.

Arraza mutua?

Atentziona ematen du epopeia honetako nobeletan agertzen den marinel euskaldunen sailak. Marinel horiek, urrutietako lurraldeetara aldatzen direnean, eta porturen batean geratu, normala den bezala, zeinekin zertua edo nori laguntza eskatua izateko, herritarren bila hasten dira. Baina irakurleari normala iruditzen ez zaiona eta hau harritzen duena da, marinel horiek ia bila ibili gabe eta halabeharrez bezala topatzen dituztela beste euskaldunak, eta horrek irakurleari, orduan, lehenengo mendean itsas zabalean izango zen baino itsasgizon euskaldun gehiago ote zen inpresioa uzten diola. Nobela horietan agertzen diren marinel batzuk, donostiarrak dira, bestalde; horrek ere nahikoa normala dirudi. Trilogia / Tetralogia honetan ere ezer gutxitarako agertzen direnak Donostia bera eta Donostiako portua dira. Barojak bere oroitzapen liburuan, *Las inquietudes de Shanti*

Andía nobelan "bere bizitzari buruzko oharrik eta are bere umetako Donostia haren oroitzapenik" badela esaten digunean ere, ez zaigu Donostiaz eta hiri horretako portuaz ari, nobela horretan agertzen diren pertsonaiez baizik ("nire izeba Cesárea, nobelan Úrsula deritzana"-z); Donostia eta Donostiako portua ezer gutxitarako agertzen dira delako izeba horren etxea, zegoen bezala, kaira begira egon arren, eta handik Baroja txikiak kaiko mugimendua gogoan jasotzeko aukera izan arren. Nobela horretan agertzen den portuak, gainera, Luzarok alegia, Lekeitioren edo Getariaren antz handiagoa du Donostiarena baino; egia esan, berak aitortzen du, lehenago bi herri horietan ez ezik, Ondarroan, Deban, Zumaian eta Zarautzen ere izan zela itsasgiroetako lehenengo nobela hasi aurretik.

Oso litekeena da, ordea, haur denboran, Donostian egindako egonaldietan, misteriozko itsaso kilikagarri hura beti aurrean izate horrek eta bizitasun handiko portu ernagarriaren hurbiltasunak haren gogoan erein zituzten haziek itsas abenturaz eta untziko bizimoduaz -bere ustekabeekin, bitarteko, itsas tresna, masta sail eta oihalekin...- halako jakinmin bizia (askotan, eta denbora luzean, irrika gorria bilakatu zena) ernaraztea eta, geroago, pixkana hazaraztea. Ez zitzaion horrelakorik gertatu Unamunori. Honek ere portu baten ondoan eman zuen haurtzarora; ez ordea itsas ertzean, eta bakanetan, noizean behin baino ez, joan izan zen hara. Nolanahi ere, bien bitartean (1860-1880 bitarteko urteetan, Bilboko lehenengo hiriguneko eta aldamenetako merkataritza portuko moilak, nora ere estuarioan gora hamabi kilometro egin ondoren iristen baitzen itsasaldia, sartu-irten handikoak zirela artean) egunero zeukan itsasuntziak eta portuko joan-etorria ikusteko eta haztatzeako aukera. Deigarria da ikustea nola, hala eta guztiz ere, itsasoa, jakingarriago zitzaion simbolo eta misterio zen aldetik, umetan bizi izan zen merkataritza hiria animatu zuten marinelen eta untzien gorabeheren gertaleku izateagatik baino.



Las inquietudes de Shanti Andía (1920) libururako Ricardo Barojak egindako ilustrazioa.

Ilustración de Ricardo Baroja para Las inquietudes de Shanti Andía (1920).

vez a que "la vida triste, monótona y soñolienta del marino le dio un carácter oscuro y misántropo" (quedando a cargo del autor la demostración de que la vida marinera es triste, es monótona y es soñolienta, y de que la oscuridad y la misantropía son verosímilmente consecuencias de ello).

Ausente de la trama, el mar no interviene en el curso de las novelas de Unamuno (salvo, fugazmente, en La tía Tula); pero es personaje, y a veces personaje central, de numerosas poesías suyas, y representa un papel de primer orden en su tragedia Sombras de sueño, escrita dos años después del confinamiento en Fuerteventura: obra singular, en cuya representación prescribe el autor que la mar aparezca en sus cuatro actos al fondo del escenario, y en la lista de cuyos personajes, además de los de carne y hueso, se incluye uno llamado así: "La Mar". Se trata de una adaptación escénica de la novela corta Tulio Montalbán y Julio Macedo, escrita cuatro años antes (o sea, cuando Unamuno no había sido todavía confinado en Fuerteventura), y todos los cambios importantes que introduce la adaptación son debidos a la irrupción del mar en la obra: omnipresente en la tragedia, éste no aparecía ni era mentado en la novela.

bia de rumbo debido a la calma o a la tempestad que alteran los planes de unos personajes humanos a quienes la mar roba de ese modo protagonismo, así también la existencia de Juan Galardi (o sea, lo esencial del argumento del Laberinto de las sirenas) obedece a su

¿Raza muda?

J. Caro Baroja, *Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco*.

“Itsasuntzietako argiek argi hitsak behar dute, zeren horrela ez baitira marinelen begiak itsutzen, eta gaurik ilunenean ere ikus baitezakete zer gertatzen den ortzean, itsasoan, bai eta haize-oihalak eta tresneria nola dabilzan antzeman ere. Bitakorako orratza argitzen duen argi horrek berak doi-doi argitzen du, argitasun ilaun batez, haize arrosaren disko mugikorra”.

Ricardo Baroja, *La nao "Capitana"*.

Euskal margolarien itsasoari buruzko begiratua

Euskal Herriko margolaritza XIX. mendeko azken hogeitabost urteetan hasi zen aipatua izateko moduan aurrera egiten. Izan, behintzat, bazen –eta ordura arte ez zen aipatzeko moduko tradizioz margolaritzan–, oparoa zen oso, eta gainera, Espainiako orduko margolaritzan ohizkoak ez ziren ezaugarri modernoak zituen. Harrezkero euskal margolarien gai kutunetako bat izan dira ezinbestean itsasoa eta itsas inguruko gaiak (itsas herriak, itsas herritarrak, itsas lana, itsas tresnak...).

Merkataritzak eta indusializazioak bultzatutako ekonomiaren aurrerapenarentzat sarbide izateaz gainera, etxe handi dotoreak, jauregiak eta jardín hiriak eraikitzeke bila zebilen tokia zen itsasoa aipatutako iharduera horiek aberats bihurtu zuten burgesiarentzat. Bigarren Karlistada aurreko mundua “margolaritzarekiko uzkur” ez ezik guztiz tradizionala eta baserritarra zen, eta gainera, elizaren erlijio gaineke esku handiak eta hari zegokion komunitatearen barne lotura estuak ikuspena murrizten zioten. Aitzitik, XIX. mendearen azken

hogeitabost urteetan ernatutako gizartearentzat, negoziotarako lekuri gogokoena eta asialdirako maiteena bilakatu zen itsasoa.

Itsasbazterretik itsas zabalera so zegoena ez zen burdin mea eraman eta ikatzez zamaturik itzultzen ziren itsasuntzien lorratzen zelatan ari soilik, hau da, iharduera ekonomikoen nondik norakoen barranda hutsean; ideologiaren askapena ere lortu nahi zuen, ezarri zizkieten murrizketen zama astuna kendu nahi zuen gainera, eta horretarako, hats ematen zion itsasbide zabal haietan den dena iritsi zitekeelako esperantzari, hasi xede berrien bila aldegitetik eta gizabanakoaren eta izadiaren artean berebiziko lehia sortzeraino: itsasoa munduaren metafora gisa, itsasoko gauzak bitzta ulertzera iristeko bide gisa.

Ricardo Barojaren aurreko eta garai bereko euskal margolari batzuen itsasoari buruzko ikuskerak gizabanakoaren eta itsas eremu aldakorren arteko harreman poetikotik eratorritako ugaritasuna antzeman zuen. Horiek ez bezala, Luis Paret y Alcázar-ek, XVIII. mendearen bukaeran, Bilbo,

La rosa de los vientos

La representación del mar en la obra plástica de Ricardo Baroja

Javier González de Durana

"...siempre la idea de un mar sin leyes, la idea de que en el mar es todo posible, gravita sobre la conciencia de los habitantes de las costas..."

J. Caro Baroja, Introducción a la historia social y económica del pueblo vasco.

"Conviene que en los barcos sean las luces mortecinas, porque así la vista de los marinos no se deslumbra y aun en la noche más oscura pueden ver lo que pasa en el cielo, en el mar y observar cómo se comporta el velamen y la jarcia. La misma luz que ilumina el compás en la bitácora, apenas concentra débil claridad sobre el movedizo disco de la rosa de los vientos".

Ricardo Baroja, La nao "Capitana"

El mar como tema plástico en los pintores vascos

Ha sido inevitable el hecho de que los pintores vascos hayan prestado una atención relevante al mar y su entorno (poblaciones, personajes, esfuerzo laboral, utensilios...) desde los primeros momentos en que,

durante la década de los años 80 del siglo pasado, la pintura empezó a desarrollarse en el País Vasco como una actividad significativa, tanto por el mero hecho de existir -no se poseía una tradición pictórica minimamente destacable- como por la

Puerto. Ricardo Barojaren olioa, 1927. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid.

Puerto. Óleo de Ricardo Baroja, 1927. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid.





Puerto del Mediterráneo. Ricardo Barojaren olioa, 1927. "Itzea" bilduma.

Puerto del Mediterráneo. Óleo de Ricardo Baroja, 1927. Colección "Itzea".

Portugalete, Bermeo, Hondarribia, Pasaia eta Donostiako portuen ikuskera barroko eta preziosismoz betetako bat eman zuen.

Adolfo Guiard (Bilbo, 1860) bilbotarrarentzat, berriz, itsasoa eta batez ere itsasaldien mendeko Nerbioi itsasadarraren zatia ("*itsasgora iristen den tokiraino iristen da zibilizazioa*"), esaten zuen, Bilboko portuaren aginpidea hedatzen zen muga-peaz ari zelarik) industrietatik eta merkataritzatik bizi zen burgesia berriaren garaipen ekonomikoaren jokalekuak ziren. Antzina, garaile ateratako militarrek beren gudaldi gogoangarriak burutu zituzten gudu zelaiak mihiseetan irudika eta margoarazten zituzten bezala, Guiardek burgesia berriarentzat egin zituen margolanetan ibaiak, itsasoak eta itsasbazterrak ageri dira, itsasuntziz beteak: zama-ketarako kairatu eta ainguratutako itsasuntzi sailak, edo itsasuntzien zatiak, traineru hauskorren ondoan larderiatsu, ur bazterreko lantegietako tximinia keetsuak atzean dituztela. Guiardek maisutasunez agerrarazi zituen uraren mugikortasuna eta ke masa handien borborra bere koadroetan. Formen finkotasunik ezak eta lurrinaren antzeko higidurak aukera ematen zioten Guiardi margo

hedadura handiak marra libreko marrazkien bidez lantzeko. Konposizio horietan, itsas ikuspegiak margotzen dituztenen ohizko uhindi apartsuek edo industriaren deskripzio xeheek ez dute batere garrantzirik. Ekonomiaren aurrerapenak artearen eta kulturaren aurrerapena ere ekarriko zuela zioen liberalismo ekonomikoan oinarriturik ari zen Bilbao hazten, eta Guiard zen hiria hazkunde bizkor eta gogor haren garaiko artistarik aipagarriena. Horregatik, denbora luzean bere baitara bilduta eta muga estuen barruan egon zen hiria itsasoak aberastasuna, modernitatea eta kosmopolitismoa ekarriko ziolako pentsaera laburbildu zuen Guiardek.

Itsasoko bizimodu tradizionalaren margolaritzari eta itsas ikuspegiaren jeneroari hertsiki lotu zirenen artean, Guiarden garaikideak dira Ignacio Ugarte (Donostia, 1858) eta Irunen bizitako José Salís (Santander, 1863). Itsasoari buruzko margolan asko egin zituzten bi margolari hauek, eta trebetasuna eta esku ona erakutsi zuten uhinak eta hauek hausten direnean altxatzen den aparra margotzen. Aipagarria da, halaber, zenbait ohituraz, gabarrez eta portuez utzitako lekukotasuna, errealismoz bete. Baina horretaz gainera, ez dute aparteko interesik. Ez da haiengan haragoko asmorik, ez irudiarenaz bestelako adierazpenik; ez misteriorik ez dramarik. Margolari horiek egin zutena dokumentazio ikonografiko hutsa da, gehienez ere.

Guiarden ikuspen epiko bareaz gaindi, **Ramón de Zubiaurre** (Garay, 1882) bizkaitar margolariaren itsas ikuspegiaren itsasoari loturiko pertsonak dute lehentasuna, ez itsasoak berak. Margotzen dituen gizataldeetako gizabanakoei inoiz etsai ere izan daitekeen itsasoa bezalako ingurune arrotz batean aritzeak dakarren talderako jokabidea igartzen zaie. Zubiaurrearentzat, itsas herrietako kulturaren berezko eta ohizko zereginak gauzaten ziren atze oihala baino ez zen itsasoa. Ikusi ere ez zen egiten, edo zati batean baino ez zen ageri. Izan ere, kiroltasunez garaile atera edo borrokan ibili ondoren, handik onik itzuli izanak

circunstancia de hacerlo con tanta abundancia y con unos rasgos de modernidad tan inusuales en la España de aquellos momentos.

El mar no sólo era el camino por donde llegaba el desarrollo económico, gracias al comercio y la industrialización, sino que también era el paisaje que la nueva burguesía, enriquecida por esos motivos, buscaba para erigir sus mansiones, palacetes y ciudades-jardín. Frente al cerrado mundo anterior a la segunda guerra carlista, no sólo "a-pictórico", sino tradicional y agrario, de horizontes limitados por el poder religioso de la iglesia y la cohesión comunitaria inmediata y conocida, la sociedad gestada durante el último cuarto del siglo XIX convirtió el mar en el escenario privilegiado de sus negocios y en el marco favorito de sus ocios.


Aquella mirada hacia los espacios marítimos desde las costas no sólo buscaba la estela de los buques que se llevaban el mineral de hierro y regresaban cargados de carbón, esto es, el curso de las actividades económicas, sino que también pretendía la liberación ideológica, la descarga del pesado fardo de las restricciones impositivas, por la vía de alimentar la esperanza de que por los abiertos caminos del mar todo era posible, desde la huida personal en busca de nuevos horizontes hasta el establecimiento de una pugna heroica entre el individuo y la Naturaleza: el mar como metáfora del mundo y lo marítimo como marco de interpretación de la vida.

Entre los pintores vascos, anteriores y contemporáneos de Ricardo Baroja, hubo varios cuya visión del mar registró la variedad en que fue traducida la poética relación entre el ser humano y el inestable espacio marino. Un pintor aparte fue Luis Paret y Alcázar, quien a finales del siglo XVIII hizo una interpretación barroca y preciosista de los puertos de Bilbao, Portugalete, Bermeo, Hondarribia, Pasajes y San Sebastián.

En el caso de Adolfo Guiard (Bilbao, 1860), el mar y, sobre todo, las aguas afectadas por las mareas en la ría del Nervión ("la civilización llega

hasta donde llega la marea", solía decir en alusión a los límites de la autoridad portuaria bilbalna), era el escenario de los triunfos económicos de la nueva burguesía industrial y comercial. A la manera de los antiguos generales victoriosos que mandaban reproducir en lienzos los campos de batalla en donde habían protagonizado sus hazañas militares, Guiard pintó para la nueva burguesía un marco de vías fluviales, marítimas y territorios ribereños atestados de barcos fondeados, atracados para tareas de estiba y desestiba o asomando fragmentaria e imponentemente junto a frágiles traineras, sobre el trasfondo de las chimeneas humeantes de establecimientos industriales asentados junto a las aguas. Guiard fue un maestro en la utilización conjunta del movedizo elemento acuático y el borboteo de las masas humeantes. La inestabilidad formal y el movimiento vaporoso le permitieron realizar composiciones en las que pudo trabajar amplias superficies de color con trazos de dibujo libre y en las que la anécdota marinista del oleaje espumoso o la descripción minuciosa del acontecimiento industrial carecen por completo de relevancia. Siendo el artista más significativo de la fase dura e impulsora del crecimiento de Bilbao, a grupos del liberalismo económico, de aquel liberalismo que confiaba en que el enriquecimiento económico traería aparejado el desarrollo artístico y cultural, Guiard sintetizó el pensamiento de que por el mar le venía la riqueza, la modernidad y el cosmopolitismo a una sociedad largo tiempo cerrada sobre sí misma y sus limitaciones.

Dentro del género "marinista" más estricto y del costumbrismo marinero, fueron contemporáneos de Guiard los pintores Ignacio Ugarte (San Sebastián, 1858) y José Salís (Santander, 1863), afincado en Irún. Sin embargo, sus abundantes trabajos relacionados con el mar detienen su interés en el mero umbral de la ejecución técnica más o menos virtuosa, en esa habilidad para la reproducción del oleaje y sus espumosas batidas o en la documentación llanamente realista de un puerto,



Puerto. Ricardo Barojaren akuafortea, 1928.

Puerto. Aguafuerte de Ricardo Baroja, 1928.


baino ez zion axola. Bortiztasun handiko ingurunea zatekeen itsasoa Zubiarreren *arratzaleentzat*, baina ez zen, inondik ere, “beste mundu bat”, bizikide zuten Izadiaren beste alderdia baizik, benetako garrantzia zuten gauzen gibelaldea, alegia: kolektibitatea, herria bera, argi goxoko etxe barrena, elkarren ondoan eta bizirik irautearen sentipena, etxekoen babes (bodegoietan agertu zuen hori); labur esanda, elkartasunean egindako lan gogorraren ondoko atsegina. Esanak esan, argi erakusten du horrek ez zela Zubiaurre irudigilerik egokiena Pío Barojaren eleberrietarako; hori Píoren anaia Ricardo izan zen. Zubiaurreren ideologia taldekoiaren eta apaindurazko margogintzaurrean, Ricardok neurri egokian eransten zituen misterioa eta aztoramena. Bi margolari hauen marrazkiez horniturik 1920an argitaratu zen *Las inquietudes de Shanti Andia* liburuak agerian uzten du hori.

Julian Tellaetxe-k (Bergara, 1884) bestelako itxura ematen dio itsasoaren margo bidezko literaturizazioari. Narraziogintza isila da harena, zer edo zer iradokitzen eta adierazten duena, zehaztasunik gabe baina bazter herrietako portuetaraino eramanez irudimena. Batetik, haize oihal zabalduen polifonia sortzen du Tellaetxek, eta beroriek osaturiko planoen eta lerroen arteko jokora biltzen du konposizio plastikoaren muina. Kai txiki-etan ainguratutako itsasuntziak hartzen ditu gaitzat margolariak, eta begiaren ikus eremuaren erdi-erdian txirrikak, tarkinak, fokeak, kontrafokeak, gabiak, belatxoak, zurgako eta zurgako txikiak jarriz, friso geometrikoak eraikitzen ditu haize geruzez. Beste batzuetan, berriz, bela zurrun, gibel masta, trinket, masta nagusi, masta erdi eta baupresez, eta branka eta txopa zati gehiagoz baliaturik, tenkatze plastiko dinamikoak sortzen ditu lerro bertikal eta diagonalen eta plano etzan, hiruki formako eta trapezio formakoen artean. Askotan ere, koadroaren zoko-moko guztiak betetzearaino margotzen ditu horrelakoak, eta ozta-ozta ikus daiteke horien artean zeru edo itsas arrastorik. Tellaetxearen margolanetan, elementu

natural sustantzialek –urak eta haizeak–, gizonak egindako elementu instrumentalei –gila, untkrosko, arraun, soka eta belei– uzten diete lehen-tasuna. Elementu hauek guztiak artistarentzat konposizioa tankeratzeko balio handia izateaz gainera, bela horiek puztu, sokak lotu eta mastak zutitu ziren lekuetara daramate ikuslearen gogo. Tokia aipatu gabe ere... noranahiko bideetan barrundatzeko aukera ematen dute. Bestetik, eszenaren hondoa osatzen duten belak, sokak eta gainerako tresneria guztia atzean dutela, aurreko planoko pertsonak nabarmentzen dira: mutilak, gizaseme helduak eta zaharrak, begira-begira ikusleari, bakartasunean eta isilik, baina esatekoa berez darien, eta berriro ere, lurralde ezezagunetan ikusitako gauza bitxiak, aurpegiko azala zaildutako haize estrainoen edo portuko taberna zuloetan ahapean kontatutako narrazioen berri ematen duten bisaiekin.

Gustavo de Maeztu-k (Gasteiz, 1887) ez zion arreta handirik eskaini itsasoari bere margolanetan, baina eskaini zionean, oso lan bereziak egin zituen. Haren margolan handienetako batzuek –1917-1919 bitartean eginak– itsasoa dute gaitzat, eta horietan, sinbolikoki aipatzen dira eman-kortasun kontziente eta inkontzientea, Izadiaren hastapenetako indarrak, burkoitasuna eta zalantzatik, ilunbetik eta gauza ezagungabeetatik sortutako tirabira ernea. Maezturentzat itsasoa ez da amestutako abenturak edo egitandiak gauzatzeko marko literario bat, ezpada bizitza erretzen den eremu dramatiko eta araka ezina, eta hartaz hitz egiten denean, erreguez, esker egiteez eta Ama beldurgarri bezain oparo batek hartzen eta ematen, eskatzen eta eskaintzen, irensten eta jatera ematen dituen opariez hitz egin behar da funtsean.

Antonio de Gueza-k (Bilbao, 1889) ere itsasoari buruzko zenbait margolan egin zuen 1922tik 1924ra, Elantxobera, Bakiora eta Gaztelugatxera maiz samar joan zen urteetan, hain zuzen ere. “Sota y Aznar” itsasuntzi konpainiarako iragarki bat ere marraztu zuen, baina hala eta guztiz ere, bakanetan margotu zituen itsasoko gauzak.



Pintando el casco. Ricardo Barojaren olioa, 1927. "Itzea" bilduma.

Pintando el casco. Óleo de Ricardo Baroja, 1927. Colección "Itzea".

ciertas costumbres o una barcaza; sin intenciones ulteriores, sin significados más allá del signo; sin misterio ni drama, lo suyo fue mera documentación iconográfica como mucho.

Trascendiendo la sosegada visión épica de Guiard, Ramón de Zubiaurre (Garay, 1882) elaboró un retablo de imágenes marineras en las que el protagonismo lo ostentan las personas relacionadas con el mar, pero no el mar mismo. Se trata de visiones corales de individuos que revelan el fuerte carácter grupal que comporta toda empresa realizada en un medio físico ajeno y a veces hostil, como el mar. En Zubiaurre éste era un telón de fondo para actividades laborales propias y tradicionales de la cultura de los pueblos costeros. Un mar que muchas veces no se divisa, o se contempla parcialmente, porque lo sustancial es el hecho de haber regresado vivo de él, triunfando deportivamente en él o luchando contra él. Podía ser violento, pero nunca era "otro mundo" el mar para los arrantzales zubiaurrecos, sino aquella cara de la Naturaleza con la que tenían que convivir, el necesario reverso para lo que de verdad resultaba importante: la colectividad, el pueblo propio, las

*casas cálidamente iluminadas en su interior, el sentirse juntos y supervivientes, la recompensa doméstica (en forma de bodegón), en suma, el disfrute comunitario consecuencia del obligado esfuerzo cooperativo. Por eso, Zubiaurre no era el ilustrador ideal de las novelas de Pío Baroja, como se ha dicho en alguna ocasión, sino que lo era su hermano Ricardo, quien, frente a lo ideológicamente comunitario y plásticamente ornamental de Zubiaurre, aportaba las suficientes dosis de misterio e inquietud. La edición de *Las inquietudes de Shanti Andía*, de 1920, ilustrada a medias por ambos pintores, lo pone de manifiesto.*

Con Julián Tellaetxe (Bergara, 1884) la literaturización pictórica del mar tiene un perfil distinto. Es una narrativa callada, que sugiere y da a entender, que no especifica, pero que lleva la imaginación hasta distantes puertos. De una parte, Tellaetxe despliega una polifonía de velámenes en la que el juego de planos y líneas concentra el interés plástico. El pintor recurre a los barcos fondeados en pequeños puertos y, encuadrando un campo visual centrado en abanicos, tarquinas, foques, contrafoques, gavias, velachos, alas de juanete y sobrejuanetes, construye frisos geométricos con lechos de vientos. Otras veces se apoya en vergas, palos de mesana, trinquetes y mayores, masteleiros, baupreses, más fragmentos de proas y popas, para crear dinámicas tensiones plásticas entre los planos horizontales, triangulares y trapezoidales, y las líneas verticales y diagonales, muchas veces ocupando con tanta profusión el espacio pictórico que apenas si se da entrada al mar y al cielo. Lo natural sustancial -agua y viento- cede el protagonismo a lo construido instrumental -quillas, cascos, remos, cabos y velas-. Todos esos elementos, además del valor compositivo para el artista, remiten imaginariamente a los lugares donde esos velámenes fueron sopladados, los cabos atados y los palos alzados. Sin decirse dónde... se abre la posibilidad a sospechar cualquier lugar. Luego, están los personajes que se recortan en un primer plano, pasando a un fondo escenográfico toda esa tra-

Elantxobeko etxeek espressionismo kutsu handiko lanak egiteko aukera eman zioten Guezalari. Mugikortasun dinamiko handia erakusten dute lan horiek, berorietan agertzen den itsasoak –hegi marra soil bat hondoan– indargabetasuna bezainbat. Gaztelugatxeko haitz geometrizatuekin ere gauza bera gertatzen da: lurralde zail eta mugikor bateko ingurune egonkorra da itsasoa. XIX. mendeko itsas margolarien kontrapuntu gisa, Guezalaren helburua ez da gauzak zehatz-mehatz koardora aldatzea; Guezalak ez du ur azalean edo uraren efektuetan jartzen arreta osoa. Harentzat konposizio plastikoa da garrantzitsuena, eta aski irizten dio itsas eraginaren ondorioak margotzeari bere jakinmina asetzeko.

Azkenik, 1936-1939 urteetako gerra zibila baino lehen itsasoko gaiak era berezian landu zituzten margolarien arteko gazteena aipatu behar da,

José María Ucelay (Bermeo, 1903). Pío Barojaren *El País Vasco* (Destino, 1953) liburuen azal gaineko estalkia eta idaztearen beraren erretratu pare bat egiteaz gainera, arreta handia ipini zuen Ucelayk itsasaren inguruko munduan. Izan ere, haren margorik landuene-tako bat Bermeoko ikuspegi idealizatu bat da, 20 m luze dena, eta arrantzale


herri batean izan daitezkeen zeregin guztiak elkarren ondoan eta modu sinkronikoan agerrarazten dituen: lonjako lanak, sareen konponketa, untzioletako langintza, kairatutako untxiak, eta itsasora abiatu aurreko unea. Ucelayren estetizismoak guztizko baretasunaz blaitzen ditu langintza eta

leku horiek, eta bertako erritmoak eta mugimenduak arratsaldeko eguzkiaren urrezko beheraldia- ren arabera gertatzen dira. Gizarte perfektu baten eta hari bere izaera ematen dion lan iturriaren arteko elkarbizitza armonikoa da hori; itsasoa lagun eta adiskide ideal gisa. “Caronia” ingeles trasatlantikorako margolanak (c. 1947) eta “Bilbao” petrolio untzikorakoak (c. 1961) egin zitue- nean, Bermeoko eguneroko utopia tankeratu zuen gizonagandik urrun zegoen Ucelay, eta hainbat li- burutatik hartutako eta barroismo formalez eta alegoriako iradokizunez betetako nostalgia entzi- klopedita guztiz ilustratu batean babestu zuen itsasoari buruzko bere ikuspegia. Erabili zituen liburu- en artean, aipagarria da Gervasio de Artiñano (Bartzelona, 1920) ikerlariaren *La arquitectura naval española (en madera). Bosquejo de sus condiciones y rasgos de su evolución*.

Guiardentzat epopeia ekonomikoa da itsasoa; Zubiaurrentzat taldeko bizitza bateratzen due- na; Tellaetxerentzat hura zeharkatzeko eta bertan bizitzeko behar diren tresnen batura; Maeztu- rentzat Bizitzaren eta Herioaren arteko borroka jokatzeko antzezlekua; Guezalarentzat adieraz- kortasun biziko haitz eta etxe eraikitzailea; eta Ucelayrentzat eguneroko eta nostalgiazko utopia. Jakina, hauez gainera, beste euskal margolari askok landu dituzte itsasoari buruzko gaiak. Txalupen itzulerarena da, adibidez, Angel Larroquek, Aurelio Artetak eta beste margolari askok erabilitako topikoetako bat. Eduardo Landetak, Benito Barruetak, Alberto Arrúek eta Artetak sare konpontzaileak eta saski eramaleak margotu zituzten, Venus arrantzaleak balira beza- la. Jenaro Urrutiak itsas herrietako ikuspegi bitxi zein moderno asko egin zituen, baina Urrutiak ez ezik, baita Darío de Regoyosek, Ignazio Zuloagak edo Ernesto Pérez Orúe-k ere. Arrantzale taldeak margotu zituzten Juan Aranoak eta Nicolás Martínez Ortíz-ek, eta baita goraxeago aipatutako horietako askok ere. Egia esateko, ez dago itsasoari buruzko pinturarik egin ez duen margolaririk.



Puerto. Ricardo Barojaren akuafortea, 1930 inguruan. Grabatu hau egiteko Bermeo eta Donostiako portuei erreparatu izan behar zien. *Puerto. Aguafuerte de Ricardo Baroja, hacia 1930. Para la realización de este grabado el autor se inspiró probablemente en los puertos de Bermeo y Donostia.*



El trasatlántico. Ricardo Barojaren akua-forte eta urtinta, 1930.

El trasatlántico. Aguafuerte y aguainta de Ricardo Baroja, 1930.

moya de aparejos; muchachos, hombres maduros, viejos, sólo, mirando escrutadoramente al espectador, silentes, pero con unas fisonomías que hablan por sí solas y que, de nuevo, traducen lo insólito que quizás vieron en tierras ignoradas, los vientos extraños que curtieron sus rostros o, más exactamente, las narraciones contadas en voz baja en la oscuridad de las tabernas portuarias.

Gustavo de Maeztu (Vitoria, 1887) no prestó una intensa atención al mar en su pintura, pero cuando se la dio, lo hizo de una manera muy especial. Algunas de sus más monumentales pinturas, entre 1917 y 1919, tienen el mar como tema y aluden simbólicamente a la fertilidad consciente e inconsciente, a las fuerzas primigenias de la Naturaleza, a la tenacidad y a la expectante tensión surgida de la duda, de las sombras, de lo desconocido. El mar, para Maeztu, no es un marco literario para aventuras ensoñadoras o esfuerzos épicos, sino el escenario dramático e insondable en el que germina la vida, y al que es preciso referirse en términos básicos de plegarias, acción de gracias y ofrendas, que recibe y da, que exige y ofrece, que devora y alimenta, una Madre terrible y generosa.

Antonio de Guezala (Bilbao, 1889) dedicó una parcial atención al mar durante los años 1922-24 en los que frecuentó las localidades costeras de Elantxobe, Baquio y San Juan de Gaztelugatxe. Sin embargo, lo marino resulta escasamente visible, aún y cuando llegó a diseñar un cartel para la compañía naviera Sota y Aznar. Las casas de Elantxobe le dieron ocasión para unas construcciones de hondo sabor expresionista, dotadas de una movilidad tan dinámica como inerte resulta el mar que les acompaña: un simple perfil horizontal al fondo. Con las geometrizadas rocas de Gaztelugatxe ocurre otro tanto: el marco marítimo es el entorno estable de una tierra escamosa y movediza. Como contrapunto de los marinistas decimonónicos, Guezala ni pretende la reproducción exacta, ni concentra su atención en el agua y sus efectos, sino que es la composición plástica lo

que atrae al artista, encontrando éste en las consecuencias de la acción del mar excusas suficientes para satisfacer su interés.

Finalmente, **José María Ucelay** (Bermeo, 1903) fue el más joven de los pintores que realizaron una aproximación singular al tema del mar antes de la guerra civil del 36-39. Ucelay, quien además confeccionó la sobrecubierta del libro de Pío Baroja titulado *El País Vasco* (ed. Destino, 1953) e hizo un par de retratos del escritor, prestó una fuerte atención al mundo del mar. De hecho, su obra más esforzada es una idealizada visión de Bermeo, de 20 metros de longitud, en la que se yuxtaponen sincrónicamente todas las posibles actividades de un pueblo pesquero: la actividad en la lonja, el reposo de las redes, la construcción en el astillero, la flota fondeada y la espera del momento de partida. El esteticismo de Ucelay transmite al conjunto de la acción y escenario una soberana placidez por la que los ritmos y movimientos se producen bajo la dorada cadencia del sol del atardecer. Es la armónica convivencia de una sociedad perfecta con la fuente de trabajo que marca su carácter; el mar como compañero y amigo ideal. En las pinturas para el trasatlántico inglés "Caronia", c. 1947, y en las destinadas al petrolero "Bilbao", c. 1961, Ucelay distaba ya de ser el configurador de la cotidiana utopía bermeana y su visión del mar se refugió en una nostalgia ilustradamente enciclopedista, plena de barroquismos formales y sugerencias alegóricas, extraída de múltiples libros de entre los que destaca *La arquitectura naval española* (en madera). Bosquejo de sus condiciones y rasgos de su evolución, de Gervasio de Artiñano (Barcelona, 1920).

Guiard o el mar como epopeya económica; Zubiaurre o el mar como aglutinante de la vida colectiva; Tellaetxe o el mar como suma de los aparejos necesarios para cruzarlo y vivirlo físicamente; Maeztu o el mar como teatro para la escenificación de la lucha entre la Vida y la Muerte; Guezala o el mar como constructor de rocas y casas de expresión activa; Ucelay o el mar como utopía cotidiana y nostálgica.

Hasieran aipatu dugu horren arrazoia: hortxe bertan dugu, bazter ezina da euskaldunontzat itsasoa.

Ricardo Baroja, itsasoaren pintore eta irudigile

Plastikaren eta literaturaren adierazbideak berez dira diferenteak, oso gainera. Hortaz, batere zalantzarik gabe esan daiteke adierazbide horietako bat menderatzeko gaitasunak ez duela, inondik ere, besterako trebetasuna bermatzen. Halaber, bi tasun horiek gizaki batengan elkartuko balira ere, bataren zein bestearen edukiek ez lukete zertan berdinak edo berdintsuak izan. Aitzitik, oso litekeena da desberdinak edo guztiz elkarren kontrakoak ere izatea.

Besterik da, ordea, *Ricardo Baroja Nessi* (Minas de Riotinto, 1871). Izan ere, eragingarri beraren ondorio baitziren haren margolaritza eta literaturgintza: zer kontatu nahi, hura margotzen zuen Barojak, eta irudi bihurtu nahi zuena, hura kontatzen.

Haren iloba Pio Caro Barojak idatzitako biografian (*Imagen y derrotero de Ricardo Baroja*, Bilboko Arte Ederretako Museoa, 1987) eta beste iloba Julio Caro Barojaren *Los Baroja (Memorias familiares)* –Taurus arg., Madril, 1972– liburuko hainbat orrialdetan barrena ere, Barojatarren berri zehatza ematen denez, orain, aitzinsolas gisa, haren familiarterako eta gainerako hartuemanen buruzko argibideak ematen hastea, edota Ricardok itsasoarekin zituenei buruz hitz egitea, hau da, itsasoaren maitasuna nola hazi zen, eta alor horretan, zientziari eta fantasiari buruzko haren jakinminak nora jo zuen azaltzea, nerontzat hartu beharrik ez dudan lana dela uste dut. Beraz, zeregin horren zama bizkarretik kendurik, lot nakion, besterik gabe, Ricardoren itsas gaiko margolaritzari buruzko iruzkina egiteari.

Marina (c. 1885-86) da Ricardoren margolan eza-gunenetako bat, bai eta itsasoa gaitzat duen bakarra, askoz geroago arte: agure bat mutiko

batek seinalatzen dion urrantasunari begira dago (margoaren hondorantz). Bestetik, agurearen bizkarrean bermaturik, neskatila batek beste aldera begiratzen du (ikuslea dagoen aldera). Margolaritzaren alor honetan gerora agertu zituen ezaugarriak baino gehiago, Barojaren beraren ezaugarrietako asko antzeman daitezke lan honetan: txalupa kulunkarian eserita, baina oinak lurrean dituela; arreta jarriz haurraren urrutirako fantasia, baina neskatilaren segurantzaren berme aldi berean; urruntasunean galdutako tokiak iradokiz, baina errealtate hurbilenari itsatsita.

Hogeita hamar urte geroago, 1927an, hasi zen Ricardo itsasoari buruzko margolanetan arreta handiago jartzen. *Puerto*, adibidez, itsas herri bateko alderdi baten ikuspegia da. Nolanahi ere, uretan dagoenaren ikuspegitik egina izan arren, ez da hartan urik ageri. Aurrez aurre, koadroaren aitzinaldean, bost untziren zatiak ikusten dira, hainbat tamainatakoak (bitarteko tamainako bi bela untzi, bapore bat, txalupa bat, eta buke baten txopa). Horien atzean, lerroan jarritako etxe sail bat dago, kolore, neurri eta itxura ezberdineko etxez osatua. Betekizuna ere ezberdina dute etxe horiek; izan ere, etxebizitzaren ondoan Hotel bat ageri da (Portukoa, noski), eta eliza baten partea. Gauza horiek guztiek bi aldetako lan etengabea gogorarazten dute: etxe barrukoak batetik (tximini kea dariela, arropak zintzilik, leihoak zabalik...) eta untzietakoak bestetik. Etxeak bezala, era askotakoak dira untziok ere, eta ezberdinak, elkarrengandik bereizten dituzten izenak agerian ditzutela: "Teresa", "Amalia". Langiletasun sentipena ez dator koadroan jende lanpetu asko agertzetik, bakan batzuk baino ez baitira, egia esan, lanean ageri, baizik eta haien arteko bizikidetasun estuak kaiko moilan eta uretan lana erruz egiten dela adierazten dutelako. Hala, urrutirako itsasaldiak, gogoan gordetako emakumeak, herritik igarotzen diren bidaiariak eta beste hamaika bitxikeria oroitarazten ditu pintura horrek. Eta inondik ageri ez den itsasoari, honi bakarrik, zor zaio horien guztien aldibereko elkarbizitza.

Ricardo Barojaren autorretratuaren xehetasuna, 1930.

Detalle del autorretrato al aguafuerte de Ricardo Baroja, 1930.



Por supuesto, otros muchos pintores vascos trataron asuntos relacionados con el mar. El tema de El regreso de las lanchas fue un tópico trabajado por Angel Larroque y Aurelio Arteta, entre otros muchos. Al igual que las repasadoras de redes o cargadoras de cestos, como Venus arrantzales, pintadas por Eduardo Landeta, Benito Barrueta y Alberto Arrúe, además de Arteta. Las visiones más o menos pintorescas o modernas de poblaciones costeras fueron tratadas profusamente por Jenaro Urrutia, sobre todo, pero también por Darío de Regoyos, Ignacio Zuloaga y Ernesto Pérez-Orúe. Grupos de pescadores, además de muchos de los citados, pintaron también Juan Aranoa y Nicolás Martínez Ortiz. En fin, no encontraríamos un sólo pintor que no realizara una pintura relacionada con el mar. La razón ya se ha apuntado al comienzo: el mar está ahí al lado, nos es inevitable a los vascos.

Ricardo Baroja, pintor e ilustrador del mar

El lenguaje plástico y el literario son de naturaleza completamente distinta, pudiendo asegurarse, en consecuencia, que no sólo la capacitación en uno de ellos no garantiza en absoluto la destreza en el otro, sino que, de darse ambas cualidades afortunadamente en una sola persona, los contenidos expresados por dichos lenguajes no tendrían por qué ser idénticos o aproximados entre sí, sino que bien pudiera ocurrir que resultaran diferentes y hasta contrapuestos.

No es éste el caso de Ricardo Baroja Nessi (Minas de Riotinto, 1871). Su pintura y su literatura respondían a los mismos estímulos. Baroja pintaba lo que deseaba contar y narraba lo que le gustaba convertir en imágenes.

La minuciosa biografía escrita por su sobrino Pío Caro Baroja (Imagen y derrotero de Ricardo Baroja, Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1987), así como las abundantes páginas dedicadas a él por su otro sobrino, Julio Caro Baroja, en Los Baroja (Memorias familiares), (ed. Taurus, Madrid, 1972), me liberan de la tarea de explicar, introductorariamente, cuáles eran las vinculaciones personales y familiares de los Baroja, y en particular de Ricardo, con el mar, cómo desarrolló su amor hacia lo marítimo y hacia dónde se expandieron sus curiosidades científicas y fantasiosas en este terreno. Esta descarga me permite entrar a comentar su pintura de tema marítimo, sin más preámbulos.

Marina, c. 1885-86, es una de sus primeras obras conocidas y única de tema marino hasta muchos años más tarde: un anciano contempla la distancia que le señala un niño (hacia el fondo de la pintura), mientras una niña recostada en la espalda del anciano mira en dirección contraria (hacia el espectador). En ella, más que apreciarse las constantes que, en el futuro, caracterizarían esta parcela de su trabajo plástico, se contienen muchos de los rasgos propios del Baroja persona: sentado sobre la moviediza barca, pero con los pies en tierra; atendiendo a la lejana fantasía del niño, pero sirviendo de respaldo a la seguridad de la niña; insinuando remotos lugares, pero pegado a la realidad inmediata.

Fue después de tres décadas, en 1927, cuando Ricardo empezó a prestar una atención pictórica más intensa al mar. Así, Puerto es una visión parcial de una población costera contemplada desde el agua, pero sin dar entrada a ésta. De manera frontal, se ve en un primer término fragmentos de cinco embarcaciones de diversos tamaños (dos veleros medianos, un vapor, una barca y la popa de un buque). Tras ellas, una secuencia de casas



La brújula. Ricardo Barojaren olio, 1942. Jabetza pribatua.


La brújula. Óleo de Ricardo Baroja, 1942. Propiedad particular.

Iparraldeko portu urdin berdaxka, bildu, egun-egungo eta zibil honi kontrajarriz, hegoaldeko portu urre kolore, sakabanatu, historizista eta hierarkiatan mailakatu bat margotu zuen Ricardok urte horretan bertan, 1927an alegia: *Puerto del Mediterráneo*. Arrazoi horiengatik gai guztiz ezberdinetako margotzat har balitezke ere bi margo horiek, kokatutako geografiagatik eta giro-tutako denboragatik baino ez dira elkarrengandik bereizten; lan-eta-lan diharduen itsas portu baten gainerako iradokizun oro, berariaz ahaztutako itsasoa barne, berberak dira batean zein bestean. Urte batzuk geroago gogoz heldu zion bidenabarreko joera historizista horren sailekoa da *El barco pirata* izenekoa ere.

Baina Ricardoren urte horietako margolaritzak errealismoa du ezaugarri nagusitzat; joera horretako lanen artean azpimarratzekoak dira *Puerto de San Sebastián* eta *Lancha pesquera*. Urte berekoa da orobat *La boya roja*, zabaletara egindako margolan txikia. Koadro honetan itsasoko gauzen neurrigabetasuna iradokitzen da, etxe baten eta pertsona batzuen ondoan dagoen buia gorri eskeraren bitartez.

Ricardoren margolanik jakingarrietako bat, jakingarriena ez bada, hurrengo urtean egina da, 1928an, *Pintando el casco* izenburupean. Aurrekoan bezala, koadro honetan ere doi-doi ikusten da itsasoa; itsasuntzia itsasuntzi zati bat da –branka, hain juxtu–; eta, orobat, itsasoko untiztar horren bolumen eskerga giza kaizuari gailentzen zaio. Asmatu egin zuen Ricardok gai bitxi hau aukeratzean –untzi kroskoa berritzeko margotze lanak–, eta hori du deigarriena koadroak. Konposizioari dagokionez, koadroa taxutzeko aukeratutako moduak dinamismoa sortzen du behean eta eskuinaldean; aitzitik, goiko eta ezkerreko aldeak, estatikoagoak dira. Alde batean margo eta irudi gehiago erabiliz eta beste aldeko zeruaren berdintasuna baliatuz lortzen du Ricardok efektu hori. Nolanahi ere, erdialdeko elementua da, berritzen ari diren untzi krosko hori alegia, koadroari nortasun berezia ematen diona. Gainazal zurian han-hemenka barreiatutako gorriune irregularrek halako giro informala eta irrealia ematen diote egoerari. Esango litzateke, egiazko moilaren eta zeruan artean zehaztugabe dagoen gauza bat dela itsasuntzia, behin eta berriz konpondu behar dena.

1920-1930 bitarteko urteetan egin zituen akuafor-teetan ere, gehiago dira portuei buruzko margoak itsas eta itsasoko gauzei buruzkoak baino. Adibidez, 1928. urteko *Puerto delakoak* izen bereko aurreko urteko koadroa gogorarazten du, baina honako honetan gertuago ikusten da portua, zeruaren arrastorik agertu gabe, eta tapitu eta barrenkoi samarra da aurrekoaren aldean: ur bareetatik egindako ikuspegia da, bi motatako itsasuntziren zatiekin, eta atzean, kaiko etxeak –halako erritmo berezia ematen dioten puntu erdiko arkuko atari ilunekin– dituela. Urte horretan bertan beste *Portu* bat egin zuen –Bermeokoa ote?–, baina ikusmira zeharo aldatuz. Izan ere, herriaren zati handiagoa agertzen du koadro honetan, eszenaren eremua estutu gabe, eta txalupetan zabalduetako haize ohialen eta zuriz jantziko marinel soldaduen bitartez, bestelako giro



La vela rota. Ricardo Barojaren olioa, 1942. "Itzea" bilduma.


La vela rota. Óleo de Ricardo Baroja, 1942. Colección "Itzea".

en fila, de muy distintas características en cuanto al color, el tamaño, la configuración y hasta la función, pues junto a casas de viviendas se contempla un Hotel (del Puerto, por supuesto) y el fragmento de un templo. Todo remite a una intensa actividad doble: de una parte, dentro de las casas (chimeneas humeantes, ropas tendidas, ventanas abiertas...) y, de otra, en las embarcaciones, igualmente variadas y distintas entre sí (hasta evidencian sus nombres propios: "Teresa", "Amalia"), no tanto porque se divisen muchas figuras ocupadas en tareas, ya que éstas son pocas más bien, sino porque su arracimada coexistencia denota una elevada ocupación de los muelles y las aguas del puerto. Así, la pintura es una evocación de tráficos remotos, mujeres recordadas, viajeros de paso, múltiples singularidades y todo ellos coexistiendo gracias únicamente al factor ausente del mar.

Frente al anterior puerto, norteño, azul-verdoso, agrupado, actual y civil, el mismo año de 1927 Ricardo pintó Puerto del Mediterráneo, obviamente sureño, dorado, inarticulado, historicista y jerarquizado. Aunque por todas esas cuestiones pudieran ser presentadas como pinturas temáticamente opuestas, sin embargo sólo lo son por la ambientación geográfica y temporal; todas las demás sugerencias propias de un activo puerto marino son idénticas, incluido el deliberado olvido del mar. En esta episódica onda historicista, que años más tarde retomará con fuerza, se encuentra El barco pirata.

Pero lo propio de estos años es su realismo y dentro de él pintó Puerto de San Sebastián y Lancha pesquera. Igualmente de 1927 es La boya roja, una pequeña composición apaisada en la que se sugiere la escala desmesurada de lo marítimo a través de la gigantesca presencia del objeto rojo junto a una casa y unas personas.

Una de sus pinturas más interesantes, si no la que más, es la que realizó al año siguiente, 1928, con el título de Pintando el casco. Tampoco aquí se divisa una parte importante de mar; también aquí el barco es, en realidad, un fragmento de barco -la proa; y el volumen imponente del artefacto marino se impone, igualmente, sobre la dimensión humana. Lo llamativo de esta obra reside en el acierto singular de la elección del tema: el trabajo de repintado parcial del casco del buque. En cuanto a la composición, el modo elegido para resolverla crea dinamismo, abajo y a la derecha, en paralelo a una zona más estática, arriba y a la izquierda; lo cual desarrolla en conjunción con una mayor variedad cromática y figurativa, de una parte, y la uniformidad del cielo, de otra. Con todo, es el elemento intermedio, ese casco en reparación, lo que dota de personalidad al cuadro; las puntuales e irregulares manchas rojizas repartidas sobre la superficie blanca dan una atmósfera informal y un tanto irreal a la situación. Es como si el barco fuera lo indeterminado, entre las dos certezas del muelle y el cielo, que necesita ser revisado constantemente.



Galeón a Pasajes. Ricardo Barojaren olioia, 1942. Pilar Gallianoren bilduma (Bidasoako Bera).

Galeón a Pasajes. Oleo de Ricardo Baroja, 1942. Colección Pilar Galliano, Vda. de Soroa (Bera de Bidasoa).

eta beste lurralde batzuk gogorarazten ditu. Bi urte geroago, 1930ean, *El trasatlántico* egin zuen; koadro honetan berriro agertzen ditu ohizko gaiak: itsasuntzi baten zatiko ikuspegia eta itsasoko gauzen handitasun edo txikitasuna.

Baina Barojak aietasunez menderatzen zituen gai horiek lantzeko moduan, badira, jakina, bestelako ezaugarri batzuk ere: sokez eta haize oihalez baliatzen zen konposizioari erritmoa eta askatasuna emateko, lainoa eta baporeetako kea erabiltzen zituen eszena halako lanbro misteriotsuaz betetzeko, xehetasunen deskripzio lausoa egin ohi zuen, gauzak zeharo zehaztugabe, baina zorrotasunez beti –batez ere itsasuntzien deskripzioak egitean; ez, ordea, bestelako irudien edo geografiaren deskripzioetan–, eta atsegin izaten zitzaion untxi kroskoetan izenpearen monograma jartzea. Barojak ez zuen itsas zabalera menturatutako marinela izateko asmorik; portuan dagoen itsasuntzia izan nahi zuen. Itsas abentura bera bizitzea baino, atseginago zitzaion moila ondoan kairatu ondoren etxean abentura kontatzea, edota, abiatu aurretik, abentura bizitzeko aukera iradokitzea.

1931ean begia galdu zuen Ricardok. Galeraren latzaz gainera, zoritxarreko gertaera hura are la-

tzagoa zen margolari batentzat. Etsipenean erori zen, eta denbora hartan, margotzeari utzi zion, ia-ia betirako utzi ere; pixkana, ordea, bizkortu eta berriro ekin zion lanari. Garai hartako aldarrearen adierazgarri da 1933. urteko *Autorretrato* izeneko lana. Koadroaren hondoan, eskuinaldean, itsasoaren ikuspegi ilunbetsu batean, gabarra bat datza lehorrean; bertan behera utzita, ihar eta indarge; uretarako eraiki zena uretatik at; gabarra gauzaez hura Ricardoren gogoabailueduaren metafora bat zen.

Literaturak indarberritu zion galdutako segurantzaz. 1930-1940 bitarteko lehen urteetan, Ricardo Barojak itsasoa izan zuen bere gogo egoeraren eta irudimenaren babestokirik guragarriena, idazle gisa oraingoan. 1935. urtean *La nao "Capitana"*. *Cuento español del mar antiguo* argitaratu zuen, bai eta Cervantes Saria irabazi ere liburu horrekin. Honela azaldu zuen Ricardok zerk bultzatu zuen liburua idaztera: "*une hauetako zorigaitzak ahazteko, fantasian babestu naiz, irudimenaren orri artean*". 1942an *El Dorado* eman zuen argitara, nahiz eta askoz lehenago (1935-1936) egina izan liburuaren lehen erredakzioa. 1945ean *Los dos hermanos piratas*. *Cuento del mar mediterráneo* kaleratu zuen. Lagun bati, Jenaro Ruiz de Arcaute-ri, eskaini zion liburua Ricardok –bere "itsas mina" bakanki asetu zuen Aralar bela untziaren jabeari, alegia–, eta hari egidako "Eskaintza"-n aitortzen duenez, beti egon zen "itsasoz maiteminduta. Haurra nintzenez gero, amets egin dut itsasuntziekin, ekaitzekin, itsas guduekin, abordaje eta naufragioekin". Bazuen ere urte batzuk lehenago (1917) argitaratutako liburu bat, *Aventuras del submarino alemán U* izenburukoa. Liburuak Ricardoren xilografi itxurako hainbat eta hainbat marrazkirekin apaindurik daude.

La nao "Capitana" izenburukoan, adibidez, 78 marrazki (liburu hasierako "Eskaintza"-ren buru agertzen den autoerretatua barne) eta 81 irudi txiki sartu zituen. Marrazki eta irudi horiek, liburu-ko 214 orrialdeetan zehar banaturik, testua arin-

En los aguafuertes que ejecutó Ricardo Baroja durante los años 20 también existen algunos de contenido portuario, más que marítimo. Por ejemplo, Puerto, de 1928, recuerda mucho al óleo de igual título realizado el año anterior, aunque aquí, al tratarse de una vista más próxima al muelle y no vislumbrar el cielo, resulta un tanto cerrada e interiorista: vista desde el agua remansada, fragmentos de dos tipos diferentes de barcos, y las casas -con oscuros soportales de arco de medio punto que generan un interesante ritmo- sobre el muelle al fondo. Distinta es la visión de otro Puerto, que quizás pudiera tratarse de Bermeo, de estas mismas fechas, ya que da entrada a un mayor conjunto de población, desahoga el espacio escénico y remite a otros aires y otras tierras gracias a las velas desplegadas de las lanchas y al soldado marino vestido de blanco. De unos pocos años más tarde, 1930, es El trasatlántico, donde se repiten asuntos como la visión parcial de un barco y la diferencia de escalas marítimas.

Como es natural, existían otras constantes en el tratamiento de estos asuntos que Baroja manejaba con soltura: la apoyatura en cordajes y velámenes para dar ritmo y desenvoltura a la composición, el uso de la neblina y el humo de los vapores para difuminar misteriosamente las escenas, la velada descripción de los detalles, no minuciosa, pero siempre exacta -sobre todo en lo tocante a barcos, no, por contra, de las figuras y las geografías-, y el placer por situar el monograma de la firma en los cascos. Baroja no quería ser un marinero en altamar, sino un barco en el puerto, y apreciaba no tanto la aventura marítima en sí, como la narración de la aventura tras regresar a casa y atracar junto al muelle, así como la sugerencia de su posibilidad antes de partir.

La pérdida de su ojo derecho en 1931 supuso un duro revés para Ricardo por lo que, además del daño personal, ello significaba, precisamente, para un pintor. Su estado de ánimo se deprimió; abandono temporal y casi totalmente la pintura, para ir recuperando poco a poco. Significativa-

mente, en su Autorretrato, de 1933, al fondo y a la derecha, en un paisaje de mar lóbrego, se divisa el casco de una barcaza tumbada sobre tierra: estancada, seca e inerte, esa barcaza fuera del medio natural para el que fue construida, inútil, era una metáfora de su abatido espíritu.

La reconstrucción de su seguridad vino de la mano de la literatura. En aquellos años de principios de los 30, Ricardo Baroja encontró en el mar un refugio apetecido para su ánimo y para su imaginación... como escritor. En 1935 publicó La nao "Capitana". Cuento español del mar antiguo, con la que ganó el Premio Cervantes, para, según sus propias palabras, "olvidar las miserias del momento, me he refugiado en la fantasía, en las folias de la imaginación". En 1942 sacó a la luz El Dorado, aunque la primera redacción de esta novela fue de 1935-36, y en 1945, Los dos hermanos piratas. Cuento del mar mediterráneo, en cuya "Dedicatoria" a Jenaro Ruiz de Arcaute -un amigo propietario del velero Aralar, a bordo del cual Ricardo satisfizo "pocas veces (sus) anhelos náuticos"- confiesa que siempre había sido "un enamorado del mar. Desde la infancia he soñado con barcos, tempestades, batallas navales, abordajes, naufragios". Con anterioridad, 1917, había publicado las Aventuras del submarino alemán U. Todas ellas fueron muy ilustradas por Ricardo con dibujos de apariencia xilográfica.

En La nao "Capitana", por ejemplo, incluyó 78 dibujos (entre los que se encuentra un autorretrato que encabeza la "Dedicatoria" inicial) más 81 pequeñas ilustraciones que, repartidas a lo largo de las 214 páginas aligeran el texto y lo complementan alusivamente de manera discreta y siempre oportuna. Ya que la acción de la novela se desarrolla en el siglo XVII resulta lógico que se inspirara en "otras figuras que pintaron los grandes maestros de los siglos XVI y XVII". De ahí el obvio historicismo de las ilustraciones, aunque, de hecho, resulten anacrónicas, pues describió velas que en aquel momento aún no existían. No le importaba, pues sólo un técnico de la marina podría apercibirse de

